



Deusto

Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea
Faculty of Social and Human Sciences

Euskal Hizkuntza eta Kulturako Gradua Grado en Lengua y Cultura Vasca

Gradu Amaierako Proiektua Proyecto Fin de Grado

ETA HIK ZE USTE DUN/K?

Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan:
ustek, balioak eta diskurtsoak

Laura Alberdi Zumeta

Deustun, 2019ko ekainaren 27an



Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea
Faculty of Social and Human Sciences

Euskal Hizkuntza eta Kulturako Gradua Grado en Lengua y Cultura Vasca

Gradu Amaierako Proiektua Proyecto Fin de Grado

ETA HIK ZE USTE DUN/K?

Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan:
ustek, balioak eta diskurtsoak

Laura Alberdi Zumeta

Deustun, 2019ko ekainaren 27an

Laburpena

Jada ez da hitanoa lehen adina entzuten Euskal Herriko kaleetan eta entzuten den gehiena toka izan ohi da, eta ez noka. Desoreka horretaz ohartuta, eta hitanoak azken urteetan izan duen beherakadarekin kezkatuta, lan honen helburua Azpeitiko gazteek hitanoaren inguruan dituzten hizkuntza ideologietan, usteetan eta balioetan murgiltzea da. Batetik, jakiteko hitanoaren inguruan zer uste duten eta hitanoari zer ezaugarri atxikitzen dizkioten; eta bestetik, identifikatzeko hitanoa erabiltzeko zer irizpide jarraitzen dituzten eta ez erabiltzeko zer arrazoi dituzten. Horretarako, lehenik, lau behaketa sistematiko egin dira eta, ondoren, hiru eztabaida talde; ezer baino lehen, inguruko hizkuntza komunitateko hitanoaren erabilera nolakoa den jakitea beharrezkoa baita, gero joera eta praktika jakin horien inguruan mintzatzeko. Bildutakoak bilduta, badirudi hitanoa ulertzeko eta bizitzeko beste era bat datorrela belaunaldi berriekin, izan ere, orain arte ezarritako arau sozialak eta hitanoaren inguruko sinesmenak aldatzen ari dira gazteen artean. Hala ere, lehendik ere indarrean zeuden genero rolerak oraindik ere badute pisua hitanoaren baitan, bereziki, nesken kalterako. Horrez gain, gazteek kezka eta buruhauste berriak dakartzate mahai gainera, orain arte sekula burutik pasa ez direnak, eta hitanoaren biziraupena kolokan ikusten dute.

Hitz gakoak: hitanoa, toka-noka, hizkuntza ideologiak, gazteak.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	6
2. Helburuak eta hipotesiak	7
3. Oinarri teorikoa.....	10
3.1. <i>Hi</i> izenordaina	10
3.2. Hizkuntza ideologiak aztertzeko beharra	14
3.3. Hitanoaren transmisioa eta hizkuntza sozializazioa	18
3.4. Hitanoa generoaren begiradatik	19
4. Metodologia.....	23
4.1. Datu bilketa	23
4.1.1. Behaketa parte hartzailea.....	23
4.1.2. Eztabaida taldeak.....	25
4.1.3. Eztabaida taldeetako partaideak	26
4.2. Analisisirako metodologia	28
5. Ikerketaren kokalekua: Azpeitia.....	30
5.1. Azpeitiko errealitate soziolinguistikoa.....	31
5.2. Hitanoa zenbakitan.....	34
5.2.1. Kaleko erabilera	35
5.2.2. Familian.....	38
5.2.3. Lagunartean.....	41
5.2.4. Ikastetxean.....	42
5.2.5. Buru barruan.....	43
5.2.6. Beste zenbait kontu	43
5.2.7. Laburpena.....	45
6. Analisia.....	47
6.1. Hitanoa hurbiletik.....	48
6.1.1. Familian.....	48
6.1.2. Lagunartean, mutilekin.....	49
6.1.3. Lagunartean, neska-mutilekin	50
6.1.4. Nokadromoan	51
6.1.5. Motzean.....	52
6.2. Hitanoa gazteen hitzetan	54
6.2.1. Transmisioa eta mudantza: nola jaso eta noiz hasi erabiltzen	54
6.2.2. Hitanoaren erabilera baldintzatzen duten irizpideak eta arrazoiak.....	59
6.2.3. Hitanoari lotutako balioak, usteak eta ideologiak	63
7. Ondorioak	78
8. Erreferentzia bibliografikoak.....	83
9. Eranskinak	87

ETA HIK ZE USTE DUN/K?

Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan:
usteak, balioak eta diskurtsoak

1. Sarrera

Nire inguruan etengabe entzuten ditut gisa honetako esaldiak, “*Hi! Aitze al dek? Atzo harea jun gitxoan ta...*”; ez horrenbeste honelakoak, “*Hi, ba al dakin? Hamen gatzaren ba, etorri hai!*”. Orain gutxi arte, ordea, ez diot neure buruari galdetu zergatik entzuten ote den *hi* bat bestea baino gehiago. Galdera horren atzetik beste hainbeste heldu dira, eta erantzunik ez. Lan honetan, beraz, galdera jasa horri erantzunak bilatzen saiatuko naiz.

Hitanoa, hika edo hiketa¹ euskarazko tratamendu informala da, gertuko kideei eta hurbileko adiskideei zuzentzeko modua. Gehien bat, berdinen artean eta goitik beherako harremanetan entzun ohi da, ez horrenbeste behetik gorakoetan. Nahiz eta euskal gramatikan pertsonaren generoa ez den markatzen, hikak oinarri-oinarrian du generoareen bereizketa; izan ere, hartzailea nor den, aditzaren formak aldatu egiten dira. Hau da, ez da berdina emakumeari eta gizonari egiten zaion hitanoa, lehenengoari noka deritzo eta, bigarrenari, berriz, toka. Azken hamarkadetan, nabarmen egin du behera hitanoaren erabilerak Euskal Herriko kaleetan. Garai batean erruz erabiltzen zen toki batzuetan jada ez da txintik ere entzuten, eta oraindik bizi-bizi dagoen txokoetan ere beherantz doa lagunarteko tratamendua. Gainera, hitanoa erabiltzen den eremu horietan biziraupena erdizkakoa da: toka osasuntsu dago, baina noka ia hiltzear.

Orain arte, aditu bati baino gehiagori sortu dio kezka edo ikertzeko grina hitanoak. Hala ere, euskarazko tratamendu horren inguruko bibliografiari erreparatuta, oro har, ez da askorik aztertu eta gaiaren inguruko literatura nahiko urria da. Hastapenetan, hitanoa hizkuntzalaritzaren eta gramatikaren esparrutik aztertu zen, gehien bat, horixe zelako tratamenduak begi bistan zuen berezitasun nagusia. Soziolinguistikarena izan da esparrurik emankorrena eta lan honek ere bide horixe urratzen jarraituko du. Alor horretan aipamen berezia merezi du Xabier Alberdik (1993, 1994, 1996) hitanoaren gainean egindako lanak, tratamenduaren erabileraren zein balore sozio-afektiboen inguruan sakondu baitu, beste hainbat alderdirekin batera. Bestalde, Begoña Echeverriak (2001, 2003) ez du hitanoa zuzen-zuenean aztertu, baina euskal identitatearen eta nazioaren eraikuntzan zehar-lerro gisa ekarpen interesgarria egin du. Gainera, Echeverriak hizkuntza ideologiaren perspektibatik ez ezik, genero begiradatik ere lantzen ditu euskal identitatearen eraikuntza eta hizkuntza praktikak.

¹ Nahiz eta ez diren kontzeptualki gauza berbera, *hitanoa* eta *hika* terminoak baliokide gisa agertuko dira lanean zehar.

Azken hamarkadan, ordea, loraldi xumea bizi du hitanoak esparru akademikoan, izan ere, urte gutxian gora egin dute hitanoari buruzko ikerketek eta lanek². Horri esker, batetik, aurrez lantzen hasitako bideak (hizkuntzalaritza eta soziolinguistika, esaterako) sendotu eta aberastu egin dira eta, bestetik, bide eta alor berriak ireki dira, adibidez, herri-hizkeren, bertsolaritzaren eta hezkuntza edo didaktikaren diziplinak.

Azken horrekin lotuta, hitanoa hezkuntzatik jorratzeko ahaleginak ere egin dira, lehenbizi Zumaian eta ondoren Azpeitian. 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan hasi ziren bi herrietako ikastetxeak Mintzola Fundazioarekin elkarlanean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan egitasmoa martxan jartzeko. Gerora, Soziolinguistika Klusterrak hartu du bere gain egitasmoa ikastetxeetako irakasleekin lankidetzan eta geroztik material didaktikoa osatzen eta proiektua maila gehiagotara zabaltzen dihardute (Azpeitiko Euskara Patronatua, 2011 eta Soziolinguistika Klusterra, d.g). Hezkuntzan ez ezik, herriko kaleetan hitanoa indarberritzeko eta sustatzeko egitasmoak eta ekimenak ere ugaritzen ari dira han eta hemen. Momentuko oparoaldi horrek erakusten du une honetan, behintzat, hitanoa ikertu eta indartzeko gogoia egon badagoela.

2. Helburuak eta hipotesiak

Gurera itzulita, Azpeitian (Gipuzkoa), gainerako herriekin alderatuta, hitanoa osasun betean dagoela uste da. Hala ere, ez dago belarria asko zorroztu beharrik ohartzeko lagunarteko tratamendu horrek gainbehera nabarmena izan duela belaunaldi gutxitan barrena, batez ere, nokak. “Azpeitiko gazteen artean hiketa bizi-bizirik dagoela esaten den arren, bizirik dagoena toka da, noka hiltzorian baitago, hilda ez esatearren” (Izagirre, 2010, 74. or.). Bederatzi urte beranduago, 2019an, egoera ez da asko aldatu, ez hobera behintzat. Azpeitiko gazteen ahotan tokaren eta nokaren artean dagoen desoreka izugarriak eragindako kezkak eta jakinminak bultzatu nau lan hau egitera. Datozen lerrootan, beraz, Azpeitiko hitanoaren inguruan ekarpen xume bat egiten saiatuko naiz.

Hori horrela, hitanoaren erabilerak atzean dituen hizkuntza ideologiak zein diren identifikatzea da jomuga nagusia eta Azpeitiko gazteek hitanoaren gainean dituzten uste, balio, sinesmen eta diskurtsoak aztertzea. Helburu horren baitan, ordea, lanak beste

² Ikus www.hitanoaz.eus webgunean *Hitanoaren gaineko ikerketak* atala, esparruz esparru.

hainbat xede ditu. Batetik, hitanoa Azpeitian zein egoeratan dagoen aztertzea, eta zehatzago, nire hurbileko komunikazio eta harreman sareetan hitanoaren erabilera nolakoa den neurtzea. Bestetik, hitanoaren erabileraren eta erabilera ezaren atzean dauden faktoreak aurkitu nahi nituzke —alegia, Azpeitiko gazteek hitanoa erabiltzeko eta ez erabiltzeko dituzten arrazoien bila aritzea—, ondoren, toka eta noka arteko desorekaren arrazoiak zein izan daitezkeen ezagutzeko. Azkenik, lan honen bidez hitanoa eta generoaren arteko hartu-emanen sakondu nahi nuke, susmoa baitut hizkuntza ideologiez gain, genero rolek ere lotura zuzena izan dutela tokaren biziraupenean eta nokaren beherakadan.

Aipatu berri dudana ez da buruan darabilkidan susmo bakarra; baditut beste hainbat hipotesi ere ikerketari ekin aurretik. Irudipena dut, arestian esan bezala, Azpeitian —eta oro har Euskal Herri guztian— hitanoaren erabilerak beheranzko joera izan duela azken urteetan, bereziki nokak. Oraindik hika erruz entzuten da bazter batzuetan, baina haur eta gazteen artean gero eta gutxiago, eta entzuten dena toka izan ohi da. Hala ere, aitortu behar dut nire inguruan hitanoak presentzia handi samarra duela, etxean zein lagunartean. Begi hutsezko aitortpena da, ordea, ez baitut inoiz erabilera beren-beregi neurtu.

Hitanoa erabiltzearen eta ez erabiltzearen atzean egon daitezkeen arrazoien aieruzko aurreikuspen bat ere badut: uste dut faktorerik behinenak hitanoaren ezagutza eta pertsonen arteko harremana direla. Horrez gain, esango nuke hitanoari alde bitako hizkuntza ideologiak atxikitzen zaizkiola: batetik, benetakotasuna, autentizitatea eta legitimitatea; eta bestetik, zakartasuna, bortizkeria eta behe mailako herritarren hizkera izatea. Toka eta nokaren erabileraren arteko aldeari erreparatuta, errezeloa dut aipatu berri ditugun uste, balio eta ideologia horiek eragina izan dezaketela Azpeitiko gazteek hizketako tratamendua hautatzerakoan; eta horixe da, funtsean, aztertu nahi dudana. Ez hori bakarrik, genero arauak eta genero rolek ere eragin zuzena izan dutela esango nuke tokaren biziraupenean eta nokaren galeran. Izan ere, hitanoak bere baitan du errotuta genero binarismoaren ideologia, hau da, bi genero soilik existitzen diren sistema (genero maskulinoa eta genero femeninoa) eta horrek berarekin dakartza, halaber, gizarteak genero bakoitzari ezarritako rolak.

Hipotesi horiek guztiak baieztatzen edo ezeztatzen saiatuko naiz ondoren datozen lerroetan. Hasteko, oinarri teorikoari ekingo diogu, testuinguruan kokatzeko, hitanoaren inguruan orain arte egin diren ikerketak azaltzeko eta lanean zehar agertuko diren terminoak eta kontzeptuak egoki ulertzeko. Jarraian, ikerketaren metodologia zehaztuko

da eta datuak biltzeko eta analisisa egiteko erabili diren tresnak eta metodoak argituko dira. Segidan, ikerketan sartzeko eta non gauden jakiteko, Azpeitiari buruzko datuak eskainiko dira, baina batez ere, euskarari eta hitanoari buruzko errealitate soziolinguistikoa landuko da. Ondoren, analisisan murgilduko gara, ikerketaren mamian, alegia. Analisisan, datu bilketan jasotako informazioa eta datuak azalduko dira xehe-xehe eta gaiz gai eztabaidatuko dira. Analisiaren zatian ikusiko dugu, hain zuzen ere, Azpeitiko gazteek hitanoaz zer uste duten eta lortutako emaitzak oinarri teorikoan azalduko teoriekin eta aipatu berri ditugun hipotesiekin interpretatu eta kontrastatuko ditugu. Azkenik, lanaren ondorioak, hausnarketak eta aurretik ditugun erronkak zehaztuko dira.

3. Oinarri teorikoa

Jarraian agertuko diren kontzeptu eta terminoak behar den testuinguruan ulertzeko, beharrezko deritzot lana ikerlerro teoriko baten baitan kokatzea. Lehenago aurreratu moduan, soziolinguistikaren ildotik landuko dugu kasu honetan hitanoa, baina horrez gain, hizkuntza antropologiaren eta teoria feministen begiradez ere baliatuko gara. Hiru diziplinen arteko lankidetzaz ezinbestekoa izango dugu arestian aipatu ditugun helburuak lortu, hipotesiak egiaztatu eta hitanoa ikuspegi zabalagoan aztertu eta ulertzeko.

3.1. *Hi* izenordaina

Sarreran aipatu moduan, hitanoa euskarazko etxeko eta lagunarteko tratamendua da, gertukoa eta informala. Hala ere, euskaraz badaude solaskideari zuzentzeko tratamendu gehiago ere: berorika, eztabada edo zuka, zuka alokutiboa, xuka alokutiboa eta xuka ez-alokutiboa. Berorika, kortesiazko eta begirunezko tratamendua, hegoaldean soilik erabili izan da, eta nahiz eta hiztunek entzutez ezagutu, jada galduta dago (salbuespenak salbu, albuespenik bada). Eztabada, neutroa edo tratamendurik gabekoa ere deitua, Euskal Herri guztian ezagutu eta erabiltzen da. Nahiz eta termino zuzena ‘eztabada’ litzatekeen, gaur egun ‘zuka’ (ez-alokutiboa) ere esaten zaio eta forma orokorragoa denez, hala izendatuko dugu lan honetan. Zuka alokutiboa, berriz, ekialdeko behe-nafarreraz eta zubereraz (zaraitzua eta erronkaria barne) soilik erabili izan da, eta familiarteko xuka alokutiboa eta ez-alokutiboa ekialdeko behe-nafarreraz baino ez (Alberdi, 1996, 299-309. or.).

Hona hemen tratamendu bakoitzaren adibide bana (Alberdi, d.g):

- | | |
|--|---|
| • Hitanoa
<i>Hi haiz.</i>
<i>Aita joan duk.</i> (toka)
<i>Aita joan dun.</i> (noka) | • Zuka alokutiboa
<i>Zu zara.</i>
<i>Aita joan duzu.</i> |
| • Beroriketa
<i>Berori da.</i>
<i>Aita joan da.</i> | • Xuka alokutiboa
<i>Xu xira.</i>
<i>Aita joan duxu.</i> |
| • Zuka ez-alokutiboa
<i>Zu zara.</i>
<i>Aita joan da.</i> | • Xuketa ez-alokutiboa
<i>Xu xira.</i>
<i>Aita joan da.</i> |

Gramatikari eta morfosintaxiari dagokionez, pertsona komunztadura bitxia gertatzen da euskarazko tratamendu batzuetan, hain justu ere, alokutibotasuna. Alokutibotasuna, labur-labur esanda, aditzean bigarren pertsona markatzea da (hots, solaskidea) nahiz eta solaskidea ez izan aditzaren argumentua (Alberdi, d.g). Beraz, aditz alokutiboetan nor, nori eta nork sintagmei dagozkien pertsona markez gain, solaskideari dagokion pertsona marka ere agertzen da. “Tratamendu alokutiboak horixe du bereizgarri, beste hizkuntzetako tratamenduen aldean: aditz jokatuarekiko komunztadura bikoitza” (Amiano, 2016, 12. or.). Hori horrela, hizkuntza fenomeno ezohikoa eta ia bakarra da hitanoa, izan ere, hizketa lagunaren pertsona markatzearekin batera haren generoa ere markatzen da. Gainera, goiko zerrendan ikusi dugun moduan, zuka eta xuka alokutiboak edo ez alokutiboak izan daitezke, baina hitanoak nahitaezkoa du alokutiboa (Alberdi, d.g).

Dena dela, gainerako hizkuntzetan ere badaude solaskideari zuzentzeko hainbat tratamendu; hortaz, ikus dezagun hitanoak tratamendu gisa izan duen bilakaera historikoa Europako beste hizkuntza batzuetako tratamenduekin parez pare jarrita. Roger Brown eta Albert Gilman-ek 1960an *The pronouns of power and solidarity* ikerketa egin zuten bost hizkuntzako (espainiera, frantsesa, alemana, italiara eta ingelesa) tratamendu izenordainei buruz. Aipatu hizkuntzetan bi tratamendu daude: lagunarteko tratamendua eta begirunezko edo kortesiazko tratamendua. Xabier Alberdik (1993, 426. or.; 1994, 990. or.) *T* eta *V* hizkiak erabiltzen ditu laburdura gisa, hurrenez hurren, eta guk ere halaxe adieraziko ditugu.

Brown eta Gilmanen ustez (1960), pertsonen artean harreman simetrikoak (V-V edo T-T) ala asimetrikoak (V-T edo T-V) eraiki daitezke hizkuntzaren erabilerari erreparatuta. Hori kontuan izanda, bi harreman eredu bereizi zituzten: boterearen semantikan oinarrituak eta elkartasunaren semantikan oinarrituak. XIX. mendean boterearen semantika zen nagusi aipatutako hizkuntzetan, hierarkia zuen ardatz eta harreman simetrikoak nahiz asimetrikoak zeuden: simetrikoak berdinen artean (T-T beheklaseetako berdinen artean eta V-V goi-klaseetako berdinen artean) eta asimetrikoak desberdinen artean (T-V, goi-mailakoak T behekoari eta behekoak V goikoari). Gero, ordea, elkartasunaren semantika agertu zen berdinen arteko tratamenduan bereizketak egiteko. Semantika horren arabera, ez da boterea bi pertsonen arteko tratamendua baldintzatzen duena, ezpada bi solaskideen arteko elkartasuna eta kidetasuna (solidaritatea). Beraz, elkartasunaren semantikarekin, berdinen artean *T* bihurtu zen

solidaritateren eta kidetasunaren tratamendua eta V kidetasunik ezarena (Alberdi, 1993, 427-430. or.).

Hori horrela, ikertzaileek ondorioztatu zuten bost hizkuntza horietako tratamenduak denboraren joanarekin boterearen semantikaren logikatik elkartasunaren semantikara igaro direla. Hau da, gero eta tratamenduzko harreman asimetriko gutxiago dagoela, eta aldiz, simetriko gehiago. Baina harreman simetrikoen baitan ere kontua ez dago parekatua, lagunarteko tratamendua baita nagusi (T-T); ez, ordea, kortesiako simetria (V-V). Hori dela eta, aipatutako Europako hizkuntzen gainean bi hipotesi plazaratu zituzten Brown eta Gilmanek (1960), batetik, boterearen semantika alde batera utzi dela eta, bestetik, lagunarteko tratamendua indartzen ari denez, sistema bakuntzen ari dela T-ren mesedetan (Alberdi, 1994, 991. or.).

Ildo horretan, Alberdik (1994, 991-992. or.) Brown eta Gilmanek bost hizkuntza horien gainean plazaratutako hipotesiak euskarara ekarri zituen. Lehenbizikoari dagokionez, hitanoaren erabilerari so, konturatu zen euskaraz oraindik harreman asimetrikoak gertatzen direla, batik bat, familiaren eremuan. Horregatik, nahiz eta hortik kanpora simetriarako joera dagoela onartu, Alberdik baieztatu zuen boterearen semantikaren lorratzak begi-bistakoak direla etxe inguruan. Lagunartean eta kalean elkartasunezko semantika nagusi izan arren, ausartuko nintzateke esatera hor ere eraikitzen direla harreman asimetrikoak; ez horrenbeste beharbada, baina gertatu ohi da berdinen artean solaskide batek hika egin (toka ala noka) eta besteak zuka erantzutea. Analisisira iristen garenean ikusiko dugu zergatik gertatzen ote den hori.

Brown eta Gilmanen (1960) bigarren hipotesiari erreparatuz, ordea, ez dago zalantzarik euskaraz ere tratamenduen sistema bakuntzen ari dela, Euskal Herriko hegoaldean behintzat. Esan bezala, hegoaldean oraintsu arte hiru tratamendu erabiltzen ziren: berorika, zuka eta hika (formaltasun eta kortesiaren arabera mailakatuta). Lehenbizikoa galdu zen eta hirugarrena ere bide horretan doa, zukaren mesedetan. Europako gainerako hizkuntzetan ez bezala, euskaraz orokortzen ari den tratamendua, hortaz, formaltasunezko V da eta ez lagunarteko T.

Alberdik (1993, 434. or.; 1994, 988. or.), halaber, hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagai soziolinguistikoak zerrendatu zituen: hizketa-gaia, hizketaldiaren testuingurua, adina, belaunaldia, generoa, senidetasun-maila, dialektoa, talde-kidetasuna, aginpidea eta sentipenezko elkartasuna (hau da, begikotasuna ala elkar-ezinikusia). Aldagai horiek guztiek —gehiago edo gutxiago eta zuzenean edo zeharka— eragin

dezakete hitanoaren erabileran, baina ezagutza (hots, hitanoa jakitea) baitezpadako baldintza da. Hona hemen aipatutako aldagai bakoitza xeheago azalduta (Alberdi, 1993, 434-437.or.):

- **Hizketa-gaia:** nahiz eta ez duen berebiziko garrantzirik, izan liteke gaiaren arabera (umorezkoa ala serioa, esaterako), hikatik zukara edo alderantziz igarotzea hizketako tratamendua.
- **Testuingurua:** hitz egiten den lekuak eta egoerak, besteak beste, baldintzatzen dute trataera bat ala bestea aukeratu. Izan ere, ez da gauza bera festa-giroan ala egoera goibel edo formaletan hitz egitea. Ez da berdina, halaber, bi lagunen arteko elkarriketa izan ala jende gehiago egotea parean, berez eta jatorriz hartzaile bakarrarekin aritzeko tratamendua baita hika.
- **Adina eta belaunaldia:** hitanoaren arau sozialak tarteko, hiztuna errazago zuzentzen zaio hika adinkideari askoz zaharrago edo gazteago duen solaskideari baino. Adin berdintasunak tratamenduzko simetriak (T-T) sorrarazi ohi ditu eta belaunaldi desberdintasunak, berriz, asimetriak (V-T).
- **Generoa:** funtsezko aldagaia da hitanoaren erabileran. Adin berdintasunarekin gertatzen den bezalatsu, hiztunak errazago egin ohi dio hika genero berekoari beste generokoari baino. Arestian aurreratu moduan, gizonen arteko T-T simetriak ohikoagoak dira emakumeen artekoak baino; eta asimetrien kasuan, gehiago gertatzen da emakumeak hika egitea gizonari eta gizonak zuka erantzutea, alderantziz baino.
- **Senidetasun-maila:** zenbat eta ahaide hurbilagoak izan, orduan eta posibleagoa da harremanak hitanoz eraikitzea.
- **Dialektoa:** hitz egiterakoan solaskidearen hizkuntza-ohituretara egokitzeko joera dago. Horregatik, solaskideak hitanoz ez badaki bere euskalkian egiten ez delako, gerta liteke dakiena ere zukaz zuzentzea urruntasun dialektala tarteko.
- **Talde-kidetasuna:** Alberdiren ustez ez da aldagai oso esanguratsua, baina litekeena da ezagutzen ez diren bi pertsonen, nolabaiteko kidetasunen bat partekatze hutsagatik, hitanoz hitz egitea.
- **Aginpidea:** nahiz eta gaur egun aldatzen ari diren aginpideak, oraindik ere ez dago ondo ikusita, adibidez, seme-alabek gurasoei, aitona-amonei eta izeba-osabei hika egitea; ezta langileak nagusiari ere.
- **Sentipenezko elkartasuna:** aiseago egingo dute hika hiztunek elkarrenganako begirunea, estimua eta sinpatia izanda, elkarrekiko ezinikusia eta antipatia izanda baino.

Hala ere, aipatutako aldagai guztiek ez dute garrantzi bera eta gehien baldintzatzen dutenak kidesuna, adina-belaunaldia, generoa eta elkartasun psikologikoa dira Alberdiren iritziz (1993, 438. or.). Nolanahi ere, hitanoaren aldeko aldagai batzuk edo guztiak elkartzeak ez du nahitaez hitanozko harremana bermatzen; eta alderantziz, ustez ezinbestekoak diren baldintzak ageri ez diren solaskideen kasuetan, berriz, gerta liteke hitanoz mintzatzea. Hala azaltzen du Xabier Alberdik, adiskidetasunari gagozkiola (1993, 437. or.):

...batetik ohartarazi behar dugu adiskidetasuna ez dela ezinbesteko baldintza hika hitz egiteko. (...) Bestetik, esan behar da adiskidetasuna egotea ez dela aski hika mintzatzeko. Izan ere, honetan ohiturak ikaragarriko garrantzia du eta sarritan "harremana nola hasi, hala segi" izan ohi da legea, benetako adiskide bati zuka eta hain adiskide edo hain konfiantzazkoa ez denari hika egiten zaiolarik.

Aitzitik, adiskideak izan gabe ere, kidesuna behar-beharrezkoa da hitanoa sor dadin; inongo kidesun arrastorik gabe nekez aritzen baitira hika solaskideak. Dena dela, Alberdiren aipu horretantxe ikusten den moduan, askotan ohitura edozein adiskidetasun eta konfiantza baino indartsuagoa eta erosoagoa da eta, hortaz, aldatzen zailagoa. Azpialdian honetan aipatutako tratamenduen nondik norakoak eta aldagai soziolinguistikoak gogoan izatea komeniko zaigu geroago agertuko diren eztabaida taldeetako gazteen adierazpenekin alderatu eta bat ote datozen ikusteko.

3.2. Hizkuntza ideologiak aztertzeko beharra

Soziolinguistikaren bidetik urrundu gabe, baina hizkuntzaren antropologiara apur bat hurbilduta, hizkuntza ideologiaren gainean mintzatzeko gara. Horretarako, batetik, Kathryn Woolard eta Bambi Schieffelin-ek (1994, 2012) eta Lionel Joly eta Belen Urangak (2010) egindako lan teorikoetan oinarrituko gara. Bestetik, berriz, hitanoaren inguruko uste, pertzepzio eta diskurtsoak hizkuntza praktika errealean ikertzen aritu direnen lanez ere baliatuko gara, hain zuzen ere, Begoña Echeverria (2003), Josu Ozaita (2014), Iñigo Beitia (2017) eta Onintza Legorburu (2018) aztertzaileenez.

Hizkuntza ideologiak ikertzea baliagarria da ez soilik hizkuntza bera aztertzeko, baita hiztun eta gizarteko harremanez gehiago jakiteko ere. Hain zuzen ere, horixe da ikerlan honen abiaburua eta helburua: Azpeitia eta inguruko gazteek hitanoaren inguruan dituzten usteak eta balioak zein diren aztertu eta ideologia horiek hitanoaren erabilera edo erabilera ezean duten eragina neurtzea. Gehienetan uste eta pertzepzio horiek hizkuntzari

berari baino gizarteko harremanei estuago lotzen zaizkienez, hiztunen hizkuntza hautu eta ohiturek asko esaten dute gizarteko sareei eta antolaketari buruz. Izan ere, hizkuntza hautuak ez dira besterik gabe egiten, azpian era bateko edo besteko ideologiak gailentzen dira eta horien arabera hautatzen dute hiztunek kode bat ala beste. Hori dela eta, ikus dezagun gaiari buruzko literaturan nola definitu izan den hizkuntza ideologia.

Ez dago definizio bakarra hizkuntza ideologiak zer diren adierazteko. Woolardek (2012) lehenbizi 'ideologia' hitzaren adiera ugari jaso zituen eta, ondoren, definizio horiek hizkuntzaren esparrura aplikatu. Horretan, Michael Silverstein-ek (in Woolard, 2012, 20. or.) hizkuntza ideologiak azaltzeko eraturako definizioa bere egin zuen: "conjunto de creencias sobre el lenguaje manifestado por los usuarios como una racionalización o justificación de la estructura y usos lingüísticos que perciben". Woolarden iritziz, hizkuntza ideologiak ez dira soilik hizkuntzari buruzkoak; aitzitik, gizarteko elementu ugari islatzen dituzte, besteak beste, identitatea, estetika, moralitatea, generoa eta talde soziala (Woolard, 2012, 19-20. or.). Horrexegatik da horren beharrezko hizkuntza ideologiak ikertzea; hitanoari buruzkoak, kasu honetan.

Joly eta Urangak (2010, 186-187. or.) ere, Woolarden antzera, ezin izan zuten definizio bakarra hautatu; horregatik, Kataluniako hiztegi soziolinguistikoko eta UZEIk argitaratu gabe duen hiztegiko definizio bana jaso zuten. Hemen, bien arteko nahasketa bat eginda eta Woolardek aipaturako xehetasunak kontuan izanda, definizioa osatuko dugu. Hizkuntza ideologiak pertsona edo gizatalde batek hizkuntzaz dituen sinesmen, balio eta ideia multzoak dira, erabilera eta egitura linguistikoa hautemateko modua justifikatu eta arrazionalizatzeko. Ideologia horiek eraikuntza kognitibo eta sozialak dira eta hiztunen praktika linguistiko, diskurtso metalinguistiko, jarrera eta jokabideetan azalera daitezke. Hizkuntza ideologiekin lotuta, hizkeraren etnografia (hots, hitz egiteko moduari atxikitako balioak) kontuan hartzea ere komeni zaigu. Izan ere, hitanoari lotzen zaizkion uste askok hitz egiteko moduarekin dute zerikusia, esaterako, zakartasunak eta gogortasunak.


Kathryn Woolardek, ordea, beste ekarpen garrantzitsu bat ere egin zuen hizkuntzen legitimitatearen eta prestigioaren inguruan. Antropologo estatubatuarrak elkarren antonimo diren anonimotasunaren (*anonymity*) eta benetakotasunaren (*authenticity*) balioak proposatu zituen (Woolard, 2005). Lehenbizikoari dagokionez, hizkuntza anonimoa "guztiena da eta ez da inorena" (Ortega et al., 2016, 163. or.), horregatik,

hizkuntza estandarraren funtzioak betetzeko pare-parekoa izan ohi da. Autoritatea izan arren, ordea, hiztunek sarritan hizkera artifizial eta formalegitzat jotzen dute.

Aldiz, benetako hizkuntzak tokian tokiko herri hizkerak dira, jatorrak eta biziak. Benetakotzat hartzen dira, hain justu ere, leku eta komunitate jakin batekin identifikatzen direlako. “To be considered authentic, a speech variety must be very much «from somewhere» in speakers’ consciousness, and thus its meaning is profoundly local. If such social and territorial roots are not discernable, a linguistic variety lacks value in this system” (Woolard, 2005, 3. or.).

Gal eta Irvine-k (in Echeverria, 2001, 351. or) *recursiveness* deitu zioten aurkako ideologien arteko dikotomiari, eta euskararen kasuan, aipatutako benetakotasunaren eta anonimotasunaren arteko bereizketa dimentsio eta maila ezberdinetan islatzen da. Lehenik, hizkuntzen mailan: euskara solidarioa eta gertukoa da; aldiz, gaztelania (hegoaldeko kasuan) prestigioduna eta urrunekoa. Ondoren, bereizketa aldaera mailan ikus daiteke: euskara estandarra anonimoa eta artifiziala da; herrikoa, berriz, benetakoa eta bizia. Azkenik —eta gure ikergaiari gagozkiola—, tratamendu mailan antzeman daiteke ideologien dikotomia: zuka formala eta anonimoa da; hika, ostera, informala eta benetakoa (Echeverria, 2001, 351-352. or.). Beheko irudian hobeto ikus daiteke dikotomia:

1. irudia: Prestigioaren eta solidaritatearen errekurtsibitatea



Iturria: Echeverria, 2001, 351. or.

Aipatu berri dugun Begoña Echeverriak (2003) Donostiako bigarren hezkuntzako zazpi ikastetxetan egin zuen ikerketa euskal identitatea eraikitzean hezkuntzak zuen eragina aztertzeko. Harreman horretan sakontzeko metodologia ugari erabili zituen, besteak beste: testuliburuaren edukia aztertzea, klase orduetako hizkuntza praktikak behatzea eta ikasle zein gurasoak elkarrizketatzea hizkuntzen gainean zituzten ideologiak azalertzeko. Horren baitan, hitanoari buruzko ideologiak eta usteak azalera ekartzea lortu zuen, zehar lerro moduan izanda ere.

Horren ondoren iritsi dira, besteak beste, Josu Ozaita (2014), Iñigo Beitia (2017) eta Onintza Legorburu (2018). Bakoitzak bere ingurunean baina hirurek heltzen diote hitzunik hitanoari buruz dituzten balio, uste eta diskurtsoei; eta hirurek hartzen dute kontuan, orobat, generoaren ikuspegia. Josu Ozaitak (2014), Tolosaldeko 18 eta 28 urte bitarteko gazteak behatu eta elkarrizketatu zituen hitanoari buruz zituzten pertzepzio, diskurtso eta praktikak nolakoak ziren jakiteko. Iñigo Beitiak (2017) eta Onintza Legorburuk (2018) ere Ozaitaren antzerako bidea jorratu zuten: lehenak Eskoriatzako gazteen artean eta bigarrenak, berriz, Antzuolako 25 eta 90 urte bitarteko hitzunen artean.

Aipatutako lau aztertzaileek, oro har, antzeko ondorioak bildu zituzten hitanoaren inguruko diskurtso, balio eta ideologiei dagokienez. Hitz gutxitan esanda, alde batetik, elkarrizketatu gehienek uste dute hitanoa bortitza, agresiboa, gogorra eta basatia dela; ondorioz, tratamendu hori hobeto dihoakiela gizonezkoei emakumeei baino, “baserritartasuna edota zakartasuna egoki ezkontzen baitira maskulinitate hegemonikoarekin; baina ez dira feminitate hegemoniko batentzat adjektibo egokienak” (Legorburu, 2018, 99. or). Horregatik, hitanoa maskulinitateari lotuta dago zuzenezuzenean, nahi ala ez nahi. “Thus, there is a naturalized relationship between hi and masculinity. Kuipers calls this process *essentialization*. As a «linguistic feature that indexes a social status, group, or category comes to be seen as essentially or naturally linked to it»” (Echeverria, 2003, 407. or.).

Beste alde batetik, oster, gazte askok diote hitanoak hizkera formal eta kolokialerako bide ematen duela eta horri esker gertutasuna, konfiantza eta kidetasuna lortzen dituztela solaskidearekin. Halaber, hitanoz hitz egiteko gaitasuna izateak nolabaiteko “benetakotasun zigilua” (Legorburu, 2018, 100. or.) ematen dio hitzunari, hizkuntzaren ezagutza ohikoa baino altuagoa duen benetako euskaldun jatorrari. Echeverriaren (2003, 406. or.) ustez ere hitanoa erabiltzeak zera esan nahi du: “to be *really, really Basque*. Since such individuals often use *hi* —or are assumed to do so— *hi* indexes *authentic*

Basqueness”. Horrek guztiak arestian aipatutako Kathryn Woolarden *authenticity* ideologiara garamatza, zuzen-zuzenean.

3.3. Hitanoaren transmisioa eta hizkuntza sozializazioa

Halaber, komeni zaigu hitanoaren transmisioari erreparatzea ere, ez zenbatekoa den, ezpada nolakoa. Soziolinguistikan eta hizkuntzaren antropologian orain arte modu bakarreko transmisioa soilik hartu izan da kontuan: goitik beherakoa eta norabide bakarrekoa. Alegia, haurrak jasotzaile pasiboak dira eta belaunetz belauneko jarraipenaren abiaburuak gurasoak edo helduak soilik izan daitezke. Urte luzez halakoa izan da euskararen transmisioa, etxekoa eta goitik beherakoa. Nolanahi ere, azken hamarkadetan joera erabat aldatu da eta, gaur-gaurkoz, gazteen artean gehiago dira etxean euskara jaso ez duten hiztunak euskara etxean jaso dutenak baino (Ortega et al., 2016, 16. or.).

Hori horrela, Paula Kasaresek (2015, 27. or.) zalantzan jartzen du transmisioaren adiera hertsia, ez duelako balio egungo euskal hiztun berriek hizkuntza ikasteko dituzten modu guztiak biltzeko. Horregatik, haren ustetan, transmisioa bertikala zein horizontala izan daiteke, hots, belaunaldien artekoa edota adinkideen artekoa (2012, 45. or.). Beraz, euskararen transmisio eredu tradizionala aldatu egin da eta halatsu gertatu da hitanoarekin ere. Jada ez da gurasoengandik seme-alabenganako transmisio bertikala gailentzen, hori baino indartsuagoa da kaleko eta lagunarteko berdinen arteko transmisioa horizontala. Hala ere, kontuan izan behar da transmisioak ez duela beti erabilera bermatzen.

Kontzeptu horrekin guztiz lotuta, transmisioa (izan goitik beherakoa ala ezker-eskuinekoa) ez da hizkuntza bateko hitz eta egitura multzo zurrinak huts-hutsean igortzea. Aitzitik, kode linguistikoarekin batera, hiztunek kode horien inguruko arau sozialak, ohiturak, usteak eta balioak ere jasotzen dituzte, besteak beste. Horregatik, hizkuntza ideologiak aztertzea bezain garrantzitsua da ideologia horiek nondik datozen jakitea. Argi baitago, hizkuntzei buruzko ideologiak ez direla hiztunengan besterik gabe agertzen, nonbaitetik jasotzen dira. Hain zuzen ere, hizkuntza sozializazioaren bidez egiten da hiztuna horien guztien jabe.

Sozializazioa —handi-handika harturik— haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da. Prozesu hori —berez, elkarri estuki loturik dauden prozesu multzoa— hein handi batean hizkuntzaren erabileraren bidez burutzen da, mintzaira baita kulturaren ezagutza komunikatu eta irudikatzeko, negoziatu eta auzitan paratzeko, birsortu eta eraldatzeko bide sinbolikorik behinena. (Kasares, 2015, 16. or.).

Txikitan hasitako prozesu dinamiko hori jarraitua da, ez da inoiz amaitzen, etengabe ari baikara ikasten. Baina hizkuntza sozializazioa ez da hizkuntza ikastera soilik mugatzen, ikasketa prozesu horrek bere baitan dituen kultura eraginak ere barnebiltzen baititu. Hau da, “haurrek hizkuntza —kodea— ez ezik hizkuntza erabiltzeko gizarte arauak, hizkuntzen arteko hierarkia eta halakoak ere barneratzen dituzte” (Kasares, 2015, 17. or.). Hiztunak inon idatzi gabeko arauz jabetzen dira hizkuntza praktiketan eta gizarte jardueretan hizkuntzak duen erabilerari erreparatuta eta parte hartuta (Kasares, 2012, 21. or.). Horregatik, hizkuntza sozializazioa amaigabea izateaz gain, elkarreragilea da eta ingurunearekin lotura oso estua du.

Hori horrela, hitanoa mintzatzen den eremuko hiztunek (beraiek erabili ala ez) hizkuntza sozializazioaren bidez jasotzen dituzte tratamendu horren inguruko arau sozialak eta gizarteak esleitutako usteak eta balioak. Sozializazioa, transmisioa bezala, ez da familiara eta gurasoen eta seme-alaben harremanera soilik mugatzen, etxetik kanpo ere bai baitaude sozializazio esparruak (Beitia, 2018, 143. or.). Hori dela eta, hiztun baten hizkuntza sozializazioa (ingurukoak, harreman sareak, eskola, hedabideak...) eta transmisioa erabat lotuta daude eta berebiziko eragina dute hiztunaren hizkuntza hautuetan; hitanoa erabili ala ez erabili erabakitzean, esaterako.

3.4. Hitanoa generoaren begiradatik

Hitanoa generoaren ikuspegitik aztertzeko, lehenbizi beharrezkoa da ikuspegi hori zertan datzan xehetzea. XVIII. mendera atzera eginda, Frantziar Iraultzarekin, Arrazionalismoarekin eta Ilustrazioarekin batera iritsi ziren Jean-Jacques Rousseau eta Voltaire filosofoen burutapenak, beste pentsalari batzuen artean. Naturan eta biologian oinarritutako diskurtso politikoa generoaren esparruraino zabaldu zuten eta, motzean, zera azaldu zuten: biologikoki, gizonak eta emakumeak ezberdinak dira; lehenari eremu publikoa dagokio indartsua eta aktiboa delako, eta bigarrenari, berriz, eremu pribatua, ahulak eta geldoak direlako. Emakumeek ez dute ugalketa eta zaintza ez den beste funtziorik, ez dute arrazoimena erabiltzeko gaitasunik, beraz, gizonezkoak baino gutxiago balio dute (Legorburu, 2018, 17-18. or.).

Diskurtso horietatik iritsi ziren gaur egun oraindik bizi-bizirik dauden genero rolak eta bakoitzari atxikitzen zaizkion izaerak eta betebeharrak. Gizarte presioaren eta sozializazio prozesuaren ondorioz, norbanakoari —dituen genitalen arabera— funtzio eta

rol jakin batzuk esleitu eta exijitzen zaizkio. Gainera, mendebaldeko gizartean, pertsonak bi taldetan banatzen dira, emakumeak ala gizonak, ez da hortik kanpo ezer onartzen. Genero binarismoaren sistema deritzo horri, alegia, bi genero soilik existitzen dira, femeninoa eta maskulinoa, eta bakoitzari hurrenez hurren dagokio emakumea ala gizona izatea.

Onintza Legorburuk Rodó de Zárate eta Estivill i Cantany-ren hitzak jasotzen ditu genero bakoitzari atxikitako rolak azaltzeko. Jarraian agertzen diren ezaugarriek zeresan handia izango dute, batetik, hitanoari lotzen zaizkion uste eta balioekin, eta, bestetik, tokaren eta nokaren erabilerarekin edota erabilera ezarekin.

Begirada patriarkal batetik eta gure espazio geografiko eta historikoan, emakumeek eta feminitate hegemonikoaren gerizpean, xamurtasuna, ulertzeko gaitasuna, barkatzekoa, men egitekoa, maitasuna eman eta adieraztekoa, eta zaintzarakoa izango lituzkete ezaugarri nagusizat. Honek emakumeak izaki pasibo gisa marraztuko lituzke, inongo agentziarik gabe. Beti besteen zerbitzura dauden pertsona lez. Maskulinitate hegemonikoak aldiz, pribilegio eta botere batzuk barnebiltzen ditu, emakume eta gizonen arteko berdintasun eza areagotzen dituenak. Honen ezaugarriak lirateke: arrazionaltasuna, lehiakortasuna, biolentzia, gogortasuna... (Legorburu, 2018, 21. or).

Lehen aipatutako hizkeraren etnografiarekin lotuta, Jaime Altuna eta Jone Miren Hernandezen (2018) iritziz, emakume eta gizonen hitz egiteko era ezberdinak dituzte eta gorputzen mugimenduak ere ez dira berdinak. Gehiago mugitzen direnez, mutilek normalean espazio handiagoa okupatzen dute eta jarrera oldarkorra nabari zaie. Aldiz, neskak ez dira horrenbeste mugitzen, ez dute espazio asko hartzen eta lasaitasunez hitz egiten dute. Gorputzen mugimenduek eta hitz egiteko moduek zerikusi handia dute, baina ez besterik gabe, eraikuntza sozialak dira. Gizarteak eta sozializazioak aurreiritzi eta estereotipoen bidez hala irakasten dietelako performatzen dute ezberdin gizon eta emakumeek. Hori egon liteke, beharbada, toka eta nokaren erabilera desorekatuaren atzean.

Horrekin lotuta, 1960ko hamarkadan hasi ziren hizkuntza eta generoaren inguruko bidea urratzen soziolinguistikaren alorrean; beste modu batean esanda, soziolinguistika feministaren bidea irekitzen. 70eko hamarkadan, bi ikuspegi nagusitu ziren hizkuntza eta generoaren harremanaren gainean: dominazioaren ikuspegia eta desberdintasunaren ikuspegia (Legorburu, 2018, 24. or.). Lehenbizikoari dagokionez, Robin Lakoff hizkuntzalari feministaren ustez, emakume eta gizonen arteko desoreka sozialak eragiten du era ezberdinean hitz egitea; Altunak eta Hernandezek (2018) aurreratu bezala, heziketaren bidez modu desberdinean hitz egiten irakasten baitzaie neska eta mutilei. Ezin

argiago ikus daiteke hori, esaterako, familiarreko transmisioan, etxe askotan semeei egiten zaielako hika eta alabei, aldiz, ez.

Ez hori bakarrik, genero bakoitzari argi eta garbi irakasten zaio zein den haien hitz egiteko modua eta zein ez den, eta genero arau horiek errespetatu ezean, ondorioak izan ditzakete. Hala dio Lakoffek (1973, 47. or.) “if a little girl 'talks rough' like a boy, she will normally be ostracized, scolded, or made fun of”. Esan bezala, hitanoa zakartasunaren eta gogortasunarekin lotu izan da historian zehar eta ez dirudi ondo datorrenik halako hizkerarik neska txikien ahotan, bai, ordea, mutilenetan.

Horrez gain, Lakoffek proposatutako ‘kortesia’ aldagaiak erabateko garrantzia izan dezake hitanoa eta generoaren arteko harremana ikertzean.

El lenguaje de la mujer se distingue del lenguaje del hombre en que las mujeres son más corteses, que es precisamente lo que debe ser, porque la mujer es la depositaria de la moralidad y del civismo; y cuando estamos entre mujeres hablamos, como compensación, de manera especialmente cortés, puliendo la brusquedad del bastardo lenguaje masculino: sin jerga, sin blasfemias, sin insinuaciones fuera de tono (Lakoff in Legorburu, 2018, 26. or.).

Hiru kortesia arau daude harremanak eraikitzeke: formaltasuna, begirunea eta adiskidetasuna. Lehenengoaren bidez, solaskideen arteko distantzia markatzen da; bigarrenaren bitartez, distantzia mantentzen da baina hurbiltasun gehiagorekin; eta hirugarrenarekin, berriz, sinpatia adierazten da. Lakoffen iritziz (in Legorburu, 2018, 26. or.), emakumeek formaltasuna adierazi eta distantzia markatzeko joera gehiago dute, beharbada horregatik dirudi hizkera adeitsuagoa: “Such features are probably part of the general fact that women's speech sounds much more 'polite' than men's” (Lakoff, 1973, 56. or.). Gizonezkoek, oster, adiskidetasunera jotzen dute “anaitasunezko harremanak” eraikitzeke. Horrek agian azaldu lezake zergatik duten emakumeek zuka erabiltzeko ohitura handiagoa eta gizonezkoek hika.

Horrez gain, euskara eta emakumeen arteko harremana aztertzean, emakumea elkarren aurkakoak diren bi posiziotatik ikertu izan da: alde batetik, salbatzaile eta hizkuntzaren transmisiorako bide gisa, eta bestetik, traidore eta euskararen galeraren errudun modura (Altuna & Hernandez, 2018). Azken irudi horri dagokionez, literaturan esan izan da emakumeek kanpoko modak eta hizkuntza ohiturak kopiatzeko joera dutela, *ispilu zaletasuna* deritzona (Azurmendi, in Legorburu, 2018, 32. or.). Horrek esan nahi du, elebitasun egoeretan, lehen hizkuntza alboratu eta bigarren hizkuntza hartzeko joera handiagoa dutela emakumeek, prestigioaren bila. Euskararen kasura etorruta, uste horren

arabera, emakumeek euskara baztertu eta gaztelaniara jotzeko ohitura izan zuten Frankismo garaian, euskara zeharo zapalduta zegoenean, hain zuzen ere. Horregatik, emakumeei askotan hizkuntzaren galera leporatu izan zaie (Altuna & Hernandez, 2018).

Joxe Azurmendiren iritziz, (in Legorburu, 2018, 32. or.) ispilu zaletasuna emakumearen berezko izaera ahularen ondorioa da, ez dutelako behar bezain besteko nortasunik. Sarri esan da “emakumeek gizonezkoek baino errazago islatzen dituztela gizartean indarrean eta prestigioa duten baloreak” (Legorburu, 2018, 37. or.). Jone Miren Hernandez antropologoak (2004) kritikatu egiten du emakumeek hizkuntza modak kopiaitzeko eta imitatzeke duten ohitura gizartearen ispilutzat erabili izana. Horren aurrean, Jaime Altunak eta biek (2017) prestigioaren teoria proposatu dute emakumeek kanpoko modak erreproduzitzeko duten joera justifikatzeko. Alegia, ispilu moduan jokatzearena ez da emakumeen berezko ahultasunaren emaitza, ezpada botererik ez izatearena.

Arreta gutxi jarri dugu dinamika honetan azaleratzen den beste fenomeno batean: emakumeak dira gehienetan mugitu, aldatu, mudatzera prest agertzen direnak. Hau, gure ustez, detaile inportantea litzateke. Izan ere egoera horretan topatu dezakegu “prestigioaren” teoria hauek funtsean ezkututzen dutena: Boterearen banaketa desorekatua, hau da – Penelope Eckerten hitzetan-, botere eza. (Altuna & Hernandez, 2017, 135. or.)

Horrek ere arrazoitu dezake emakumeek zukarako joera izatea. Arestian esan bezala, zuka tratamendu anonimoagoa denez, hika baino prestigio handiagoa du eta emakumeek botere faltaren aurrean, prestigiozko aldaeren bila jotzen dute.

4. Metodologia

Zehaztutako helburuak lortu eta hipotesiak baieztatu ala gezurtatzeko, metodologia kualitatiboa eta etnografikoa erabili dira lan honetan. Izan ere, hiztunen uste, balio eta diskurtsoetan barneratzeko eta hitanoaren gainean dituzten ideologietan sakontzeko zenbakiak ez dira oso aproposak. Aitzitik, izaera kualitatiboa duten metodologiek soilik ahalbidetzen dute hiztunen uste eta balioen konplexutasuna ulertzea: “Hizkuntza-jarrerak elementu konplexuak dira; balio, iritzi, ideologia eta sentimenduetan oinarritzen dira, baina ekintza-osagai bat ere badute, hain zuzen, egunerokoan ikusgai diren hizkuntza-praktikak. Aztergaiaren izaera konplexu honek metodologia indartsua behar du, jarrerok sakontasunean argitara emateko gai izango dena” (Ortega et al., 2016, 22. or.). Horregatik hautatu da azterketa kualitatiboa eta etnografikoa, horixe delako ikergaiaren konplexutasuna ulertzeko neurri-neurriko metodologia.

4.1. Datu bilketa

Datuak metodologia kualitatiboan maiz erabiltzen diren bi teknikaren bidez bildu dira: behaketa parte hartzaileen eta eztabaida taldeen bidez, hain zuzen ere. Izan ere, Woolarden hitzetan (2012, 28. or), ideologiak modu batean baino gehiagotan islatzen dira hiztunen jardunean, “bien dentro de la propia práctica lingüística, bien en conversaciones explícitas sobre la lengua (es decir, en un discurso metalingüístico o metapragmático), o bien en la regimentación del uso de la lengua a través de una metapragmática más implícita”. Horregatik, hitanoari buruzko hizkuntza ideologiak bi eratarata jaso nahi izan dira, hizkuntzaren erabilera behatuta eta hitanoari buruz beren-beregi hitz eginda.

4.1.1. Behaketa parte hartzailea

Behaketa etnografikoa antropologian eta etnografian sarri erabiltzen den teknika da eta “ikerketa objektuarengana modu zuzen eta gertuko batean hurreratzea ahalbidetzen du (...) eguneroko praktikak, testuinguru *egiazko* batean eta *in situ*” aztertzeko (Legorburu, 2018, 10. or.). Behaketari esker hiztunen eguneroko hizkuntza praktikez, jokaerez eta joerez ohar gaitezke, modu naturalean eta behartu gabe. Hala ere, ikerketa honetarako egindako behaketak ez dira egin etnografiak eskatzen duen zehaztasunez eta deskribapen xehez. Behaketa etnografikoa baino, eremu eta egoera jakinetan oro har dauden joeren behaketa informala egin da, ez hain modu zehatzean eta deskribatzailean.

Ikerlan honetan behaketa egitea lagungarria suertatuko zitzaidala pentsatu nuen nire inguruan hitanoa nork, noiz, non eta norekin erabiltzen zuen konturatzeko. Hori dela eta, behaketa parte hartzailea egitea erabaki nuen neu ere hiztun komunitateko parte naizelako eta behatu ditudan hiztun gehienak oso gertukoak ditudalako. Behatzaileak elkarrizketetan parte hartzea, sarritan, oztopoa izan daiteke datu onak eta zintzoak biltzeko, behatuek hizkuntza ohiturak eta jarrerak aldatu eta moldatu ditzaketelako jakinaren gainean badaude behatuak izaten ari direla. William Labov-ek (1972) *Observer's Paradox* deitu zion fenomeno horri eta funtsean hauxe da: behatzailea edo ikertzailea bertan egoteak behatzen ari den gertakaria nahi gabe aldatzea. Oztopoak oztopo, ordea, ez dago zuzeneko informazioa lortzeko beste modurik, izan ere, inkesta eta galde-sorta bidez partaideek aitortutako erantzunak egokitu ditzakete komeni zaielako edo kontzientzia linguistiko nahikorik ez dutelako. Azken finean, “the aim of linguistic research in the community must be to find out how people talk when they are not being systematically observed; yet we can only obtain this data by systematic observation” (Labov, 1972, 209. or.).

Nire kasuan, *observer's paradox* fenomeno ez da eragozpena izan komunitateko kidea naizelako, eta elkarrizketetan naturaltasunez hartu dudanez parte uneoro, behatuak ez dira konturatu ere egin behatzen ari nintzenik. Hala ere, elkarrizketetan parte hartuta zaila izan zait behaketa etnografiko batek eskatzen duen datu bilketa xehe eta garatua egitea, ezin nituelako oharrak unean bertan hartu. Nahiz eta aurretik ere banekien gutxi gorabehera nolakoa zen nire inguruko hitanoaren erabilera, lau behaketa sistematiko egin ditut espreski ikerketarako.

1. taula: Behaketa parte hartzaileetako datuak

	NON	NOIZ	NOR
1	Etxean	Bi igande bazkalostetan, mahaiaren inguruan tertulian	Ama, aita, ahizpa, behatzailea
2	Azpeitiko kalean	Larunbat iluntzean, tabernaz taberna poteoan	Kuadrillako 6-7 lagun, guztiak mutilak
	Azpeitiko elkarte batean	Ostiral gauean, lagunartean afaltzen	Kuadrillako 12 lagun, guztiak mutilak
3	Azpeitiko kalean	Ostegun arratsaldean, tabernaz taberna poteoan	Kuadrillako 8 lagun, mutilak eta neskak nahasian

	Azpeitiko kalean	Ostiral iluntzean, tabernaz taberna poteoan	Kuadrillako 14 lagun, mutilak eta neskek nahasian
4	Azpeitiko Emakumeen Txokoan	Martxoaren 30ean, larunbat goiz eta arratsaldean. <i>Hitanoa emakumeak ahalduzko tresna jardunaldietan.</i>	Hainbat herritako emakumeak: goizean 15, arratsaldean 10

Iturria: Norberak egina

Behaketa parte hartzaileetan irizpide hauetan jarri da arreta, oro har: behatutako hiztunek zein tratamendu erabiltzen dituzten (hitanoa, zuka ala biak) eta tratamendu bakoitza norekin erabiltzen duten eta zer testuingurutan (lekua, garaia eta giroa). Kontuan izan da, halaber, hitanoaren zein forma erabiltzen den (toka ala noka) eta aldatzen ote den hartzailearen generoaren arabera. Azkenik, erreparatu da normalean hika hitz egiten ez duten hiztunek hitanozko esaldi solteak erabiltzen al dituzten, eta hala bada, noiz eta zer helbururekin esaten dituzten. Nolanahi ere, ez da behatu hizkuntza zuzena den ala ez (hots, alokutiboko aditzak zuzen erabiltzen dituzten), zuzentasuna ez delako ikerketa honen helburua.

4.1.2. Eztabaida taldeak

Eztabaida taldeei dagokienez, oso teknika baliagarria eta aberatsa izan zitekeela iruditu zitzaidan Azpeitia eta inguruko gazteek hitanoaren gainean dituzten ideologiak atzemateko. Izan ere, potentzialtasun handia eskaintzen dute, “elkarlanean jarduteko aukera ematen baitute eta horrela datu aberasgarriak eta kalitatezkoak batzea ahalbidetzen baitute, partaideen arteko iritzi aniztasuna azalarazten dutelako eta elkarrekin ideia berriak eraikitzeke aukera ematen dutelako” (Ortega et al., 2016, 22. or.). Hori horrela, bost-sei lagun inguruko hiru eztabaida talde egin dira:

1. Azpeitiko bost mutil, 21 urtekoak. Guztiak tokatzaileak, baina ez nokatzaileak.
2. Urrestillako (Azpeitia ondoko herri txiki bateko) bost neska, 17-28 urte bitartekoak. Batzuk tokatzaileak eta nokatzaileak, besteak ez bata ez beste.
3. Azpeitiko bost neska-mutil, 21-22 urtekoak. Mutilak tokatzaileak eta nokatzaileak, neska gehienak ez bata ez beste.

Orokorrean eztabaida talde guztien helburua bera izan da, hots, hitanoaren inguruan Azpeitiko eta inguruko gazteek dituzten ideologiak azalera ateratzea. Hala ere, eztabaida talde bakoitzak, partaideen profilaren arabera, berariazko helburua ere izan du; beste modu batean esanda, eztabaida talde bakoitzean auzi zehatz bati buruzko informazioa atera nahi izan da edo gai jakin bat beren-beregi landu. Lehenbiziko taldean, esaterako, espreski galdetu zaie partaideei ea zein irizpide jarraitzen duten norbaitekin hitanoz egin ala ez erabakitzeke. Bigarren taldean, berriz, jakin nahi izan da, hain urte gutxiren buruan, zergatik egiten ote duten batzuk noka horren natural eta besteek ia hitz bat bera ere ez. Azkenengoa da generoari dagokionez talde misto bakarra; beraz, mutilek hitanoa erabiltzeko eta neskek ez erabiltzeko dituzten arrazoen arteko eztabaida bultzatu nahi izan da.

Eztabaida taldeetako partaideek hasi aurretik ez zekiten hizketagai nagusia hitanoa zela, aurrez ideiak pentsa ez zitzaten eta benetan uste zutena bat-batean esan zezaten. Izan ere, gaia aurretik jakinez gero, gerta liteke partaideek beraien diskurtsoa aldatu eta egokitzea, eta horixe da, hain zuzen ere, saihestu nahi dena. Eztabaida taldeetako xedea da partaideen sakon-sakoneko ideologiak kanporatzea, iritziak behartu gabe. Hori horrela, moderatzaileak galdera orokor baten bidez abiatu ditu eztabaidak, eta gero zeharka, hitanoaren gaia atera (Ortega et al., 2016, 22. or.).

Hizpide orokorra aurkeztu ondoren, hiru taldeetan moderatzailea ahalik eta gutxien parte hartzen saiatu da, partaideek atera zitzaten gaiak eta bidera zezaten eztabaida. Arestian aipatutako solasgai horiek, behintzat, bai ala bai eztabaidatu nahi ziren eta gehienez parte hartzaileek beraiek atera dituzte mahaigainera, beste horrenbeste gairekin batera. Nahiz eta moderatzailea esku-hartze eta hitz-hartze gutxi egiten ahalegindu, hizketagairen bat aipatu gabe edo kolokan geratu bada, hura arduratu da gaia ateratzeaz. Hori dela eta, moderatzailearen input-a neurtua izan da, interesgarriagoa zelako partaideek euren kezkak eta irudipenak kontatu zituzten. Izan ere, moderatzaileak galdera jakinen bidez elkarrizketa gidatu edo erdi-gidatua eginez gero, aipatu gabe gera daitezke parte hartzaileen sentipenak eta bizipenak (Ortega et al., 2016, 22. or.).

4.1.3. Eztabaida taldeetako partaideak

Beheko taulan eztabaida taldeetan parte hartu duten kideen datuak jasotzen dira: zein eztabaida taldeetakoak diren, zer ezizenen bidez agertuko diren aipuak lanean zehar, nongoak diren, zenbat urte dituzten, emakumeak ala gizonak diren, eta hikarekin nolako

harremana duten. Azken zutabea betetzerakoan ez zaio ezagutzari erreparatu, ohiko erabilerari baizik eta, horren arabera, lau marka ezarri dira:

- *Toka*: Parte hartzaileak toka erabiltzen du egunerokotasunean eta elkarrizketa osoak izaten ditu toka, baina nokarik ez du hitz egiten.
- *Toka-noka*: Hiztunak hitanozko bi moldeak erabiltzen ditu egunerokotasunean eta elkarrizketa osoetan.
- *Toka-noka (-)*: Hiztunak hitanozko bi moldeak erabiltzen ditu egunerokotasunean eta elkarrizketa osoetan, baina noka emakume gutxi batzuekin soilik egiten du.
- *Hikarik ez*: Ez du ezinbestean esan nahi parte hartzaileek hitanoa ez dakitenik eta erabiltzen ez dutenik, izan ere, esamolde solte batzuk guztiek esaten dituzte. Gainera, oso noizean behin norbaitekin hika erabiltzen dute batzuek (gehienean toka). Beraz, markak horrek, funtsean, adierazi nahi du hiztun horiek ez dutela egunerokotasunean hika erabiltzen eta ez dituztela elkarrizketa osoak hika egiten.

2. taula: Eztabaida taldeetako partaideen datuak

Eztabaida taldea	Kodea ³	Herria	Adina	Generoa	Hikaren erabilera
1	Ek-1	Azpeitia	21 urte	Mutila	Toka
1	La-1	Azpeitia	21 urte	Mutila	Toka
1	Un-1	Azpeitia	21 urte	Mutila	Toka
1	Jo-1	Azpeitia	21 urte	Mutila	Toka
1	Jn-1	Urrestilla	21 urte	Mutila	Toka
2	Ae-2	Urrestilla	27 urte	Neska	Toka-noka
2	Mr-2	Urrestilla	28 urte	Neska	Toka-noka
2	Ix-2	Urrestilla	24 urte	Neska	Toka-noka

³ Lanean zehar agertzen diren izenak ez dira benetakoak, horren ordez kodeak jartzea erabaki da, pertsona horien anonimatua eta pribatutasuna babestearren.

2	An-2	Urrestilla	24 urte	Neska	Hikarik ez
2	Ki-2	Urrestilla	17 urte	Neska	Hikarik ez
3	Xa-3	Azpeitia	21 urte	Mutila	Toka-noka (-)
3	Mt-3	Azpeitia	21 urte	Neska	Hikarik ez
3	Ca-3	Azpeitia	21 urte	Neska	Hikarik ez
3	Mn-3	Azpeitia	21 urte	Neska	Hikarik ez
3	Su-3	Azpeitia	21 urte	Mutila	Toka-noka (-)

Iturria: Norberak egina

4.2. Analisisirako metodologia

Behin datuak bilduta, behaketa parte hartzaileetako oharrak eta pertzepzioak jaso eta eztabaida taldeetako elkarrizketak transkribatu dira ondoren aztertzeko. Transkripzioak, ordea, ez dira azterketa dialektologiko baterako modukoak, ez dituzte arau gramatikalak eta ortografikoak errespetatzen, aitzitik, Azpeitiko gazteen ahozko hizkerara hurbiltzeko saiakera egin da, ahal den neurrian ulermena oztopatu gabe. Datuen analisia egiteko Eduki Azterketa (*Content Analysis*) erabili da eta metodologia hori “partaideen ideiak hierarkikoki antolatutako gaietan sailkatzean datza” (Ortega et al., 2016, 28. or.). Beste modu batean esanda, edukiak eta eztabaida taldeetako aipuak goitik behera kodifikatu dira kategoriatan. Eduki Azterketa modu deduktiboan ala induktiboan egin daiteke, nondik abiatzen garen (Mayring, 2000, 3. or.). Lan honetan, oro har, modu deduktiboan egin da Eduki Azterketa eta hauek dira emandako urratsak:

The main idea of the procedure is, to formulate a criterion of definition, derived from theoretical background and research question, which determines the aspects of the textual material taken into account. Following this criterion the material is worked through and categories are tentative and step by step deduced. (Mayring, 2000, 4. or.).

Beraz, aztertu nahi diren gaiak aurretik zehaztu dira hipotesi, aurreikuspen eta marko teorikoan oinarrituta eta behin-behineko kategoria zuhaitza eraiki da (ikus I. eranskina). Ondoren, eztabaida taldeetako datuak aurrez ezarritako kategoria horietan sailkatu dira. Kategoria nagusiak hauek dira:

- **Azpeitian:** Herrian hitanoa zenbat erabiltzen den, osasuntsu ote dagoen ala ez.
- **Transmisioa:** Hitanoa non jaso eta ikasi duten partaideek, etxean ala kalean.
- **Mudantza:** Noiz hasi ziren hitanoa erabiltzen, noiz eman zuten urratsa.
- **Erabilera:** Batetik, hitanoa norekin, noiz, non eta nola erabiltzeko irizpideak zein diren eta, bestetik, erabiltzeko ala ez erabiltzeko arrazoiak zein diren.
- **Balioak eta ideologiak:** Hitanoari atxikitzen zaizkion balioak eta hitzuneak dituzten sinesmenak (esaterako, baserritartasuna, benetakotasuna, konfiantza, euskalduntasuna...).
- **Araua:** Hitanoaren arau sozialak (adinari dagozkionak) eta gramatikalak (hizkuntzari lotutakoak) zein diren eta errespetatzen ote dituzten.
- **Berreskuratzea:** Hitanoa non landu eta nola sustatu daitekeen (eskolan, adibidez). Horrez gain, ea emakumeek ahalduzko tresna izan ote daitekeen.

Adar eta adaxkaz jositako kategoria zuhaitz horrek, ordea, ez du esan nahi moderatzaileak agertzen diren kategoria guztiak aipatu dituenik elkarrizketetan, bestela aurretik finkatutako kategorietara soilik mugatzeko arriskua baitzegoen. Besterik gabe, eztabaida taldeetarako badaezpadako gidoia prestatzean, parte hartzaileak gai horien inguruan mintzatuko zirela aurreikusi zuen. Gainera, arestian esan bezala, eztabaida taldeetan, oro har, partaideek eurek gidatu dituzte elkarrizketak, beraz, moderatzaileak ez du hitz-hartze askorik egin beharrik izan. Horri esker, aurreikusi gabeko gai, auzi eta ideia berriak mahaigaineratu dituzte partaideek, ondorioz, modu induktiboan kategoria berriak gehitu eta eraiki dira, baita aurrez zeudenak osatu ere. Beste modu batean esanda, aurrez eraikitako kategoria zuhaitza moldatu eta egokitu egin da, adar eta adaxka batzuk kendu, besteak gehitu eta batzuk aldatu egin baitira.

5. Ikerketaren kokalekua: Azpeitia

Azpeitia Gipuzkoako erdialdean dago, Urola Kosta eskualdean, hain justu ere, eta lurralde historikoko udalerrri handienetakoa da. Urola ibaiaren haranean dago, Izarraitz mendilerroaren magalean, eta Azkoitia, Deba, Zestoa, Errezil, Bidania, Beasain, Ezkio-Itxaso eta Zumarragarekin egiten du muga (Azpeitiko Udala, d.g.). 2018an, 14.916 herritar bizi ziren Azpeitian Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTATEk) egindako Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistiken arabera. Biztanleen gehiengoa herrigunean bertan bizi da eta gainerakoak, berriz, Azpeitiko zazpi auzuneetan eta biziguneetan sakabanatuta. Hirigunetik aparteko bizigune jendetsuenetakoa Urrestilla⁴ da, Azpeititik lauzpabost kilometrora dago eta 334 herritar bizi dira erdigunean eta inguruko baserrietan. Urrestillak bere izaera eta hitz egiteko modua dauzka, azpeitiarrendandik bereziak (Azpeitiko Udala, d.g.).

2. irudia: Urola-Kostako mapa politikoa



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza

XVI. eta XVII. mendeetan burdinolen urrezko aroa iritsi zen Azpeitira eta, gaur egun, oraindik igartzen da garai bateko tradizio hura herriko ekonomian, izan ere, orduko burdinolek eman zien indarra eta bultzada metalgintza industriari. Metalgintza eta

⁴ Azpeititik kanpoko bizigune horixe bakarrik aipatzen da beren-beregi, hangoak baitira bigarren eztabaida taldeko partaide guztiak eta lehen eztabaida taldeko parte hartzaile bat.

siderurgia izan dira urte luzez Azpeitiako industriaren oinarriak, egurgintzarekin batera. Azken urteetan, ordea, metalgintza apaldu egin da eta zerbitzuek hartu dute abiada (Azpeitiko Udala, d.g.). Horrez gain, Azpeitiko azalera nahiko aldapatsua denez eta mendiz inguratuta dagoenez, baserri ugari dago bazterretan. Duela gutxi arte nekazaritza eta abeltzaintza izan dira baserri horien bizibideak, orain, baina, gainbeheran daude baserri mundua eta hango jarduerak.

5.1. Azpeitiko errealitate soziolinguistikoa

Azpeitian erdialdeko euskalkia hitz egiten da eta horren baitan, sartaldeko azpieuskalkia, Koldo Zuazok (2008) proposatutako euskalkien maparen arabera. Dialektoa gorabehera, “Azpeitia 10.000 biztanletik gorako Euskal Herriko herririk euskaldunena da” (Irureta, 2019). Argi dago proportzioan badaudela herri txiki euskaldunagoak —bereziki, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa iparraldean—, baina herriburuetan ez du parekorik gaur-gaurkoz. Hori dela eta, sarritan, euskararen arnasmunetzat eta normalizazioan eredutzat hartu izan da Azpeitia.


Arnasgune kontzeptua Mikel Zalbide euskaltzainak ekarri zuen euskarara, Joshua Fishman hizkuntzalariak (1991) sortutako *physical breathing space* terminoaren baliokide gisa. Fishmanen hitzetan (1991, 58. or.), *physical breathing space* hauxe da: “demographically concentrated space where Xish⁵ can be on its own turf, predominant and unharassed”. Definizio hori bera euskarara ekarrita, arnasmunea “finean, euskara erabat nagusi den eremu demografikoa da, beste hizkuntzen eraso edo mehatxurik gabekoa” (Goikoetxea, 2016). Hori horrela, Azpeitia euskararen arnasmunea dela baieztatu du Mikel Zalbidek (2017, 23. or.), “hiztun-kopuruz, zabaltasun soziofuntzionalez eta eskualde-ingurumenez Azpeitia da nagusi”. Horrek esan nahi du, beraz, egunerokotasunean eta jardun arruntean gehienak euskaraz aritzen direla han, hori baita inork behartu gabe ezarri den gizarte araua. Funtsean, arnasmuneetako herritar gehienak “euskaraz bizi dira” (Zalbide, 2017, 6. or.).

Hala ere, baieztapen horrek oinarri sendoa izan dezan, datu objektiboei erreparatzea komeni da. Euskarazko hizkuntza gaitasunari begiratuta, EUSTATEk 2016an egindako

⁵ *Xish*: gure kasuan, euskara.

Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, Azpeitiko herritarren % 83,69 euskalduna zen, % 6,77 ia-euskalduna eta % 9,54a erdalduna.

1. grafikoa: Euskarazko hizkuntza gaitasuna. Azpeitia, 2016 (%)




Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2016

Dena den, aurreko datuek euskararen gaitasunari eta ezagutzari egiten diete erreferentzia, baina ez digute erabileraz ezer handirik esaten. Euskara zenbat erabiltzen den jakiteko, Soziolinguistika Klusterrak (2016) duela hiru urte egin zuen zazpigarren aldiz hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, euskal herrietako kaleetan dauden hizkuntzen presentzia kuantifikatzeko asmoz. Ikerketa horretan behaketa zuzena erabiltzen da kaleetako euskararen erabilera neurtzeko; hala, kalean entzundako elkarrizketetan hitz egiten diren hizkuntzak erregistratzen dituzte behatzaileek (Soziolinguistika Klusterra, 2016, 4. or.).

Azpeitian, guztira, 1.103 elkarrizketa eta 3.282 solaskide entzun eta behatu zituzten 2016ko apirilean. Jasotako datuen arabera, Azpeitiko kaleetan hamar elkarrizketetatik zortzi euskaraz izan ziren, hain zuzen ere, elkarrizketa guztien % 81,8. Gainerako elkarrizketei dagokienez, % 14 gaztelaniaz izan ziren eta % 4,2a beste hizkuntza batzuetan (Ibidem, 13. or.). Hortaz, argi dago euskararen gaitasunak eta erabilerak ez dutela bat egiten Azpeitian, baina gurea bezalako hizkuntza komunitate elebidunean ia ezinezkoa da hizkuntzaren ezagutza eta erabilera parekoak izatea. Hori kontuan izanda, aldea ez da horrenbestekoa, bi puntu eskasekoa baino ez (gaitasuna % 83, 69koa eta erabilera % 81, 8koa) (Ibidem, 18. or.).

2. grafikoa: Hizkuntzen kale-erabilera. Azpeitia, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Azpeitiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Nahiz eta Azpeitiko kaleetan Euskal Herrian (% 13,3) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (% 16,1) baino euskara arras gehiago entzun (Ibidem, 22. or.), Azpeitian ere apur bat behera egin du erabilerak 2009az geroztik. Izan ere, 2009ko hizkuntzen erabileraren kale-neurketan elkarriketen % 86,1 jaso ziren euskaraz eta 2016an, berriz, % 81,8 (Ibidem, 19. or.).

Erabileran, ordea, gorabeherak daude generoaren eta adinaren aldagaiei erreparatuz gero. Generoari dagokionez, tarte handirik ez dagoen arren, oro har, gizonezkoek euskara gehiago erabiltzen dute emakumeek baino (% 83,2 eta % 80,9 hurrenez hurren) (Ibidem, 26. or.). Adinari gagozkiola, 2-14 urte bitarteko haurrek hitz egiten dute euskara gehien Azpeitian (% 89,6) eta 25-64 urte bitarteko helduek gutxien (% 76,1). Gazteek eta adinekoek, aldiz, antzera samar erabiltzen dute (% 83,3 eta % 83,1 hurrenez hurren) (Ibidem, 28. or.). Azken aldagai horren bilakaerari so, adinekoetan izan ezik, adin-talde guztietan egin du behera euskararen erabilerak 2009tik 2016ra, batik bat haurretan eta gazteetan. Haurretan euskararen erabilera % 95 izatetik % 89,8 izatera igaro da zazpi urtean eta gazteetan % 90,8tik % 83,3ra (Ibidem, 30. or.).

5.2. Hitanoa zenbakitan

Arestian eman ditugun datuak euskara hutsari buruzkoak izan dira, baina lanaren ardatza gogora ekarrita, Azpeitian hitanoa nork, norekin, non eta noiz erabiltzen duen jakitea da helburua, beste xede batzuen artean. Helburuak zehaztean eta metodologia azaltzean aipatu moduan, ordea, kasu honetan ez zaizkigu zenbakiak horrenbeste axola, hiztunen ideologia, balio, uste eta arrazoietan murgildu nahi baitugu eta ez datu numerikoetan. Nolanahi ere, testuingurua eta lana bera ulertzeko ezinbestekoa da Azpeitiko hitanoaren errealitate soziolinguistikoaren berri izatea, alegia, Azpeitian hitanoa zenbat erabiltzen den azaltzea, zenbakitan. Azken finean, datu objektiboek Azpeitian hitanoak bizi duen egoeraren nolabaiteko argazkia eskainiko digute eta irudi mental hori funtsezkoa izango da lanari sendotasuna eta zentzua emateko.

Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabilera neurtzeko metodologia sortu zuen 1989an eta geroztik teknikak fintzen eta finkatzen dihardute. Alabaina, orain arte ez da egon modurik (saiakerarik ere ez beharbada) hitanoaren erabilera hain era sistematikoan kuantifikatzeko. Orain arte diogu, izan ere, 2016an Soziolinguistika Klusterrak euskararen kaleko erabilera neurtu ez ezik, hitanoaren presentzia ere kuantifikatu baitzuen lehenbizikoz Azpeitian eta Usurbilen (Soziolinguistika Klusterra, 2016, 3. or.). Hizkuntzen kale erabilera neurtzeko metodologiari behar ziren egokitzapenak eta moldaketak eginda, behatzaileek kalean entzundako hitanozko elkarrizketak hiru taldetan banatu zituzten: noka, toka eta hika neutroa (ezin bereizi noka ala toka den). Dena dela, lehenbiziko aldia izanik, proiektu pilotu gisa egin zuten neurketa eta aurrerantzean metodologia hobetu eta moldatzen saiatuko dira gabeziei irtenbidea emateko (Ibidem, 8. or.).

2016ko neurketa horrez gain, ordea, une honetantxe hitanoaren gainean beste ikerketa bat martxan da Azpeitian. Garbiñe Bereziartua eta Beñat Muguruza (2018) EHUko irakasle eta ikertzaileek pasa den urtean ekin zioten Azpeitiko hitanoaren inguruko ikerketa soziolinguistikoaren lehen faseari, hots, diagnostikoari. Azpeitiko hitanoaren erabilera neurtzeko, baina, ez dute Soziolinguistika Klusterrak erabilitako metodologia bera erabili, behaketa zuzenak egin beharrean, galde-sorta bidezko erabilera aitortuak jaso baitituzte. Galde-sorta erantzun dute 18 urtetik gorako 850 helduk, 12-18 urte bitarteko 397 gaztek (DBH-2, DBH-4, 1. Batxilergo eta 2. Batxilergoko ikasleek) eta 12 urtetik beherako 333 gaztetxok (LH4- eta LH-6ko ikasleek) (Bereziartua & Muguruza, 2018b,


68-69. or). Orain ikerketaren hurrengo fasean dabilta buru-belarri, baina diagnostikoan jasotako erantzunak aztertu ondoren, orain arteko emaitza nagusiak plazaratu dituzte.

Hori dela eta, gure lanaren oinarri objektiboa osatzeko, aipatu bi ikerketetako datu enpirikoak azalduko ditugu segidan. Bietan metodologia ezberdinak erabili dira eta, horri esker, behaketa zuzenetan (5.2.1) eta erantzun aitortuetan (5.2.2tik 5.2.6rako azpiatalak) jasotako emaitzak kontrastatzeko aukera dugu; hortaz, zalantzarik gabe, elkar osatzen dute bi datu-bilketek. Gainera, ez ditzagun ahaztu aurreko azpiatalean emandako euskararen erabilerari buruzko datuak ere, hitanoa euskarazko tratamendua baita eta, beraz, hitanoaren erabilera euskararen erabilerak mugatuko baitu.

5.2.1. Kaleko erabilera

Arestian esan bezala, 2016an Azpeitiko kaleetan entzundako elkarrizketen % 81,8 euskaraz izan ziren. Euskarazko elkarrizketa horietatik % 18,1 izan ziren hika, hau da, euskarazko hamar elkarrizketetatik ia bi. Gainerako % 81,9a zuka edo aditzik gabeko elkarrizketak izan ziren (erreparatu beheko ezkerreko grafikoari). Hitanozko elkarrizketen barnean, halere, hiru multzo daude (erreparatu beheko eskuineko grafikoari): entzundako solaskide gehienak toka ari ziren (% 45,1); beste askok hikaren forma neutroa zerabilten (% 37,4); eta noka izan zen gutxien jasotako forma (% 17,5) (Soziolinguistika Klusterra, 2016, 36-37. or.).

3. grafikoa: Hitanoaren kale-erabilera orokorra. Azpeitia, 2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Azpeitiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Argi dago, hortaz, kaleko elkarrizketa gehien-gehienak zuka edo aditzik gabe izaten direla eta hitanozko elkarrizketa apurretatik noka dela gutxien hitz egiten dena. Horri lotuta dator, nahitaez, generoaren aldagaia. Berez, solaskidearen arabera aldatzen denez hitanozko forma, toka gehiago erabiltzen dela esateak hartzaileari buruzko informazioa soilik ematen digu. Alegia, ez du esan nahi ezinbestean gizonezkoek gehiago egiten dutela hika, gizonezkoek gehiago egiten zaiela baizik. Alabaina, emaitzek horixe erakutsi dute, hain zuzen ere, gizonezkoen artean hika gehiago erabiltzen dela (% 28,2) emakumeen artean baino (% 10,6) (Ibidem, 37-38. or.).

Ez hori bakarrik, genero bakoitzeko hiztunek, gainera, entzutea dagokien hitanozko forma erabiltzen dute maizenik, hau da, gizonezkoak toka aritzen dira gehienean (% 61,8) eta emakumeak, berriz, noka (% 48,8). Aipagarria da, ordea, beste generoko mintzakideei jasotzea dagokien formarekin gertatzen dena, izan ere, emakumeek hitanozko elkarrizketen % 12,2an egiten dute toka; aldiz, gizonek noka % 1,6an bakarrik hitz egiten dute (Ibidem, 38. or.)

4. grafikoa: Hitanoaren kale-erabilera generoaren arabera. Azpeitia, 2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Azpeitiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Adinaren aldagaiari begiratu gero, 64 urtetik gorako adinekoek erabiltzen dute hitanoa gehien (% 29,8). Alabaina, adina behera doan heinean, hitanoaren presentzia ere beherantz doa belaunaldiz belaunaldi. Hala ere, gazteek helduek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute hika (% 25 eta % 23,5 hurrenez hurren). Azkenik, nahiz eta arestian esan

moduan haurrek jarduten duten euskaraz gehien, aldi berean, 2-14 urteko umeak dira hitanoa gutxien darabiltenak (% 5,5) (Ibidem, 39. or.).

5. grafikoa: Hitanoaren erabilera adin-taldeka. Azpeitia, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Azpeitiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Erabilera horren baitan, ordea, ezberdintasunak daude hitanoaren forma kontuan hartuz gero. Adinekoek toka hitz egiten dute gehien (% 12,6), noka gero (% 10,7) eta hika neutroa gutxien (% 6,6). Helduak ere toka aritzen diren maizenean (% 10,3), hika neutroan ondoren (% 9,9) eta, azkenik, nokan (% 3,3). Gazteen kasuan joera berbera da, baina muturretako aldeak are nabarmenagoak dira, izan ere, gazteek hitanozko elkarriketen % 15,1ean darabilte toka, % 8,1ean hika neutroa eta % 1,7an soilik noka. Amaitzeko, haurrek erabiltzen dute gutxien hika, baina % 5,5 horren barruan ia erdia tokak hartzen du (% 2,5), beste erdia neutroak (% 2,6) eta gelditzen den apurra nokak (% 0,3) (Ibidem, 40. or.).

Soziolinguistika Klusterraren kaleko behaketa zuzenez gaindi, Bereziartua eta Muguruzak (2018a eta 2018b) galde-sorta bidez egindako itaunek hitanoaren erabilerari buruz xehetasun gehiago eta erantzun sakonagoak jasotzea ahalbidetu dute. Besteak beste, esparru hauetako hitanoaren erabileran jarri dute arreta: familian, lagunartean, ikastetxean eta buru barruan (Bereziartua & Muguruza, 2018a, 25-26. or.). Metodologiei dagokienez, lehenbizikoan ez dago zalantzarik, behaketa zuzenean kalean entzun eta ikusitakoa erregistratzen baita; bigarrenengan, ostera, parte hartzaileek emandako erantzunak direnez, gerta liteke erabilera aitortua benetakoarekin bat ez etortzea.

Nolanahi ere, hemen jasoko ditugu Bereziartua eta Muguruzaren galde-sortatik ateratako emaitzarik aipagarrienak eta arestian emandako datuekin bat ote datozen ikusiko dugu.

5.2.2. Familian

Hasteko, Bereziartua eta Muguruzak familia barruan hitanoa nork, norekin eta zenbat erabiltzen den aztertu nahi zuten Alberdik (1994, 983. or.) baieztatu baitzuen hika etxeko eta familiako tratamendua zela batik bat. Horrez gain, esparru horretako erabilera neurtzea zuten xede gero horrek seme-alabek hika erabili ala ez erabili eragiten ote duen jakiteko. Gurasoek seme-alabei zenbat hika egiten dieten neurtzeko ez zieten gurasoei galdetu, seme-alabei baizik, eta erantzunen arabera, amak zein aitak hika gutxiago egiten dio alabari semeari baino, are gutxiago alaba gazteari (Bereziartua & Muguruza, 2018a, 26. or.).

3. taula: Gurasoek seme-alabei hika adin-taldeka. Azpeitia, 2018 (%)⁶

		Alabari	Semeari
Amak	Heldu	% 22,1	% 24,7
	Gazte	% 4,0	% 11,1
Aitak	Heldu	% 18,9	% 40,5
	Gazte	% 7,5	% 40,2

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

Hortaz, semeak jasotzen du hika gehien etxean, batez ere, aitarengandik. Ez hori bakarrik, orokorrean beheranzko joera egon da kasu guztietan, baina aita-seme harreman horretan ez da ia aldaketarik egon belaunaldietan zehar, izan ere, seme helduen % 40,5ek eta gazteen % 40,2ek jasotzen dute hitanoa aitarengandik. Aitzitik, gurasoengandik hitanoa jasotzen duten alaba helduetatik gazteetara beheranzko salto dezentea egon da (% 22,1etik % 4,0ra amaren kasuan eta % 18,9tik % 7,5era aitaren kasuan). Horrez gain, hitanoa jasotzen duten semeen eta hitanoa jasotzen duten alaben artean izugarritzko aldea dago, handiena aita eta seme-alaba gazteen harremanean (seme gazteen % 40,2ri egiten diete hika aitek eta alaba gazteen % 7,5ari soilik).

Guraso eta seme-alaben harremanetik urundu gabe baina hiztun eta hartzaile rolak iraulita, interesgarria da jakitea seme-alabek gurasoei zer tratamendutan hitz egiten

⁶ Grafikoan marra urdina agertzen bada, erreparatu datuari bere horretan. Marra laranja agertzen bada, erreparatu datuen bilakaerari.

dieten. Tradizioari eta arau sozialei men eginda, seme-alabak ezin zaizkie gurasoei (eta oro har, helduagoei) hika zuzendu, hala ere, erantzunak ikusita, badirudi aldatzen doala ohitura hori. Alabak amari sekula ez dio hika egiten (salbuespenak albuespen), aldiz, seme gazteen % 6,8k baietz aitortu du. Era berean, nahiz eta belaunaldi zaharragoetan ez egin, alaba gazteen % 5,6 hika aritzen zaizkio aitari eta seme gazteen % 27,6. Alegia, berriz ere aita-semeen harremana da hikatzaileena, eta belaunaldi gazteenetan, gainera, nabarmen egin du gora joera horrek (% 12tik % 27,6raino igo da). Alaba eta semeek gurasoei hika egitean dagoen ezberdintasuna ez ezik, esanguratsua da belaunaldien artean dagoen aldea ere. Izan ere, 61 urtetik gorako adinekoetan inork ez dio gurasoei inoiz hika egin, aldiz, belaunaldietan behera eginda, gurasoei hika egiten dieten seme-alaben kopurua nabarmen hazi da adin talde batetik bestera; batik bat, aitari hika egiten dieten semeen kopurua (Ibidem, 26. or.).

4. taula: Seme-alabek gurasoei hika adin-taldeka. Azpeitia, 2018 (%)

		Amari	Aitari
Alabak	12-18 urte	% 0	% 5,6
	19-25 urte	% 1,5	% 0
	26-35 urte	% 1,7	% 1,8
	36-45 urte	% 2,5	% 1,6
	46-60 urte	% 0,8	% 0
	> 61 urte	% 0	% 0
Semeak	12-18 urte	% 6,8	% 27,6
	19-25 urte	% 0	% 12
	26-35 urte	% 0	% 6,1
	36-45 urte	% 3,3	% 5,7
	46-60 urte	% 1,4	% 3,1
	> 61 urte	% 0	% 0

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018

Familiarteko harremanekin amaitzeko, senideen artean nola hitz egiten den ikustea soilik falta da. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean ikusi dugu bi noranzkoetan egin duela behera hikaren erabilerak belaunaldietan barrena. Senideen artean are handiagoa da beherakada hori, izugarri jaitsi baita hitanoaren erabilera senideen harreman

guztietan helduetatik gazteetara. Senide helduen artean hika gutxiena ahizpen artean eta neba-arreben artean entzuten da (% 38,3 eta % 44, hurrenez hurren), baina entzun daiteke; orain, berriz, ahizpa gazteen artean hika egiten dutenak ez dira % 5era ere iristen. Neba-arreba gazteen artean % 15-20k egiten du hika, hala ere, nebek arrebei gehiago beste aldera baino. Azkenik, anai helduetatik erabilerari asko jaitsi den arren (% 79,2), anai gazteen erdiek egiten dute hika euren artean (Ibidem, 26. or.).

5. taula: Senideen artean hika adin-taldea eta generoaren arabera. Azpeitia, 2018 (%).

		Ahizpari/Arrebari	Anaiari/Nebari
Emakumeak	Heldu	% 38,3	% 53
	Gazte	% 4,8	% 15,2
Gizonak	Heldu	% 44	% 79,2
	Gazte	% 19,6	% 50

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

Hori guztia dela eta, datuek erakutsi bezala, etxean hika gehiago egiten dute eta egiten zaie gizonezkoei, aita- seme eta anaien arteko harremanean indar handia baitu oraindik ere hitanoak, bi kasuetan erabilerari jaitsi egin den arren. Beste aldera, emakumeek egiten duten eta jasotzen duten hitano kopurua urrun gelditzen da familian aitek, semeek, anaiek eta nebek egiten eta jasotzen dutenetik. Bereziartua eta Muguruzaren ustez (2018a, 26-27, or. eta 2018b, 70. or.), gurasoek seme-alabei, lagunei eta elkarri hika egiteko duten joerak eragina izan dezake seme-alabek elkarren artean eta lagunekin hitz egiten duten moduan. Beste modu batean esanda, seme-alabek etxean entzuten eta jasotzen duten hitano kopuruak eta, oro har, hitanoak familian duen presentziak zeresana izan dezake seme-alaben tratamendu hautaketan.

“Ezin dugu esan gurasoen hitanoaren erabilerari lotutako hiru aldagai horiek erabakigarriak direnik seme-alaben hika egiteko ohiturari. Hala ere, joera bat ikusi dugu (...) Gurasoek seme-alabei zenbat eta gehiago egin hika, seme-alabek orduan eta kasu gehiagotan egiten dute haien artean hika” (Bereziartua & Muguruza, 2018a, 27. or.). Datuek erakusten duten moduan, gurasoak seme-alabei zuzentzen zaizkien tratamenduak eragina du senideek elkarren artean hitz egiten duten tratamenduan. Izan ere, bi gurasoek zuka egiten dieten seme-alaba gazteek zein helduek elkarren artean hika gutxiago egiten

dute bi gurasoek hika egiten dieten seme-alabek euren artean baino. Guztietan igartzen da goranzko joera etxean hitano gehiago jaso ahala. Esaterako, bi gurasoek zuka egiten badiete seme-alabei, senide gazteen % 5,6ek hitz egiten dio hika ahizpari edo arrebari eta senide helduen % 28,9k; aitzitik, bi gurasoek hika egiten badiete, berrogeita hamar puntu inguru hazten da kopurua bi kasutan (% 53,3 eta % 81,8 hurrenez hurren). Nolanahi ere, berriz ere ezberdintasunak daude belaunaldi eta generoen artean, senide helduek gehiago egiten baitute hika, batik bat nebari edo anaiari, % 93k hain zuzen ere (Ibidem, 27. or.).

6. taula: Senideen artean hika gurasoek haiei egindakoaren arabera adin-taldeka. Azpeitia, 2018 (%).

		Ahizpari/Arrebari	Anaiari/Nebari
Gazteak	Bi gurasoek zuka	% 5,6	% 22,4
	Guraso batek hika	% 23,1	% 62,2
	Bi gurasoek hika	% 53,3	% 66,6
Helduak	Bi gurasoek zuka	% 28,9	% 49,5
	Guraso batek hika	% 51,8	% 77,4
	Bi gurasoek hika	% 81,8	% 93

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

5.2.3. Lagunartean

Lagunarteari dagokionez, izugarrizko arrakala dago, batetik, helduen eta gazteen eta, bestetik, emakumezkoen eta gizonezkoen erabileraren artean. Lagun helduen artean datuak ez dira asko urruntzen emakumeek emakumei eta gizonei eta gizonek emakumei egiten dieten moduan (hirurak % 40 eta % 50 bueltan); baina gizonek gizonei egiten dietenari erreparatuta, kopurua asko igotzen da (% 93,2). Belaunaldi gazteetan erabilerak behera egin du nabarmen, bereziki emakumeetan, nesken artean % 2,4k baino ez baitu hika egiten beti edo gehienez eta nesken % 13k soilik mutilei. Beherakadak beherakada, mutil gazteen artean hitanoa da oraindik harreman-tratamenduen jaun eta jabe (% 87,1) (Ibidem, 27. or.).

7. taula: Lagunartean hika adin-taldeka eta generoaren arabera. Azpeitia, 2018 (%)

		Emakumeari	Gizonari
Emakumeak	Heldu	% 44,9	% 50,5
	Gazte	% 2,4	% 13
Gizonak	Heldu	% 42,1	% 93,2
	Gazte	% 16,1	% 87,1

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

Senideen artean bezalaxe, baliteke gurasoak seme-alabei hika ala zuka zuzentzeak eragina izatea seme-alabek lagunekin hitz egiten duten tratamenduan. Arestian esan bezala, ez da aldagai guztiz erabakigarria, baina datuek erakusten dute eragina egon badagoela; emakumeen kasuan nahiko nabarmen, gainera. Bi gurasoek zuka egiten dieten emakumeen % 40,4k egiten die hika lagun emakumeei, aldiz, bi gurasoek hika egiten dieten emakumeen % 71,2k; alegia, dezentez gehiagok (Bereziartua & Muguruza, 2018b, 70. or.).

8. taula: Emakumeek lagunekin hika gurasoek egiten dietenaren arabera. Azpeitia, 2018 (%)

		Lagun emakumeari	Lagun gizonari
Emakumeak	Bi gurasoek zuka	% 40,4	% 46,7
	Guraso batek hika	% 56,5	% 62,3
	Bi gurasoek hika	% 71,2	% 68,5

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

5.2.4. Ikastetxean

Ikastetxeak berebiziko garrantzia du haur eta gazteengan —baita hizkuntza ohituretan ere— eguneko ordu ugari igarotzen baitituzte bertan. Azpeitiko ikastetxe batzuetan ohikoa da irakasleak hika zuzentzea ikasleei, eta alderantziz, baina bereziki irakasle eta ikasle gizonen arteko harremanetan gertatzen da hori, beste behin ere. Irakasle emakumeek nesken % 1,9ri hitz egiten diote hika eta mutilen % 8,6ri. Irakasle gizonaek, aldiz, ikasle nesken % 9,1 egiten diote hika eta mutilen % 57,5i. Beraz, ikastetxean, etxean bezalatsu, mutilek hika nabarmen gehiago jasotzen dute neskek baino,

batik bat irakasle gizonen aldetik (Bereziartua & Muguruza, 2018a, 27. or.). Hala ere, eremu honetan kontuan izan behar dugu ikastetxeetako irakasle guztiak ez direla Azpeitia ingurukoak eta batzuek ez dutela hitanoa euren hizkuntza erreperitorioan.

5.2.5. Buru barruan

Bereziartua eta Muguruzak kuriositatea dute, halaber, Azpeitiarren buru barnean tratamenduekin zer gertatzen den jakiteko. Horretarako, bi egoera bereizi dituzte, ez baitira gauza bera (a) buru barruan pentsatzeko erabiltzen den tratamendua eta (b) geure buruari hitz egiteko darabilguna. Galde-sortako emaitzen arabera, nahiz eta belaunaldietan behera egin, mutil gehienek hitanoa darabilte baterako zein besterako. Aitzitik, neskek zukara jo ohi dute bi kasuetan, baina alde adierazgarriak daude heldu zein gazteen artean nahiz bi egoeren artean. Hikan pentsatzen duten emakumeen kopurua % 28,6tik % 4,3ra jaitsi da eta euren buruari hika hitz egiten diotenak % 56 izatetik % 22,2 izatera igaro dira. Hortaz, gizonak bezalaxe, emakumeek ere gehiago erabiltzen dute hitanoa euren buruei hitz egiteko pentsatzeko baino (Ibidem, 27. or.). Ez da zehazten, ordea, hitanozko zein formatan hitz egiten dioten emakumeek euren buruari, baliteke toka izatea noka izan beharrean (Bereziartua & Muguruza, 2018c).

9. taula: Nork bere buruari hika adin-taldeka eta generoaren arabera. Azpeitia, 2018 (%).

		Emakumea	Gizona
Zeure buruan (pentsatzeko)	Heldu	% 28,6	% 86,4
	Gazte	% 4,3	% 69,4
Zeure buruari (hitz egiteko)	Heldu	% 56	% 91,8
	Gazte	% 22,2	% 75,8

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

5.2.6. Beste zenbait kontu

Zuzentasunari dagokionez, esan dugu hitanoaren forma eta aditz alokutiboen komunztadura aldatu egiten direla hartzailearen generoaren arabera. Hori horrela, gramatikalki okerra litzateke emakumeari toka eta gizonari noka egitea, baina egin egiten da, batik bat, lehena. Emakumeei toka egiteko joera asko hazi da hiztun helduetatik gazteetara (guztira, % 5,7tik % 20,2ra) batzuetan arrazoi zehatzik gabe eta beste batzuetan hiztunek noka ez dakitelako edo ez direlako ondo moldatzen. Harrigarria da, gainera,

gazteetan gehiago direla emakumeei toka zuzentzen zaizkien emakumeak (% 23,1) gizonak baino (% 16,7). Dena dela, badaude gizonezkoei noka egiten dieten gazte zein helduak ere (% 3,7 batz bestea), kontura daitezen emakumeei toka egitea ere ez dela zuzena (Bereziartua & Muguruza, 2018a, 27. or.).

10. taula: Emakumeei toka eta gizonezkoei noka adin-taldeka eta generoaren arabera. Azpeitia, 2018 (%).


		Emakumeak	Gizonak	Guztira
Emakumeei toka	Heldu	% 3,9	% 9,3	% 5,7
	Gazte	% 23,1	% 16,7	% 20,2
Gizonei noka	Heldu	% 4,4	% 1,9	% 3,6
	Gazte	% 2,4	% 4,9	% 3,8

Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

Zuzen ala ez zuzen, hiztun batzuk ez dira ausartzen aurrez aurre hika egitera, baina bai idatziz. Hau da, zenbaitek (neska-mutil gazteen % 18 inguruk) pertsona berarekin aurrez aurre zuka hitz egiten du eta idatziz, berriz, hika. Gazte horiei errazago egiten zaie hika egitea modu idatzian eta solaskidea parean izan gabe, hala nola lotsa gutxiago ematen duelako, pentsatzeko denbora gehiago dutelako eta akatsak zuzen ditzaketelako (Ibidem, 28. or.).

Bestela, makina bat gazteri (bereziki, neskei) zaila egiten zaie hika egitea. Arrazoietan sakontzen hasita, emakume gazteek ez dute hitanoa horrenbeste erabiltzen, batez ere, ez dakitelako nahi bezain ongi egiten (% 43,3), arraro sentitzen direlako (% 40,4), lagunek egiten ez dutelako eta ohiturak aldatzea nekeza egiten zaielako (biak % 24,5). Mutilen kasuan ehunekoak ez dira horren altuak, baina hika horrenbeste ez egiteko arrazoirik behinena gurasoei ez gustatzea dela aitortu dute (% 14,5), baita arraro sentitzea (% 12,9) eta nahi bezain ondo ez jakitea ere (% 12,3) (Bereziartua & Muguruza, 2018c).

6. grafikoa: Hika hainbeste ez egiteko arrazoiak gazteen artean.
Azpeitia, 2018 (%).



Iturria: Bereziartua & Muguruza, Azpeitiko hitanoaren erabilerari buruzko galde-sorta, 2018.

Hori horrela, oro har, galde-sortako parte hartzaileek egiten dutena baino hika gehiago egitea nahiko lukete. Hika gehiago egiteko desira emakumeek agertu dute bereziki (emakume helduen % 70,4k eta gazteen % 65,8k). Gizonezkoen kasuan ez da horren nabarmena nahia, baina gutxi gorabehera erdiek (gizonezko helduen % 50,9k eta gazteen % 46,7k) aitortu dute hitanoa egiten dutena baino gehiago egitea gustatuko litzaiekela (Bereziartua & Muguruza, 2018a, 28. or.).

5.2.7. Laburpena

Laburbilduta, badirudi oraindik hitanoa bizirik dagoela Azpeitian, euskarazko hamar elkarrizketatik ia bi baitira hika (gehienak toka eta gutxi batzuk noka). Emandako datu guztien arabera, hau ondoriozta daiteke: alde izugarria dago, batetik, generoen artean eta, bestetik, belaunaldien artean. Alegia, gizonezkoek hitanoa askoz gehiago erabiltzen dute, esparru guztietan, emakumeek baino; eta aldi berean, helduek dezentez gehiago hitz egiten dute hika belaunaldi gazteek baino. Azken baieztapen horretan, ordea, ez datoz bat Soziolinguistika Klusterreko neurketa eta Bereziartua eta Muguruzaren galde-sortako emaitzak, izan ere, lehenbizikoren arabera, hitanoaren erabilera nahiko antzekoa da gazte

(% 25), heldu (% 23,5) eta adinekoen (% 29,8) artean. Bigarrenen iritziz, berriz, alde nabarmenak daude helduen eta gazteen artean, eremu guztietan erabilerak ikaragarri egin baitu behera, bereziki, emakumeen kasuan (Bereziartua & Muguruza, 2018b, 74. or.).

Beraz, ezberdintasunak daude gizonek eta emakumeek egiten duten hitano kopuruaren artean, baina ez hori bakarrik, ezberdintasunak daude, halaber, jasotzen duten hitano kopuruan ere. Izan ere, emaitzetan ikusi moduan, emakumeei zuzentzean hika gutxiago egiten da gizonei zuzentzean baino etxean, lagunartean eta ikastetxean. Hori horrela, hitanoa, batez ere, gizonezkoen harremanetako tratamendua dela dirudi, izan ere, indarririk handiena aita-semeen, anaien eta lagun mutilen artean dauka hitanoak eta egoera horietan agertzen da maizenik. Horregatik, askoz gehiago entzuten da toka kalean (% 45,1) noka baino (% 17,5) eta ez da harritzekoa, hortaz, gero emakumeek hika gutxiago egitea senideekin eta lagunekin. Erabakigarria ez den arren, gurasoek hika egiteko duten ohiturak (seme-alabei, lagunei eta elkarri) eta familian hitanoak duen presentziak eragina izan dezake seme-alabek elkarren artean eta lagunartean hitz egiten duten hika kopuruan. Alegia, inguru hurbilean zenbat eta hitano gehiago entzun eta jaso, orduan eta maizago erabiltzen dute hitanoa seme-alabek ere euren harremanetan.

Amaitzeko, aitortutako erantzunetan oinarrituta, ohartu gara emakumeei toka zuzentzeko ohitura hazten ari dela emakumeen zein gizonezkoen kasuan. Horrez gain, gazte asko idatziz aiseago ausartzen dira hika egiten aurrez aurre baino errazago egiten zaielako. Azkenik, oro har, parte hartzaile gehienek erakutsi dute egiten dutena baino hika gehiago egiteko nahia, bereziki emakumeek.

Atal honetan bi ikerketatako datu kuantitatiboak aztertu dira, behaketetatik eta erantzun aitortuetatik jasotako emaitzetan oinarrituta. Hala ere, guk zenbakiez haratago joateko asmoa dugu eta sakonago aztertu nahi dugu hizkuntza praktika horiek zergatik gertatzen diren eta zer ideologia dituzten azpian. Hiztunen arrazoietan eta balioetan murgiltzeko, ordea, beharrezkoa da azterketa kualitatiboa egitea. Beraz, oinarri kuantitatiboa ahaztu gabe, jarraian datorren atalean analisi kualitatiboari ekingo diogu.

6. Analisia

Atal honetan lanaren mamiari helduko diogu zuzen-zuzenean. Ikerketaren helburuak gogora ekarrita, xede nagusia Azpeitian hitanoa erabiltzeko ala ez erabiltzeko dauden arrazoiak eta irizpideak ezagutzea da. Horretarako, lehenik, nire gertuko harreman sareetan hitanoak duen presentzia nolakoa den jakin nahi dut, beraz, ezer baino lehen, behaketa etnografikoetan jasotako oharra eta pertzepzioak azalduko ditut. Lanaren beste jomugetako bat Azpeitiko gazteek hitanoaren inguruan dituzten uste, balio eta ideologiak identifikatzea da. Hori horrela, jarraian, eztabaida taldeetan parte hartzaileek azalduko iritziak, sinesmenak eta sentipenak aztertu, alderatu eta hausnartuko dira gaiz gai eta kategoriaz kategoriaz.

Analisia taxuz egingo bada, ezinbestekoa izango da oinarri teorikoan (ikus 3. atala) azalduko kontzeptuak, terminoak eta ideiak ulertu eta Azpeitiko hitanoaren errealitate soziolinguistikoa (ikus 5.2. azpiatala) buruan izatea. Azkenik, analisiaren ostean, ikusiko dugu, batetik, ea bat ote datozen eztabaida taldeetako partaideen diskurtsoak, behaketa etnografikoan jasotako oharra eta Bereziartua eta Muguruzak egindako diagnostikoaren emaitzak (ikus 5.2. azpiatala). Bestetik, hasieran proposatutako hipotesiak baieztatu ala gezurtatuko ditugu eta, beharbada, beste hipotesi batzuk formulatuko ditugu.

Aurrez, hortaz, gogora ditzagun hastapeneko aurreikuspenak eta susmoak labur-labur (xeheago irakurtzeko, ikus 2. atala). Ikerketari ekin aurretik, lehenik, nahiko begi bistakoa zen Azpeitian hitanoak beheranzko joera izan duela belaunaldietan barrena azken urteetan. Horrekin batera, agerikoa da toka gehiago entzuten dela noka baino, beraz, gizoni gehiago egiten zaie emakumeei baino. Uste horri lotuta, ziur samar esan nezakeen gizonezkoek gehiago hitz egiten dutela hika emakumeek baino eta toka dela gizonezkoen harreman tratamenduaren norma. Bigarrenik, hitanoa hizkuntza ideologia eta balio ugarirekin lotzen da eta lotura horiek eragina izan dezakete erabileran edo erabilera ezean. Balio mesedegarriak zein kaltegarriak atxiki dakizkioke hitanoari, nondik begiratzen den. Esaterako, benetakotasuna, zakartasuna, naturaltasuna, behe mailako herritarren hizkera izatea, kidetasuna, bortizkeria, konfiantza, gogortasuna eta adiskidetasuna. Azkenik, hipotesia da genero rolek eta arauak lagundu dutela toka indartzen eta, aldi berean, noka ahultzen.

6.1. Hitanoa hurbiletik

Arestian esan bezala, lau behaketa etnografiko egin ditut modu sistematikoan eskuartean dugun analisirako; baina berriro gogorarazi nahi nuke informal samarrak direla eta ez dutela behaketa etnografiko batek eskatzen duen sakontasunik eta zehaztasunik. Behaketei esker, nire gertuko hiztunek hitanoarekin duten benetako harremana jasotzeko gai izan naiz, alegia, hitanoa nork, norekin, noiz eta non erabiltzen duen jakiteko egoerarik behartu gabe. Sekula berariazko behaketarik egin gabea nintzen hitanoaren gainean nire inguruan, baina banuen ohiko joeren eta erabileren berri. Behaketa etnografikoen bidez, aurrez nituen usteak eta pertzepzioak baieztatu ditut, entzun eta ikusi ditudan kontuak ez baitira asko urruntzen lehen pentsatzen nuenetik. Hona hemen lau behaketetako oharrak:

6.1.1. Familian

Etxean bi igande bazkalostetan egin dut behaketa, familiako lau kideon artean (ama, aita, ahizpa eta ni, behatzailea). Bi igandeetan giro lasaian geunden tertulian mahaiaren inguruan, albisteei buruz eztabaidatzen, kirolen inguruan hitz egiten edota elkarri adarra jotzen. Bi kasuetan telebista piztuta zegoen eta batzuetan han esandakoen inguruan hasten ginen hizketan. Behaketak egin nituen uneetan hauteskundeez, eguraldiaz, bezperako larunbat gauaz eta kirolaz hitz egin genuen, batez ere.

Behatutakoaren arabera, hitanoak presentzia nahiko handia du gure etxean izan ere, batetik, gurasoek elkarren artean hika hitz egiten dute etengabe. Amak aitari toka egiten dio beti: «hori banatxakian lehendik»; «nik bestie esan diat»; «jarri hai hor ta in tzak xiesta». Aitak amari, ordea, nahasian egiten dio, batzuetan noka eta besteetan, berriz, toka: «han pasau ditun goitik behera»; «etzakiat pa, biyer ogita jun ber diat eta»; «lehelengo bestiek kontatzexkiabe»; «aitze al den?». Bestetik, gurasoek alaboi ere hika egiten digute gehien-gehienean, amak noka eta tarteka zuka, irizpide garbirik gabe: «ude ekarri zazu, faborez»; «bai, hau ekartzea etorri naun»; «hizketan hasi ta atie ixteien»; «nik letukotxiñet hoyek, igual den». Aitak, amari bezalaxe, batzuetan noka eta besteetan toka egiten digu, nahasian: «ekarri zan!»; «hure ondo jungo huan»; «pasau al tzan?»; «batzuk ikusi ditxiat, bestiek ez».

Gurasoek, dena delako gaia izanda ere hitanoa darabilte beti, izan gai serioa ala umorezkoa, izan barrez ala haserre. Aitzitik, ahizpok elkarri eta gurasoei zuka egiten diegu erabat, nahiz eta oso lantzean behin esaldiren bat hika esaten diegun gurasoei

inertziar edo, erdi brometan: «ez gatxauren ondraubek», «motellak, aitukoek». Gainerakoan, ahizpak eta biok esaldi solteak, esamoldeak eta besteen hitzak esaterakoan erabiltzen dugu hika (toka nahiz noka), ez, ordea, elkarrekin: «ta esantziyon “ni etxea nitxik, azaldu hai hareak”»; «ta esan dit “hori ondo al tzion? Aitu ber tzitxiñan epelak”». Bakarrizketari dagokionez, atentzioa eman dit ama bere buruari toka hizketan entzutea batzuetan: «pentsau nuen “ba, enkarguta jungo nauk eta...”»; «idatzi ingo zoat».

6.1.2. Lagunartean, mutilekin

Kuadrillako mutilak behatu ditut ostiral gau batez Azpeitiko elkarte batean afaltzen eta larunbat iluntze batean Azpeitiko kalean tabernaz taberna poteoan. Behatutako taldean guztiak mutilak izan dira, neu izan ezik, behatzailea. Lehenbiziko behaketan hamabi mutil zeuden lagunartean afaltzen, eserita batzuk, hara-honean besteak eta bat sukaldean. Bigarren goan, berriz, sei-zazpi mutil zeuden, Azpeitiko kalean taberna batetik bestera, kuadrillako lagunekin nahiz parean pasatutako beste lagunekin hizketan. Bietan asteburuaren atarian pasa berri zen asteari edo zetorrenari buruz ari ziren, umore onean eta hizketako gogoz. Afaltzen talde txikitako elkarrizketak dira nagusi, mahaiaren inguruan parean dutenekin hitz egiten dutelako gehien bat, baina punta batetik bestera oihiak ere entzuten dira. Kalean, berriz, taldea nahiko osorik mantentzen da eta guztiek, gehiago edo gutxiago, hartzen dute parte elkarrizketan.

Uneoro, bi egoeratan, mutilen artean guzti-guztia hitanoa da, toka, kontu serioez hitz egiteko nahiz elkarri adarra jotzeko, batari zein besteari: «hire bigarren mallako notak gustoa ikusiko nixkian nik»; «emoxiyue ber tzian, bestela torneuek etzakek graxik»; «holako ganoriekin etziok irabazteik»; «ze naek pa, parrandie ta ikasketak eztituk ondo ematen». Kalean eta lagunartean toka da mutilen arteko tratamendu ia bakarra, zalantzarik gabe, izan kuadrillakoekin, beste lagun taldeetako mutilekin, baita inoiz hitz egin gabeekin ere. Esaterako, tabernetako mutil zerbitzariei toka egiten diete bi aldiz pentsatu gabe, nahiz eta ez ezagutu eta harremanik ez izan: «hi, afaltzeko tokik ba al tziok?»; «ateaxkik bi zurito ta bi pintxo». Aitzitik, neska zerbitzariei zuka egiten diete beti, baita kalean topo egindako beste neskei ere: «bokalluen papela emaizu, faorez»; «oindiken zuekin afaldu berkoet gaña».

Gainera, nahiz eta elkarrizketak taldean izan, kuadrillan mutilek ez dute zuka erabiltzen, toka egiten dute guztientzat, baita neska bat taldean egonda ere: «hi, nun afalduko iau?»; «guazeyok gora, hamen etziok eze»; «iñok geyo nahi al dik?». Hala ere, neuri bakarrik zuzentzeko, zuka egiten didate guztiek, hiru lagunek kenduta. Hiru

horietatik batek baino ez dit egiten noka elkarrizketa ia osoan zehar, beste biek esaldi solte batzuk bakarrik erantzuten dizkidate hika, beti noka: «earra zaonan ba antxumie!»; «handik hotseñ tzinabe ta ordun aste hontan han tokatze ziten»; «hi, nik biyer goizeo jaiki ber diñat e». Erantzun diot, izan ere, nik kuadrillako askori toka egiten diet sarritan (beharbada ez elkarrizketa osoetan) eta ia beti ni hasten naiz hika egiten. Niri oso-oso gutxitan erantzuten didate hika eta ni hasi ezean, lehen aipatutako lagun bakarra hasten zait noka hizketan. Hori dela eta, uste dut inertziak indar handia duela eta, normalean, nik egiten diedanean eta diedalako erantzuten didatela —edo saiatzen direla behintzat—noka erantzuten. Beste zenbait lagun, berriz, inoiz noka egiten ez didaten arren, festa giroan lotsa galtzen dutenean animatzen dira erantzutera, ez bestela: «earki hao e!»; «nire jungo naun»; «ondo zion». Baina esaldi bat edo bi esan eta zukara pasatzen dira berehala: «ya bigarrego aldiye da, onarteziñe da hau»; «lehengun ikusi nun, asko gustau zat».

Beste modu batean esanda, mutilen lagunartean toka da norma eta oso barneratuta daukate lagun minekin zein ezezagunekin erabiltzeko, banaka zein taldean. Aldiz, noka zeharo gutxi eta zeharo gutxi erabiltzen dute. Ohiko elkarrizketan kuadrillako mutil guztietatik bakarrak erabiltzen du noka, eta beste gutxi batzuk kasu oso zehatzetan, adarra jotzeko eta txantxak egiteko baino ez. Bat edo beste kenduta, beraz, inork ez du noka erabiltzen, horregatik, batzuk ahaleginduta ere nahiko trakets moldatzen dira. Horrez gain, badirudi inertziak baduela halako indar bat lagun gutxi batzuegan, nik toka eginez gero noka egiten ahalegintzen direlako, baina hala izan ezean, haiek ez direlako hutsetik noka hasten, brometan ez bada.

6.1.3. Lagunartean, neska-mutilekin

Kuadrillako neska-mutilak behatu ditut ostegun arratsalde batean eta ostiral iluntze batean Azpeitiko kalean tabernaz taberna poteoan. Behaketa batean zortzi lagun zeuden eta bestean, aldiz, hamalau, bietan neska eta mutilak nahasian; alegia, arestian aipatutako mutil talde bera, baina kasu honetan, behatzaileaz gain beste neska batzuekin batera. Berrero ere, gazteak gustura zebiltzan kalean lagunekin berriketan eta elkarri kontuak kontatzen, batzuk aspaldi ikusi gabe eta berrero elkartzaz pozik. Bi behaketetan neska-mutilak ez daude beti elkarrizketa orokor batean, bizpahiru edo hiruzpalau laguneko elkarrizketa labur edo luzeak ugariagoak dira guztien arteko bat baino. Oraintxe batekin gero bestearekin ari dira hizketan, batzuekin bi hitz gurutzatzen dituzte, besteekin, berriz, elkarrizketak luzeagoak dira. Asko ikasketei edo lanari buruz mintzo dira, besteak, aldiz, kirolari edota parrandari buruz, baina gehienean txantxetan eta festa giroan.

Lehen aipatu bezalaxe, mutilen artean toka da nagusi betiko moduan («egiye dek, twitterrien letu nian»; «pintxuek ikusi ta inbiri earra sartu zak hiri»); aldiz, nesken artean eta nesken eta mutilen artean ia zuka besterik ez da entzuten («zurie garbiye zan»; «astelehenak txunguk die»; «lana daket biyer atsaldien»; «zurekin kontatset ya»; «zure zai geunden»; «zu etzatoz e»; «biyer esangoizut animatze banaiz»). Noizean behin nokazko esaldi solteak eta esamoldeak esaten dizkiete neska bik edo hiruk elkarri («ean tzan, neska!»; «ze naen ba!») eta hiru mutilek neskei, baina une oso zehatzetan, txantxetan eta umore onean baino ez («hi bizi al haiz? Ertene ez haiz iten»; «orduntxe pasau zitenan resakie»; «hantxe poteakoen, neska!»; «negu osue gitxin hola, hareaxe jungo gaitun»).

Nokazko esamoldeak esaten dituzten neska horiexek ere tartean-tartean esaten diete zerbait toka mutilen bati, betiere brometan eta txantxa ukituarekin: «earki natxiok hamentxe»; «gauza asko euki ditxiat, baño berrize hasiko nauk». Azkenik, taldean kontua aldatu egiten da, neska-mutil guztiak nahasian badaude zuka egiten dute mutilek ere gehienean («eztakit noiz azalduko naizen», «ni animatze naiz kosta buelta»; «nik ez tet uste allauko naizenik»; «biyer esangot»; «ni biyeta apuntatze naiz»); baina taldean nahasirik egonagatik mutil bati zuzentzen badira, toka hitz egiten dute: «Oriyoa junberko iau»; «baietz pentsatze iat, baño...»; «bestiek harea bajako ituk eta».

Hori dela eta, hitanoa mutilen artean dago indartsuen eta orduan entzuten da beste inoiz baino gehiago. Nesken artean eta neska-mutilen artean lantzean behin baino ez da entzuten, mutilen artean ez bezala, zuka da norma eta hika ezohiko tratamendua. Ezohikoa da, izan ere, momentu jakinetan soilik agertzen da, esan bezala, adarra jotzean edo hitanoz ezarrita dauden esamoldeak esatean.

6.1.4. Nokadromoan

Azpeitiko Emakume Txokoak, Jabetze Eskolen egitarauaren barnean, *Hitanoa, emakumeak ahalduntzeko tresna* jardunaldia antolatu zuen martxoaren 30ean, goizez eta arratsalde. Jardunaldien helburua emakumeen hika eta ahalduntzea jorratzea zen eta emakumeen artean hitanozko elkarrizketak eta harremanak bultzatzea (Uztarría, 2019); horregatik, aukera paregabea iruditu zitzaidan behaketa egiteko.

Goizean, Eli Pagola hernaniarrak eta Onintza Legorburu antzuolarrak hitanoarekin izandako harremanak eta esperientziak kontatu zituzten eta, segidan, mahai ingurua egon zen hurbildutakoen artean. Goizeko sarrera irekia izan arren, bertaratutako guztiak emakumeak izan ziren, hamabost zehatz-mehatz. Gehienak helduak ziren (40-50 urte

bueltakoak), baina ez zegoen gazte asko (esan nahi baita, 20-30 urte ingurukoak), hizlariez aparte beste hiru baino ez. Horrez gain, nahiz eta Azpeitian antolatu, beste herrietatik ere emakume ugari animatu ziren (Azkoititik, Errezildik, Oñatitik, Villabonatik, besteak beste).

Hizlariak hitz egiten zuten bitartean, entzuleak arretaz eta gustura egon ziren azalpenak eta bizipenak entzuten biribil erdian eserita. Ondoren, entzuleei luzatu zitzaien hitza eta elkarrizketa interesgarria sortu zen. Mahai inguruan batzuek elkar ezagutzen zuten, beste batzuek ez, beraz, ez zen lagunarteko giroa, baina bazegoen halako kidesun sentipena. Noka entzuten zen han-hemenka, baina taldean zenez, zuka izan zen nagusi. Norbaitek zuzenean beste norbaiti erantzuterakoan, noka eta zuka, bietatik zegoen. Izan ere, batzuk aurrez ezagutzen zuten elkar eta noka hitz egiten zuten elkarrekin nahiz eta lagun-lagunak ez izan, aldiz, bi emakumek zuka hitz egiten zioten elkarri lagun minak izanda ere. Beste batzuk, berriz, orduantxe egin zuten topo lehenengoz, eta orduan ere bietatik zegoen, batzuk zuka eta besteek lehen hitzetik noka.

Arratsaldean, noka praktikan jartzeko *nokadromoa* prestatu zuten. Arratsaldean baino emakume gutxiago agertu ginen, hamar, hain justu ere. Noka egitea zenez arratsaldeko ekintzaren helburua, noka praktikan jarri genuen jolasen, elkarrizketen eta antzerkien bidez. Beraz, jolas giro horretan eta jada goizetik ezagututa, lehen baino konfiantza eta hurbiltasun gehiago nabaritzen zen elkarren artean. Guztiok elkarri noka egin genion adinak, harremanak eta euskalkiak gorabehera; alegia, gazteen eta helduen artean, ezezagunen artean eta dialekto ezberdinetako hiztunen artean. Oso giro atsegina sortu zen, noka egiteko gogoz betea eta argi geratu zen hitanoak berez duen bizitasuna, indarra eta adierazkortasuna.

6.1.5. Motzean

Ikusiak ikusita eta entzundakoak entzunda, ondorio eta hausnarketa ugari atera daitezke behaketetatik. Labur-labur esanda, nire hurbileko hizkuntza komunitatean hitanoak presentzia handi samarra du, tokak asko eta nokak nahi baino gutxiago, halere aldea ez da hain desorekatua. Behaketetako oharrei erreparatuta, Bereziartua eta Muguruzaren (2018a, 2018b eta 2018c) ikerketako emaitzekin alderatuz gero, adostasunak eta desadostasunak daude.

Hasteko, alde batetik, bi gurasoek egiten digute hika alaba gazteei, nahiz eta estatistiken arabera ez izan oso ohikoa (ikus 3. taula). Beste aldetik, gurasoek beraien

artean hika egiten dute oraindik, tradizioak esan arren ezkondu ondoren hitanoa alde batera utzi eta zukara igaro behar dutela bikoteek (Alberdi, 1993, 438. or.; 1994, 984. or.). Hala ere, esan bezala, aitzak noka eta toka nahasian erabiltzen ditu sarritan emakumeei zuzentzerakoan eta hori bat dator arestian aipatu dugun zuzentasun ezarekin (ikus 10. taula), edo beste modu batean esanda, arau sozialen aldaketekin. Egia da, halaber, amaren kasuan bezalaxe, emakumeek ere askotan toka erabiltzen dutela bakarrizketan edo nork bere buruari hitz egiterakoan (ikus 5.2.5. azpiatala).

Bestalde, nahiz eta etxean presentzia nabarmena izan hitanoak eta gurasoek hika egiteko joera izan elkarri, lagunei eta alaboi, ez dugu ahizpon artean hika egiten. Hortaz, ez da igartzen 6. taulan azaldutako eragina, alegia, gurasoek zenbat eta hika gehiago egin seme-alabei, orduan eta maizago egiten dutela hika senideen artean ere. Dena dela, jakina, gure familiako kasuak ez du inondik inora ere Azpeitiko etxe gehienetako errealitatea islatzen.

Lagunarteari dagokionez, egoera asko aldatzen da mutilen eta nesken artean, lehenengoan hitanoa baita gizarte araua eta, bigarrenengan, berriz zuka. Mutilen eta nesken arteko harremanari dagokionez ere, zuka da nagusi eta hika, aldiz, ezohiko; hau da, “hitanoaren barne, noketa tratamendu markatua dugu toketaren aldean” (Alberdi, 1994, 992. or.). Argi dago, nesken artean eta neska-mutilen artean zuka askoz gehiago erabiltzen dute, baina noizean behin hitanozko esaldiak eta esamoldeak tartekatzen dituzte, nahiko modu naturalean itxura batean, baina ez dute besterik gabe egiten, horren atzean intentzionalitatea dago.

Hausnarketarekin amaitzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi hitanoaren erabilerak behatutako egoeretan izan duen bilakaera. Izan ere, behaketa modu sistematikoan egiteak horixe eskaintzen du, hain zuzen ere, denboran zehar jasandako aldaketa neurtzeko aukera. Lehenbiziko hiru behaketetan behatutako partaide batzuk eztabaida taldeetan ere hartu dute parte eta, ez dakit horregatik izan den, baina ohartu naiz horietako zenbaitek azkenaldian hika egiteko ahaleginak areagotu dituztela; bereziki, noka, toka lehendik ere asko egiten baitzuten.

6.2. Hitanoa gazteen hitzetan

Nahiz eta garrantzia izan, lanaren helburu nagusia ez da nire inguruko partaideek hitanoa norekin eta zenbat erabiltzen duten neurtzea. Benetan jakin nahi dudana da Azpeitiko gazteek hitanoaren inguruan zer uste duten: zer ideologia eta sinesmen dituzten buruan, zerrekin lotzen ote duten hitanoa, balio positiboak ala negatiboak atxikitzen ote dizkioten, zergatik erabiltzen duten eta ez duten, zein irizpide eta arau sozial jarraitzen dituzten eta zeintzuk ez... Hori guztia aztertzeko hiru eztabaida talde egin dira Azpeitiko eta Urrestillako gazteekin (ikus 4.1.2. azpiatala), lagunarteko elkarrizketen bidez haien hizkuntza ideologietan arakatzeko asmotan. Behaketa etnografikoan erabilera naturala jaso nahi zen modu berean, eztabaida taldeetan ere gazteek bene-benetan pentsatzen dutena lortu nahi zen, alegia, sakonean eta ezkutuan dituzten usteak azalera ateratzea eta ez iritzia egokia denaren arabera moldatzea. Horregatik, hasi aurretik gazteek ez zekiten hitanoa izango zela hizketarako gaia, aurrez diskurtsorik ez prestatzeko eta egiaz pentsatzen dutena esateko.

Arestian esan bezala, hipotesietatik eta hitanoaren inguruko bibliografiatik abiatuta, hasi aurretik eztabaida taldeetan aterako ziren gaiekin behin-behineko kategoria zuhaitza egin nuen (ikus I. eranskina). Hala ere, moderatzaileak batzuetan ildo nagusiak ireki arren, gehienez partaideek gidatu dituzte eztabaida taldeetako elkarrizketak eta horri esker, aurreikusitakoak baino gai gehiago atera dira mahai gainera. Hori dela eta, beharrezkoa izan da hasieran egindako kategoria zuhaitzari kimu batzuk kentzea eta besteak gehitzea, osatzea eta moldatzea. Horrela, beraz, behin-behineko zuhaitza abiaburu hartuta, behin betiko kategoria zuhaitza eraiki da (ikus II. eranskina) eta kategoria horien bidez kodifikatu dira transkripzioetako aipuak. Horrenbestez, atal honetan ere kategoria horiexen bidez azalduko dira eztabaida taldeetan jorratutako auziak.

6.2.1. Transmisioa eta mudantza: nola jaso eta noiz hasi erabiltzen

Oinarri teorikoan esan bezala (ikus 3.3. azpiatala), soziolinguistikan eta hizkuntzaren antropologian transmisioa oso modu hertsian eta zurrunean ulertu izan da oraintsu arte, hain zuzen ere, goitik behera eta norabide bakarrean. Horren aurrean, Kasaresek (2015, 27. or.) transmisioaren orain arteko paradigma irauli eta adiera zabalagoa proposatu zuen, haren ustez, transmisioa ez da ezinbestean bertikala eta norabide bakarrekoa, aitzitik, modu horizontalean eta berdinen artean ere ikasi eta transmititu daiteke hizkuntza (2012,

45. or.). Paradigma aldaketa horren aurrean, Azpeitian hitanoaren transmisioa zertan datzan aztertu nahi izan da: orain arteko transmisio eredu tradizionalak jarraitzen ote duen indarrean ala hitanoa jasotzeko modu berriak agertu ote diren.

Eztabaida taldeak hasterako aurreikusi zen, partaide guztiek izan ez arren, gehien-gehienek hitanoa etxean jaso edo, gutxienez, entzungo zutela. Beraz, transmisioaren eredu tradizionala gailenduko zela uste zen, hots, hitanoa gurasoengandik seme-alabetara igaro dela goitik behera eta norabide bakarrean. Hain zuzen ere, mutilen erdiek hitanoa etxean jaso dutela adierazi dute; batzuetan gurasoek semei zuzenean egiten diete hika, beste batzuetan, aldiz, ez, baina gurasoak euren senideekin hika entzunda ikasi dute. Hala ere, gainontzeko mutilek aitortu dute etxean ez dutela hitanorik jaso, kalean eta berdinen artean ikasi dutela baizik. Horren adibide esanguratsua da, kasurako, Un-1, izan ere, haren gurasoak ez dira euskaldunak eta etxean gaztelania egiten dute; alabaina, Un-1k hitanoa erabiltzen du lagunartean uneoro, toka beti eta batzuetan noka ere ahalegintzen da.

(1) **Guk hika lagunekin kalien ikixi diau.** Nik usteiat. Eske bestela etzeok esplikaziyoik, nik etxien erderaz iteiat eta, ta hika bazakiat hitz eiten. (Un-1⁷, mutila, toka)⁸

Hori horrela, badirudi mutilek ez dutela beharrezkoa etxeko transmisio bertikala toka jakin eta normaltasunez hitz egiteko; etxean ez bada, kalean modu horizontalean ikasi eta hitz egiten hasten baitira inongo arazorik gabe. Nesken kasuan, ordea, kontua ezberdina da. Alde batetik, neska batzuek, mutilek bezalaxe, etxean entzun eta ikasi dute hitanoa, baina gehienek ez dute egunerokotasunean hitz egiten. Salbuespenak egon badaude (ez gehiegi, egia esan), izan ere, Ix-2 eta Mr-2 ahizpak dira eta natural hasi ziren euren artean noka hitz egiten, nahiz eta ez duten zehazten noiz eman zuten horretarako pausoa.

Prozesua naturala izan dadin, Mr-2k eta Ae-2k etxean hitanoa entzutearen garrantzia azpimarratu dute. Haien ustez —Bereziartua eta Muguruzak dioten moduan (2018a, 27. or.)—, gazteak aiseago hasten dira senideekin eta lagunekin hitanoa erabiltzen etxean hitanoa entzunez gero. Hala ere, neska parte hartzaileei begira, argi dago transmisioak ez duela ezinbestean erabilera ziurtatzen, ez horixe. Hitz egiteko modu bat ezagutze hutsak ez du derrigorrean esan nahi erabiliko denik, erabakia hiztunaren gogo-nahien arabera delako, eta gogo-nahiak, aldi berean, hiztunaren sozializazioaren eta harremanen arabera (Beitia, 2017, 143. or.). Beste aldetik, hitanoa etxean jaso ezean, neskek ez

⁷ Kodearen ondoan agertzen den zenbakiak partaide zein eztabaida taldeakoa den adierazten du (ikus 2. taula).

⁸ Arestian esan bezala, lan honetan agertzen diren transkripzioak ez dira azterketa dialektologiko baterako transkripzioak bezala idatzi. Partaideen aldaera ahalik eta estuen jasotzen saiatu naiz, baina irakurlearen lana errazteko asmoz *h*-ak gorde ditut.

dute kalean eta berdinen artean ikasten, mutilek egin ohi duten moduan. Hortaz, berdinen arteko transmisio horizontala mutilen artean soilik gertatzen da, ez, ostera, nesken artean.

Arestian azaldu dugun moduan, hizkuntza sozializazioa eta transmisioa elkarri estu lotuta daude eta zeresana dute hiztunaren erabaki-hautuetan. Hortaz, hiztunak ez dira hartzaile pasiboak, egintzailetasuna dute eta gai dira euren hizkuntza ohiturak aldatu eta besteenetan eragiteko (Kasares, 2015, 25. or.). Hori horrela, ikus dezagun noiz hasi diren Azpeitiko gazteak hitanoa erabiltzen eta nola eman duten pauso hori. Lehen ditugunez gain beste hizkuntza bat geureganatu eta erabiltzen hasteari *hizkuntza mudantza* edo *muda* deritzo (Pujolar & Gonzalez, 2013, 140. or.). Beste modu batean esanda, muda prozesu bat da eta hizkuntza berria norbanakoaren hizkuntza erreperitorioan sartu eta aurretik ez zituen funtzioak betetzen hastean datza. Berez, hizkuntza mudantzak hizkuntza erreperitorioan izandako aldaketei egiten die erreferentzia eta ez tratamendu erreperitorioko aldaketei, baina kontzeptu teoriko gisa balio digu tratamendu bakarria izatetik (zuka) bi tratamendu izatera (zuka eta hika) igarotzeko prozesua ulertzen.

We understand linguistic *mudes* as moments of transformation of the linguistic practices of particular individuals which also involve adopting new forms of self-presentation. (...) They bring about a reorganization of one's linguistic repertoire that has significant implications for the ways individuals present themselves to others in specific contexts in that they project a new, different or additional linguistic availability and therefore lay claim to participation in specific social milieus partly constituted by the newly adopted linguistic resource or performance. (Puigdevall et al., 2018).

Gainera, mudak ez dira besterik gabe gertatzen, sarritan, hizkuntza (edo kasu honetan trataera) mailako aldaketak bizitzako beste aldaketekin batera gertatzen baitira. Esan nahi baita, gerta liteke bizitzako aldaketa sakon baten ondorioz hizkuntza erreperitorioan funtzio banaketa birplanteatu beharra, beraz, batak bestea eragin dezake. Hori horrela, Pujolarrek eta Gonzalezek (2013, 143. or.) hiztunen bizitzetan mudak gertatzea ohiko den sei aldaketa une identifikatu zituzten: (a) haur hezkuntzan sartzean; (b) derrigorrezko bigarren hezkuntzan (DBHn) sartzean; (c) unibertsitatean sartzean; (d) lan munduan sartzean; (e) familia osatzean; eta (f) guraso bihurtzean. Dena den, sei une horietatik kanpo ere gertatu daitezke mudak eta pixkanakakoak izan daitezke, apurka-apurka kode berriari beste funtzio batzuk ematen joanda; ala bat-batekoak, batere ez erabiltzetik normaltasunez erabiltzera igarota. Gainera, “mudes can be triggered by language ideologies and fuelled by different motivations” (Puigdevall et al., 2018); hau da, izan daiteke hizkuntza ideologiaren ondorioz ekitea mudantzari. Geroago aztertuko dugu zer hizkuntza ideologia dituzten partaideek hitanoaren inguruan eta ideologia horietakoren batek bultzatu ote dituzten hizarako muda egitera.

Hori buruan, partaideei hitanoa erabiltzen noiz hasi ziren galdetuta, badirudi mutilen kasuan gehiegi pentsatu gabe eta modu erabat naturalean hasi zirela hitanoa erabiltzen, lagun eta adinkideen artean, baina ez daude ziur noiz. Batzuk diote DBHn sartzean egin zutela aldaketa, hamabi urte ingururekin, hots, Pujolarrek eta Gonzalezek (2013) adierazitako (b) momentuan. Beste batzuek, berriz, eskola kiroletako garaian jada hika hitz egiten zutela baieztatzen dute, bederatzi-hamar urterekin, alegia. Mutil horiek hain modu naturalean eta inkontzientean egin zuten muda prozesua, non ia jabetu ere ez diren egiten noiz eta nola egin zuten aldaketa. Baina, orain gazteagoei begira jarrita, ohartzen dira uste zutena baino are lehenago egiten dutela zukatik hikarako muda Azpeitiko mutilek; betiere nahiko modu gradualean, pixkanaka-pixkanaka, ez ezustean egun batetik bestera eta ez lagun guztiak aldi berean.

Nesken errealitatean, argi dago, hikarako muda (egotekotan behintzat) mutiletan baino berantiarago eta kontzienteago izaten da, oro har. Izan ere, ohikoena Lehen Hezkuntzan (LHn) dagoeneko mutilak elkarrekin hika hitz egiten entzutea da, ez, ordea, neskak elkarri noka aritzea; hori normatik kanpoko zerbait litzateke. Neskak ez dira normalean gaztetxotan hasten hikarako jauzia egiten, ezpada beranduago, hitanoaren egoeraz kontzientzia hartzen hasten direnean. Orduan, nesken artean hitanoa erabiltzen hastea erabaki kontziente eta hausnartua da, ez berez datorren zerbait.

(2) — Mutillek txikitatik ikasi debe ta neskak ya **bakoitzek nahi dunin**. (Ki-2, neska, hikarik ez)

— Zuk oñ ikustezu xeigarren mallako neska bat beste neska bati “hi, aizan” esaten ta ni **harritze** nau baño hola... (Ix-2, neska, toka-noka)

— Ni akorda ite naun, momentu bat eontzala, “**beinga hika inber det**”, ta hortaz hasieran jiji-jaja ta eztaiz ze... Ni hirekine (Mr-2) akordatze naun, hola, gure artien “beinga hika ingo deu, beinga hika”. Ta igual hasi ta **graziye** baño gero ya joerie hartu ta holaxe. (Ae-2, neska, toka-noka)

Nahiz eta hitanoa erabiltzeko erabakia batez ere neskek hartu behar izaten duten, parte hartzaileetako mutil batek ere (Xa-3k, hain justu ere) hartu zuen, hura ez baitzen gainerako mutil gehienen moduan hika modu naturalean egiten hasi. Hori horrela, hika hitz egiten hasteko hautua egin zuen, lehenik toka, eta urte batzuk beranduago, noka. Xa-3ren muda, gainera, ez zen norabide bakarreko aldaketa izan, ordura arte zuka egiten zioten lagunak toka egiten hasi zitzaizkiolako hikarako jauzia egin zuenean. Beraz, nahiz eta hasieran erraza izan ez, Xa-3k alde izan zituen ingurua eta gertuko harremanak aldaketa prozesua egiten ari zenean. Horixe da, hain zuzen ere, neskek hitanoa erabiltzen hasteko egiten dituzten saiakeretan behin baino gehiagotan faltan bota dutena: inguruaren

babesa eta harreman sare hikatzaileak. Haien ustez, ahaleginak egiten dituzte hitanoa erabiltzen hasteko, baina ezin diote joerari eutsi inguruak ez dielako laguntzen. Hori dela eta, emakumeen hikorako mudantza gizonena baino zailagoa dela diote, muda prozesua bertan behera gelditzen baita ingurukoek ez dietelako noka egiten eta ez dutelako norekin praktikatu. Horrez gain, neskek beste hainbat oztopo ere aipatu dituzte: antzerkia egiten ariko balira bezala jardutea, arraro sentitzea, pentsatu beharra, deserosotasuna... Hona hemen neskek egiten dituzten ahaleginei eta bidean aurkitzen dituzten oztopoei buruzko eztabaida esanguratsua:

- (3) — Guk ite deu esfuertzue askotan, adibidez poteon da iñ izen deu. Ni hasi nitzen batzugin, ta ite nun esfuertzue ta sentitze nitzen **aktuatzen**, *osea raro*, **pentsa inber** nun. **Geyo fortza** ber dan gauza bat da. (Ca-3, neska, hikorik ez)
- Nei hori pasatze zitzetan da, pasa itea. (Xa-3, mutila, toka-noka[-])
- Baño hirie **errexo** izen huan *porke* hire **inguruko** beste hotalau pertsonak hika hitz eite ziaben. Diferentie dek. (Su-3, mutila, toka-noka[-])
- Guk eztakeu **testuingurue**... (Ca-3, neska, hikorik ez)
- Ba, **aktua in berkozue pixketin**, denbora pixketin, **inkomodo** eonber den ba igual xei hillebete heure buruekin, ta ya **gero ba naturalidadin**. (Su-3, mutila, toka-noka[-])
- Baño nere ustez **hire posiziyotik** hori esatie askoz errex dek. Hi **askoz komodidade egoera baten hao, mutille izetateiken bakarriken**. (Xa-3, mutila, toka-noka[-])
- Ya, baño oso komo due dek baitare esatie “eske ez gaude ohituta ta...”. (Su-3, mutila, toka-noka[-])
- Ya, baño eztek iguala, eztek iguala hemendik ateatakun **iñok ezbaik iten hire entornuen hiri neskie izetateiken hika**, joe, in ber deken **esfuertzue nik in nianan aldin triplie dek**. (Xa-3, mutila, toka-noka[-])

Arestian aipatutako oztopo eta zailtasunak gutxi ez, eta gainera, hona Ki-2k azaltzen duen beste eragozpen bat. Inguruko mutilek ez dute serio hartzen hika egiten duenean hitanoa neskei ez balegokie moduan, mutilen zerbait soilik balitz bezala. Gai horri geroago helduko diogu beren-beregi.

- (4) Joe nik iñoiz eztet jakiñ hika hitz eiten, ta aurreko urtin hori, eskolan hitzaldi bat eman tziguela hikai buruz, eztait ze, da, “bale ba, **ikasi in ber det**”. Baño igual mutill bati iñ hika ta **enabe seriyo hartzen. Parre iteibe**, *a lo*, “**ze ai zea hika iten?**”, ta ni hor, “**joe, eziñ al det o?**” *Osea*, eztait, ikasi in nahi det. (Ki-2, neska, hikorik ez)

Hori guztia esanda, begi-bistakoa da zukatik hikorako mudantza ez dela egun batetik besterako prozesua eta pixkanaka gertatzen dela, mutiletan oro har lehenago eta naturalago; nesketan, aldiz, beranduago eta kontzienteago (gertatzen bada). Gainera, zukatik hikorako jauzia egitean oztopoak ager daitezke nonahi, emakumeen kasuan, gainera, nork bere barruan dituen segurtasun eta konfiantza faltaz gain, inguruak ez dirudi gehiegi laguntzen duenik prozesu hori errazten. Horregatik, neskek aitortu dute zaila

egiten zaiela hitanorako pausoa ematea eta ahalegin etengabea aritzea. Ildo horretan, lehenbiziko eztabaida taldeko mutilek toka egiten dute uneoro, baina ez dute nokarik erabiltzen. Alabaina, neskei ez bezala, ez zaie hain zaila iruditzen ohiturak aldatu eta noka egiten hastea. Hori horrela, elkarrizketan zehar atera ziren noka egiten hasteko proposamenak; asmoak asmo, ahaleginak ez zuen bi esaldi baino gehiago iraun.

6.2.2. Hitanoaren erabilera baldintzatzen duten irizpideak eta arrazoiak

Transmisioa eta mudantza alde batera utzita, Azpeitiko eta Urrestillako gazteen hitanoaren erabilerari helduko diogu orain. Hortaz, hika nork, norekin, noiz eta non erabiltzen duen eta ez duen jakingo dugu, izan ere, lehen esan dugun bezala (ikus 3.1. atala), hitanoak gorabehera eta xehetasun ugari ditu eta aldagai askok baldintzatzen dute erabilera, ez baita tratamendu neutroa eta ez markatua.

- (5) Ta gero **segun ze pertsona dan hika iteyozu o eztiyozu iten**, eztakit. (Su-3, mutila, toka-noka[-])

Horixe da gakoa, batzuekin egiten dela eta besteekin ez eta horren azpian dauden irizpideak azalera ateratzen saiatuko gara. Gogora ekartzeko, Alberdik (1993, 434-437. or.) hitanoa baldintzatzen duten aldagai soziolinguistikoen zerrenda egin zuen eta hauek dira faktorerik pisutsuenak autorearen ustez: kidetasuna, adin-belaunaldia, generoa eta elkartasun psikologikoa. Ikus dezagun eztabaidetako parte hartzaileak Alberdirekin bat ote datozen ala beste irizpide batzuen arabera hartzen dituzten tratamenduen inguruko erabakiak. Hitanoa erabili ala ez erabiltzeko irizpide argirik ba ote duten galdetuta, hau izan da mutil gehienek erantzun dutena:

- (6) Nei batematek hika itemait, igual dit zein dan, hika erantzungoyot. **Nik hika iteitenai, hika iteyot.** (Jo-1, mutila, toka).

Beraz, mutil partaide ia guztiek jarrera erreaktiboa dute, hau da, solaskideak erabiltzen duen tratamenduaren arabera da haien hautua. Ingelesez *audience-design* deritza jarrera hori eta solaskideari egokitzean datza. Nahiz eta Alberdirentzat inertzia ez den aldagai garrantzitsuena, aipatu aipatzen du, “hiztunaren joera maiz solaskidearen mintzamolde eta ohituretara egokitzea izaten da” (Alberdi, 1993, 436. or.). Horretan, besteak beste, dialektoen kontua atera da mahai gainera. Partaideek diote Azpeititik kanpora hitanoa ez dela asko erabiltzen, horregatik, batzuei kostatzen zaie beste herrietako lagunekin hika aritzea, batzuek beharbada ez dietela ulertuko eta, ziur, ez

dietelako erantzungo. Horixe da, hain justu ere, Alberdik (1994, 989. or.) aipatzen zuen oztopoetako bat, urruntasun dialektala. Aldagai horrek ez du berebiziko eraginik hitanoa erabili ala ez erabili erabakitzean, baina egia da hiztun batzuek haien herrian eta inguruko lekuetan soilik hitz egiten dutela hika.

- (7) Nei kiston **zalle** ite ziten [beste herrietako lagunei hika egitea]⁹. Igual txorrada bat da e baño **segun beayen euskalkiye nola dan** hika itie da. Axkoitiarra beti, nik axkoitiar danai, bai neska bai mutill, ezakit zeba, hika iteyobet. Baño, adibidez, Oñatiko nere gelako neskai... Ta mutillei eztare. (Ix-2, neska, toka-noka).

Nolanahi ere, lehengora itzuliz, Jo-1ek (6) aipuan dioen «igual dit zein dan» hori zehaztu beharra dago, batzuetan axola baitu nor den solaskidea, eta hor sartzen dira gainerako aldagai eta irizpide soziolinguistikoak jokoan. Batez ere, generoaren aldagaia, eta kontu horretan ez datoz bat mutil guztiak. Lehen eztabaida taldean, Jo-1k (6) aipuan egindako baieztapena kolokan gelditzen da, izan ere, neska batek toka egiten badiete, zuka erantzuten diote. Hortaz, ez dute «hika egiten didan orori, hika erantzuten diot» urrezko araua betetzen solaskidea neska bada, bai, ordea, mutila bada. Hirugarren eztabaida taldeko mutilek, aldiz, toka zein noka erabiltzen dute eta haien ustez, solaskideak hika egiteak are garrantzi handiagoa du neskekin hitz egiten dutenean.

- (8) **Mutillekin geyenien lehelengo hitze hika** izengoa relaziyoik eztaketen arren. **Azpeitiko mutil gazte batekin**. Neskakin ez, normalin. Nik ikustebat beak... geyo iruitze zat **neskin aldetik establezitzeala** [hitanozko harremana]. Ta neskie hika iten haste bazat, nik hika erantzungo yot. (Xa-3, mutila, toka-noka[-])

(8) aipuan beste kontu bat ere aipatzen da, solaskidearekin harremana izan ala ez. Berez, adiskidetasuna ez da ezinbestekoa bi pertsonaren artean hika gertatzeko, eta alderantziz, adiskidetasuna egonda ere, gerta daiteke hika ez jazotzea; baina, lagundu laguntzen du (Alberdi, 1994, 988. or). Partaide ia guztiek diote hitanoak konfiantza transmititzen diela eta errazago egiten dutela hika konfiantza duten lagunarekin, ezezagun batekin baino. Baina ez beti, gertatzen da lagun oso onekin zuka aritzea eta, aldiz, ez hain lagunekin edo ezezagunekin hika. Xa-3k (8) aipuan, esaterako, argi dio aurrean duena ezezaguna izanez gero, azpeitiarra, mutila eta gaztea bada, lehen hitza toka egingo diola gehiegi pentsatu gabe. Hala baieztatzen dute gainerako mutilek ere, hau da, solaskidearekin harremanik izan ez arren, ziurrenik hika hasiko direla mutila bada.

Bestetik, guztira, eztabaida taldeetan parte hartutako zortzi neskatatik bostek ez dute hitanoa apenas erabiltzen, beraz, erabiltzen dutenei galdetu diegu irizpideen gainean eta

⁹ Kortxete barrukoak egilearen oharrak dira, esaldiak hobeto uler daitezten.

haiek ere mutilen antzekoa erantzun dute ezezagunen inguruan. Aipagarria da Ae-2k esaten duena, ezezaguna mutila bada beti hika egin arren, neska bada ez diola horren erraz egiten.

(9) — **Gaztiak** dinakin, ezautze eztezen bate gaztie baldima igual-igual hika. **Mutillu baldima beti hika ta neskie baldimare % 80 hika**. Gero kontue den beak beti zuka erantzute bait ba, segun... (Ae-2, neska, toka-noka)

— Nerire jende bat toka ziten euskaldune, ezautu eta hika haste naun lehelengo momentutiken. *Porke hala ertetze ziten*. (Mr-2, neska, toka-noka)

Izatez, nahiko arraroa da ezezagunekin hika aritzea, Alberdik (1994, 988. or.) dioen moduan, nolabaiteko kidetasuna beharrezkoa baita hitano simetrikoa gertatzeko. Gainera, nahiko ziur zioen, “oro har, familiaren esparruan beste inon baino maizago ager daiteke hitanoa. (...) Familiaz kanpoko gizarteko harremanetan hitanoa tratamendu markatua da, V-ren aldean ozta-ozta erabiltzen da” (Alberdi, 1994, 983-987. or.). Aitzitik, partaide batek baino gehiagok aitortu digu haiek familatik kanpo errazago eta gehiago erabiltzen dutela hitanoa familian baino. Hots, kalean mutil guztiei egiten diete hika (Ae-2k neskei ere bai gehiengan), baita ezezagunei ere; aldiz, etxean senideekin eta lehengusuekin zuka egiten dute. Hori horrela, nahiz eta Alberdik esan zuen familian eta senideen artean egiten zela hika gehiena, badirudi gaur egun etxetik kanpora egin duela jauzi joerak eta orain hitanoa gehiago dela kalekoa etxekoa baino. Kalean bertan ere, adiskidetasuna eta konfiantza ez dira irizpide erabakigarriak hitanoa gertatzeko. Ondorioz, badirudi kidetasun psikologikoak garrantzia izan arren, solaskidearen eta hiztunaren artean dagoen harreman motak ez duela uste bezain beste baldintzatzen hitanoaren erabilera.

Horrez gain, solaskidearen tipologia eta itxura ere kontuan hartzen dituzte hiztunek hitanoa erabili ala ez erabakitzeko orduan. Izan ere, ikusi dugun moduan, hiztunek ez diote parean duten edonori egiten hika eta horretan, solaskidearen janzkera eta dagoen ingurua ere irizpide erabakigarriak izan daitezke noiz edo noiz. Halaxe zioen Anjel Lertxundik (2013) ere pasadizo batean, haren kasuan jaka bat jantzi eta erantztea izan zen hitanoa erabili eta ez erabiltzeko giltza. Hemen, berriz, bestelako baldintzak aipatzen dira:

(10) Nik **Orkatze**¹⁰ **pañolodune gona motzak**in normalin hika ingo zonat. Ta Z-ire¹¹ hika ingo zonat. (Su-3, mutila, toka-noka[-])

Nolanahi ere, berez, itxura baino garrantzitsuagoa da adina. Partaide gehienek aipatu dute errazago ateratzen zaiela hika gazteen artean —hots, belaunaldi berekoen artean—,

¹⁰ *Orkatze*. Azpeitiko herriko taberna da.

¹¹ Baserri inguruko neska bat da.

aldiz, zailago egiten zaiela adinez zaharragoei hika erantzutea. Hala ere, batek edo bestek adierazi dute helduei ere berdin-berdin egiten dietela hika, inongo erreparorik gabe. Gazteagoi begira, berriz, partaide askok hurrekin egiten dute lan eta aitortu dute mutilei hika egiten dietela, neskei, ordea, zuka. Adinaren aldagaia erabat lotuta dago tratamenduaren arau sozialekin eta atxikitzen zaizkion ezaugarriekin; hori dela eta, hurrengo atalean helduko diogu sakonago gaiari.

Bestalde, testuinguruari dagokionez, ez da gauza bera lagunartean eta festa giroan egon ala lanean eta egoera formalean; ez da gauza bera umorezko gaien inguruan hitz egin ala gai serioez aritu. Lehenbiziko egoeretan, normalean zuka aritzen dena igaro daiteke hikara baliabide estilistiko gisa, modu sinbolikoan, mezuari indar gehiago emateko. Partaide ugari esan dute hori gertatzen zaiela, batez ere, bi egoeratan: haserretzen direnean eta adarra jotzen edo txantxetan ari direnean. Bigarren egoeretan, berriz, alderantziz gertatzen da; antza, hika ez da ondo etortzen testuinguru formalekin, eta orduan, gehienez hika erabiltzen duena ere zukara igaro ohi da.

- (11) Segun ze kontestutan, adibidez, nei aste hontan pasa zat, eztaiz, ba baldimazuez pertsona batekin hitz eitea hola zeoze **konprometiduaitiken** eo eztaiz, beak hika in ta zu hasi hitz eiten da zea moztu pixkat hika iten. Porke pixkat lagunarteko zeoze eo familiarteko... **Lan inguru**en hitz eitakuen, da bea nei hika ta nei lehelengo hitz hori kostau, **beti zuka ertetze zat** eo eztaiz zeba, baño zuka. (Ek-1, mutila, toka)

Testuinguruaz eta hizketagaiaz gain, mezua helarazteko bideak ere badu zeresana hitanoaren erabileran, izan ere, idatziz ala ahoz izan ez da gauza bera. Alberdik (1993 eta 1994) ez zuen aintzat hartu aldagai hori duela hogeita bost urte ez zelako batere esanguratsua. Gaur egun, ordea, ezin da alde batera utzi bat-bateko idatzizko mezuek gazteen egunerokotasunean duten garrantzia, horrek ere baldintzatzen baitu hitanoaren erabilera. Partaide batzuen ustez, errazagoa da hika idatziz aritzea aurrez-aurre baino lotsa gutxiago ematen duelako eta pentsatzeko denbora gehiago dagoelako. Horregatik, *whatsapp* mezuetan, esaterako, hika erabiltzen dute pertsona batekin, baina gero pertsona berarekin zuka egiten dute parean dutenean. Uste hori bat dator Bereziartua eta Muguruzak (2018a, 28. or.) erakutsitakoarekin, hau da, gazte batzuk pertsona berarekin zuka hitz egiten duela aurrez aurre eta idatziz, berriz, hika (ikus 5.2.6).

Orduan, zeren arabera erabakitzen dute hiztunek hitanoa erabili ala ez? Esanak esan, partaide asko oraindik ez dira jabetzen, ez dute kontzientzia soziolinguistiko handirik eta ez dakitela diote; berez halaxe ateratzen zaiela eta ez dagoela arrazoi zehatzik.

- (12) Eske nik ustet dala **jendikin ze zea dakezun**, eske nei pasatze zat, Axkoitin gelako xei mutil nazken da hiruri iteyobet igual hika ta bestiei ez. Ta bestik geña, behin batek galde zin, “zeba nei eztizu iten?” da... **zientziyeke ezin du esplikau. Eske eztakit.** (Ix-2, neska, toka-noka)

Dena dela, ikusi dugu aldagai ugarik (batzuek gehiago eta besteek gutxiago) baldintzatzen dutela hitanoaren erabilera gazteen artean, besteak beste: solaskideak jakin eta erantzuteak, generoak, adinak, kidetasunak eta adiskidetasunak, solaskidearen itxurak eta tipologiak, eta testuinguruak eta hizketagaiak. Joan gaitzen, ordea, sakonago eta errepara diezaiogun irizpide horien azpian dauden hizkuntza ideologiei. Hitzunek dituzten uste, balio eta sinesmenetan arakatuta helduko gara lanaren jomugara: gazteek benetan zergatik erabiltzen duten hitanoa eta zergatik ez duten erabiltzen.

6.2.3. Hitanoari lotutako balioak, usteak eta ideologiak

Arestian aipatu dugun moduan, transmisioaren baitan (izan bertikala nahiz horizontala), hiztunak ez du kode linguistikoa huts-hutsean jaso eta ikasten. Kode linguistikoaz gain, hizkuntza sozializazioaren bidez transmititzen dira, besteak beste, kodea erabiltzeko arau sozialak; hizkuntzen arteko hierarkiak; eta kodeari atxikitako prestigioa, balioak, usteak eta ideologiak (Kasares, 2012, 21. or). Horregatik, hiztunek hitanoa ikasten dutenean —etxean edota kalean—, hitanoaren inguruko sinesmenak, erabiltzeko arauak eta ohiturak ere bereganatzen dituzte. Jakina, horrek guztiak eragina du hiztunengan, izan ere, ideologia horiek guztiek hiztunaren jarrerak, hautuak eta erabilerak baldintzatuko dituzte (Joly & Uranga, 2010, 185. or.). Azter dezagun, beraz, zer uste eta ideologia dituzten Azpeitiko eta Urrestillako gazteek hitanoaren gainean eta ea uste horiek zer nolako ondorioak dituzten partaideen hizkuntza praktika eta ohituretan.

Oro har, gazteek aldeko iritzia dute hikaren inguruan eta balio positiboak esleitzen dizkiete, erabiltzen dutenek eta erabiltzen ez dutenek. Hasteko, parte hartzaile guztiek argi ikusten dute hikaren eta zukaren arteko ezberdintasuna, tratamendu bakoitzak sentipen ezberdina transmititzen die eta horretan, hikak badu zukak ez duen zerbait. Hika berezia da, eta horren froga dira partaideek aipatutako berezitasunak, esaterako: **konfiantza, gertutasuna, goxotasuna, indarra, xarma, morboa, gaztetasuna, bizitasuna** eta **informaltasuna**. Gazteen aburuz, hitanoa bi pertsonaren arteko harremanaren erakusgarri da, tratamendu hori erabiltze hutsak zerbait gehiago esaten duelako hartu emanaz, zuka erabiltzeak adierazten ez duena. Hori dela eta, gehienek

aitortu dute, bereziki, konfiantza transmititzen diela hitanoak, solaskidearekin aparteko hurbiltasuna izango balute bezala, alegia, gertuago eta goxoago sentitzen direla.

(13) — **Gertutasune, lasaitasune. Ongi-etorri haundiyo** bezela igual, ez? Eztakit nola esan. Zuk pertsona bat ezautu da hika itemaizu, da *como acogiuo* bezela o, ez? **Lehortasun puntuik gabe.** (Ix-2, neska, toka-noka).

— Hola, **konfiantza rollo** bat emaiten, pixket *rollo kolegeo* bezela sortzen. (Ae-2, neska, toka-noka)

Horrez gain, iruditzen zaie hitanoa hizkera informala dela, lagunartekoa eta kalekoa, bizia eta gaztea. Horrexegatik, uste dute hitanoak aparteko indarra duela esaten denari sendotasuna emateko, txantxetarako zein haserrerako, bietarako du iriste ahalmen handiagoa hikak zukak baino. Esaten dena esaten dela, hitanoak tratamendu gisa jada badu berezko esanahia, badu “beste saltsa bat” eta horrek egiten du, hain justu ere, hizkera ez neutroa eta berezia. Esaldi berbera zuka esan ala hika esan ez da gauza bera, ez du esanahi bera; hiztunak ez du modu berean esaten eta solaskideari ez zaio modu berean iristen. Zuka, aldiz, ez dator bat aipatu ezaugarri horiekin guztiekin eta, ondorioz, ez ditu hitanoak loratzen dituen sentipenak eta emozioak pizten gazteengan. Haien iritziz, zuka hotzagoa da, zuzenagoa, neutroagoa lehorragoa eta formalagoa; ez du hitanoak duen indarririk eta berezko esanahirik. Hori dela eta, hika erabiltzeko ohiturarik ez duten hiztunek ere sarritan jotzen dute hitanora baliabide estilistiko moduan, mezuari indarra emateko.

(14) — “Gooik ba al daken?” ta “gooik ba al dakezu?” **ezta iguala.** (Su-3, mutila, toka-noka[-])

— Badauke, **tonteo, txorradita xarmagarri** hori. Emateu *katxondeo* puntu hori, hola *morbillue* bezela dake. (Ca-3, neska, hizarik ez)

— Askoz **jostariyo** bezela. (Xa-3, mutila, toka-noka[-])

— Beste zea bat, **bai bronkie botatzeko ta baita parreakore, indar geyo** zaukek hikak. (Su-3, mutila, toka-noka[-])

Gazteek tratamendu bakoitzari esleitzen dizkioten balioei eta ezaugarriei begiraturaz gero, Woolarden (2005) anonimotasunaren eta benetakotasunaren ideologiak ezin hobeto islatzen dira bi tratamenduetan. Izan ere, partaideen ustez, hitanoa bene-benetako euskara da, jatorra, kalekoa eta bizia. Gainera, leku eta komunitate jakin batekin aise identifikatzen da eta erabilera murriztuz doan heinean, are gehiago. Azpeitiko neska-mutilek euskalduntasunarekin lotzen dute bete-betean hitanoa, haien hitzetan, «zeharo euskalduna» izan behar da hika aritzeko eta hitanoa «familia euskaldun-euskaldunetatik» dator. Hau da, hika tratamendu autentikoa da, benetako euskaldunena. Aldiz, zuka hiztun

guztiek dakitenez —izan Azpeitian edo Euskal Herriko beste edozein herri euskaldunetan— ez da zerbait eskusiboa, ez da bereizgarria, ez da komunitate jakin batekin soilik lotzen. Hortaz, zuka guztiena da, baina aldi berean, ez da inorena, anonimoa da.

Hori horrela, hika-benetakoa eta zuka-anonimoa ideologia kontraerriak bat datoz, neurri handi batean, Echeverriak (2001, 351. or.) proposatutako prestigioaren eta solidaritatearen arteko dikotomiarekin (ikus 1. irudia). Haren ustez, hizkuntzaren maila ezberdinetan ikus daitezke bi ideologiak lehian, esaterako, hizkera mailan (estandarra eta euskalkia) eta tratamendu mailan (zuka ala hika). Bada, parte hartzaileek, kontzientzia linguistiko handirik izan gabe, Echeverriak (2001, 351. or.) egindako paralelismo bera egin dute, zukari euskara batua deitu baitiote behin baino gehiagotan eta hikari, aldiz, herriko euskara. Izan ere, hain barneratuta dute hika herriko hizkera dela eta euskalkiarekin batera doala ezinbestean, non ez baitakite hika estandarra ere existitzen denik. Horregatik, batzuetan hika ez den beste guztia euskara batua iruditzen zaie.

Zuka-estandarra eta hika-herrikoa baliokideekin ados egon arren, prestigioaren eta solidaritatearen arteko marrak ez dira hain finkoak, pixka bat lausotzen dira (berriro ere, guztia ez da zuria ala beltza). Argi dago zuka dela erakundeetatik bultzatu den tratamendu hegemonikoa eta, ondorioz, prestigiotsua. Hori dela eta, partaideek hitanoa jakite hutsagatik ez dute sentitzen euskara maila altuago dutenik edo euskaldunago direnik hitanoa ez dakitenak baino; are gehiago, badute nolabaiteko konplexua beren hizkeragatik:

(15) **Euskaltzaindia** jun da hiri esangoibek zea, donostiar batek hik baño hobeto zekikela igual. (Jn-1, mutila, toka).

Nolanahi ere, hitanoak ere badu prestigioa —prestigio ezkutua edo *covert prestige*— eta, akaso, gazteek hobeto baloratzen dute lagunartean hika erabiltzea zuka erabiltzea baino. Batetik, hitanoa erabiltzen ez duten partaide guztiek esan dute nahiko luketela hika egitea, desiragarria dela eta inbidia sentitzen dutela. Adibidez, Ki-2k dio hitanoa «nere *asignatura pendiente*» dela; hortaz, hika egiten ez dutenek zerbait falta zaiela sentitzen dute. Gisa horretako adierazpenak diskurtso deslegitimatzaileak dira (Ortega et al., 2016, 181. or.), uste dutelako falta zaienagatik ez direla hiztun osoak edo legítimoak. Bestetik, hitanoa erabiltzen dutenek zera diote zukaren gainean: «besterik ezean...»; baina besterik bada —hain zuzen ere, hika bada— hobe. Hika jakiteagatik eta erabiltzeagatik harro sentitzen direla adierazi dute, partaideek prestigioa aitortzen baitiote hitanoari. Ez zaie

iruditzen euskaldunago direnik hitanorik ez dakitenak baino, baina bai hizkuntza hobeto menderatzen dutela eta hizkuntzarekiko ahalmen eta botere gehiago dutela, erregistro gehiago dituztelako eskuartean. Hori dela eta, prestigioa eta autoritatea ez dira beti erakundeetatik goitik behera ezartzen, askotan aurrez aurreko harremanetan dago gakoa (Woolard, 1989, 121. or.), eta hor hikaren prestigioa gailendu egiten zaio zukarenari.

Dena dela, prestigioaren kontu hori ez da beti horrela izan, oraintsu arte hitanoa erabiltzea ez baita batere ondo ikusia egon. Alberdiren (1993, 433. or.) hitzetan, “euskaldun askoren gusturako hitanoak konnotazio txarrak ditu: ijitoen edo buhameen mintzaira, basokoen edo baserritarren hizkera, hizkuntza zakar, gordin, gogorra eta abar luzea”. Ritxi Lizartzak (2015) ere ildo beretik jarraitzen du eta dio aspaldidanik uste izan dela hitanoa deabruen eta ijitoen hizkuntza zela, itsusia, zikina eta errespeturik gabea. Hori horrela, hitanoari urte luzez egotzi izan zaizkion ezaugarrien inguruan galdetu diegu parte hartzaileei, batez ere, errespetuaren, baserritartasunaren eta zakartasunaren inguruan.

Hasteko, errespetuaren kontuari begira, ezinbestean ekarri behar ditugu mahai gainera arau sozialak eta adinak eragiten dituen gorabeherak. Arestian aipatu moduan, adina aldagai erabakigarria da hitanoaren erabileran, izan ere, hitanoa berdinen arteko eta goitik beherako hizkera da, baina ez —gehienean, behintzat— behetik gorakoa. Alegia, adinez zaharragoa denari (belaunaldi berekoa ez bada), normalean, zuka egin ohi zaio, hizkuntza sozializazioaren bidez jasotako gizarteko arauak hala agintzen dutelako. Hala ere, hitanoaren arau sozialak kolokan daude orain. Oraindik, partaide batzuek esan dute ez zaiela ateratzen zaharragoei hika zuzentzea, errespetu kontuagatik seguru asko. Hala ere, aho batez baieztatu dute ez zaiela hitanoa errespetu falta iruditzen, garai bateko araua dela eta orain ez duela inongo zentzurik, zaharkitua geratu dela.

(16) — Ta gero batzuk zaudek ohituta hiri hika hitz eñ ta beak esperoik hik zuka bueltatzie. **Errespetue**, pentsatzeibelako zaharrouei **errespetue zor diyokela**. Hori dek lehengo **eskola zaharra**, lehengo **ohitura zaharretatik** datorren gauza bat. (Ek-1, mutila, toka).

— Ba hori nei *superioridade* puntu bat iruitze zik. *Galoiek* dituk hi. Nei hika itie etzik errespetu faltie iruitzen. (Un-1, mutila, toka).

— Nere usteze etzeok ondo. Errespetue zor diyok, baño **beak hiri zor diken iguala**. (Jo-1, mutila, toka).

Antzekoa gertatzen da etxean ere. Urteetan zehar finkatu diren arau sozialen arabera, seme-alabek ezin diete hika egin gurasoei, osaba-izebei eta aitona-amonei eta badirudi, kalean baino pisu handiagoa duela arau horrek etxean. “Familiar beste inon —familiaratik

kanpo— baino asimetria (...) gehiago gertatzen dira euskaraz” (Alberdi, 1994, 984. or.). Izan ere, nahiz eta kalean beharbada helduagoei hika egin, partaideen artean inork ez dio hala egiten ez gurasoei ezta gainerako ahaideei zaharragoei ere. Partaide gehienek esan dute gurasoek ez dietela uzten haiei hika zuzentzen, errespetu falta iruditzen zaielako eta ez zaielako gustatzen. Noizbait gurasoei hika egin diotenean, «neri hola ezien/k hitz eñ e!» edo antzekoak entzun dituztela kontatu dute. Hori dela eta, badirudi hitanoaren baitan “oraindik beste hizkuntzek garai batean zuten botere semantika izozturik geratu dela” (Ozaita, 2014, 92. or.). Hala ere, badira salbuespenak, guraso gutxi batzuk debekatu beharrean, animatu egiten baitituzte seme-alabak eurei hika egitera (ez gure partaideen artean, baina bai inguruko ezagun batzuen etxeetan).

Azkena aipatutako joera horren aurrean ere, beste behin, iritzi guztiak ez datoz bat. Xa-3k dio, esaterako, hark txikitatik hika egin balie gurasoei, orain askoz hitano aberatsagoa eta sendoagoa izango lukeela, eta ziurrenik, kalean ere gehiago erabiliko lukeela. Xabier Euzkitze kazetaria, euskaltzain urgazlea eta bertsolari ohia ere iritzi berekoa da; ohikoa izan ez arren, hari semeak hika egiten dio eta uste du aukera paregabea dela hitanoa ondo ikasteko semeak kalean beste inorekin egiteko aukerarik ez duelako (Esnaola, 2006). Aitzitik, Joxerra Garzia kazetari, irakasle eta idazleak (2016) zentzugabekeria itzela dela pentsatzen du, seme-alabek gurasoek hika eginez gero, hitanoak duen funtzio nagusia galduko baitu: kidesuna markatzea.

Euskal hiztunek (ere) beti sentituko dute kideekin «nagusiekin ez bezala» hitz egiteko premia. (...) Muturreko bi joera txatxu antzematen ditut nik, hitanoaren erabilerari dagokionez. Batetik, guraso eta irakasle hiper-demokratak daude, seme-alabei eta ikasleei eurekin hika hitz egiten uztearen aldekoak. Ideologiak ideologia, astakeria latza da hori, gazte jendeari nagusiekin hika aritzeko baimena emanaz gero hitanoak ez bailuke balio izango solaskideen arteko kidesuna markatzeko. Eta gaur egun euskarak horretantxe du, erregistro informal-ludikoetan, gabeziarik larriena. (Garzia, 2016).

Bigarrenik, berez, baserriartasunak ez du ezer negatiborik adierazten, baina egia da baserriarrak arrote, zakar eta inozo samartzat hartu izan direla maiz (Legorburu, 2018, 94. or.), horregatik, lotura arriskutsua izan daiteke hitanoa eta baserriartasuna elkartzea. Eta ez hori bakarrik, hitanoa baserriarekin *de facto* lotzeak beste arrisku bat ere badakar: baserri munduaren gainbeherak hitanoaren gainbehera eragin dezake. Hau da, tratamenduaren erabilera baserri girora soilik mugatzen bada, baserri ingurua galtzen doan heinean, hitanoa ere apaltzen joango da.

Horren inguruan, alde bitako iritziak egon dira eztabaida taldeetan: batzuen aburuz, halaxe da, hitanoa baserri munduarekin eta nekazal giroko herri txikiekin lotuta dago,

neurri handi batean; beste batzuen ustez, ostera, lotura horrek ez du inolako zentzurik, herriko kaleetan bizi-bizirik dagoelako hitanoa. Lehenbizikoari helduta, partaide batzuek diote hitanoa erruz, esaterako, Errezilen¹² egiten dela eta nesken artean «majaerak»¹³ erabili ohi dutela. Horregatik, hitanoa erabiltzea «xanidadea»¹⁴ moduko hitzekin lotzen dute, baina arlote eta inozo hitzek ez bezala, aipatu kontzeptu horiek ez dute inolako kutsu negatiborik. Nolanahi ere, beste hainbat parte hartzailek diote hitanoa baserritartasunarekin lotzeak ez duela ez hankarik eta ez bururik. Halakorik dioena, ziurrenik, hitanoaren eremutik kanpoko norbait izango omen da, egoera bertatik bertara ezagutzen ez duenen bat, gaur egun hitanoa kale-kalekoa iruditzen baitzaie partaide batzuei. Hona hemen bi ikuspegiak eztabaidan:

(17)— Ze ni konturatze naun igual **kale-kaleko jendik hika eztaukela** baño **baserriko jendik badaukela** hika, ez? . (Ae-2, neska, toka-noka)

— Ba nere kuadrillan kiston kaleku dan jendie dao, ta beayen gurasuek hikan hitz eitebe. Ta gurasuke Azpeitiko kalekuek die. (Ki-2, neska, hikarik ez)

Baserritartasunarekin lokarri guztiak eten gabe, hitanoari beste nolakotasun batekin ere topatu diote lotura gazteek: abertzaletasunarekin. Hiru eztabaida taldeetan aipatzen da Orkatz herriko taberna hitanoa asko entzuten den toki gisa, antza, han guztiek egiten dute toka eta noka, ezagunei nahiz ezezagunei. Partaide batzuek uste dute hitanoarekiko konpromisoak zerikusia izan dezakeela ideologia abertzalearekin eta tipologia horretako hiztunek aiseago egingo dutela hika beste edonork baino. Bi lotura horiek, baserritartasunak eta abertzaletasunak, bat egiten dute bete-betean Su-3k (10) aipuan esandakoarekin.

Hirugarrenik, zakartasunari gagozkiola, berriro ere aldeko eta aurkako iritziak agertu dira. Oro har, parte hartzaileei ez zaie iruditzen hitanoa hizkera zakarra denik, baina egia da Azpeitiko euskara bera gogor samarra dela entzuteko eta hika hitz egitean [k] eta [tx] soinuak asko erabiltzen direla (*nitxin, gatxaudek, bagitxixin...*). Beraz, beharbada badu halako zakar ukitu bat zukaren ondoan, akaso zukak «garbiagoa» dirudi ez dituelako hain soinu gogorak. Dena dela, gehienei ez zaie hika zakarragoa iruditzen, are gehiago, batzuek uste dute zuka baino goxoagoa dela. Hala ere, badakite hitanoa zakarra den ustea egon badagoela:

¹² Errezil Hernio mendiaren magalean dagoen herri txiki bat da, nahiko baserri eta nekazal girokoa.

¹³ Azpeitiko gazteek erabiltzen duten hitza norbait baserri girokoa dela deskribatzeko. Ez du ezinbestean kutsu negatiboa.

¹⁴ Jatortasuna, naturaltasuna, xalotasuna.

- (18) Nere inguruko jendiek lotzeñ hika **bastotasunekin** bezela. Neretzat juxtu alderantziz den, **goxotasune, gertutasune**. (Mr-2, neska, toka-noka)

Ikusi berri ditugun usteak eta arauak hitanoarentzat lotura kaltegarriak dira, nabarmen. Izan ere, ez die mesederik egin hitanoaren biziraupenari adinaren eta errespetuaren inguruko arau sozialak eta erabilera mugak, batetik; baserritartasuna eta horrek dakartzan konnotazio negatiboak eta arriskuak, bestetik; eta zakarra eta itsusia den usteak, azkenik. Are gehiago, hitanoaren azpiko uste eta ideologia horiek zerikusi zuzena izan dute azken hamarkadetako gainbeheran. Hitanoari atxiki izan zaizkion baloreak atxikita, nork nahiko zuen, bada, baserri munduko tratamendu itsusi, zakar eta errespeturik gabekoa hitz egitea? Lotura kaltegarri horiek, besteak beste, eragin dute Euskal Herriko txoko askotan hitanoaren transmisioa etetea eta galtzea, batez ere, noka. Baina ez dira horiek izan nokaren beherakada ekarri duten arrazoi bakarrak.

- (19) Ez, baño momentu baten zeoze pasau zan **mutillek hika segitzeko ta neskana ez, osea**. Azpeitin esatet baitare e, **zeba mutillen hikak segiu du beti ta guri etzaku allau?** (Mn-3, neska, hikarik ez)

Galdera horrexek sortu zidan ezinegona eta jakin mina neuri ere eta horregatik erabaki nuen gai horri buruz egitea ikerketa. Erantzun bila hasita, Karlos Aretxabaletak (2016) XX. mendean zehar nokak Arratiako eskualdean (Bizkaian) izandako galera aztertu zuen, baina gainbehera eragin duten hainbat faktore orokorrak direnez, Azpeitiko beherakada azaltzeko ere balio digute. Aretxabaletak (Irueta, 2019) beste askoren artean, aipatu berri ditugun zakartasunaren eta baserritartasunaren kontuak gehiago sakondu zituen. Arratian elkarriketatu zituen hiztunen arabera, hitanoa, eta batez ere noka, bortitza, gogorra, baldarra eta mari-mutilen moldekoa da eta “emakumeak fina izan behar” duenez, “femeninoa”, baztertu egin dute, ez dute euren artean erabiltzen eta ez diete ondorengoei transmititu. Horrekin erabat lotuta, elizak hitanoa gizonkeriatzat, gordinkeriatzat eta ia bekatutzat zuen, beraz, emakumeei debekatu egin zien erabiltzea eta, ondorioz, ez zegoen nokarentzat inongo lekurik.

Ildo horretatik, genero rolen eremura egin behar dugu salto, izan ere, gizartean ezarritako genero arau zurrunez zeresan nabarmena izan dute nokaren galeran. Arestian aipatu dugun moduan (ikus 3.4. azpiatala) azaldu ditugun ezaugarri eta nolakotasun guztiak (baserritartasuna, zakartasuna, gizontasuna...) ongi datoz maskulinitatearekin, ez, ordea, feminitatearekin. Bereizketa hori argi eta garbi ikusten dute partaide batzuek eta hitanoa maskulinitatearen ikurra dela azaldu dute. Eredu horretan, hortaz, feminitatea

ez ezik, maskulinitate hegemonikoaren barnean sartzen ez dena ere kanpo geratzen da. Horrekin lotuta, Xn-3k artean hika egiten ez zuen garaiko pasadizo bat kontatu zuen. Antza, neska batek lagun homosexual bat zuen hika egiten ez zuena, eta Xn-3k artean hitanorik erabiltzen ez zuenez, hura ere homosexuala zela ondorioztatu zuen. Hau da, neska hark uste zuen hitanoa ez erabiltzearen arrazoia homosexuala izatea zela.

- (20) Nik daket *rekuerdo* bat, eztakit ze DBHtan zan, neska bat etorri zitzaitela galdezka aber gaye al nitzen, *porke* eztakit ze lagun gay zakebela ta ai ziela hitz eiten hikai buruz ta esantziola **nik enula iten hika ta ordun gaye nitzela**. Ta gure kuadrillakuek esatebenien “nik M-ri **ezin tzoat** hika iñ”, lotu itea horrekin. Osea, badala **maskulinidadien signo** bat. (Xn-3, mutila, toka-noka[-])

Alegia, hitanoaren ustezko gogortasuna eta zakartasuna maskulinitateari egotzitako ezaugarriekin ondo ezkontzen dira eta, horren baita, toka gizontasunerako atea bihurtzen da mutil gazteentzat (Legorburu, 2018, 95. or.). Halaxe dio Alberdik ere, mutil haurrari “gizonkeriak edo okerkeriak egiten hasterakoan” egin ohi zaiola toka (Alberdi, 1994, 985. or.), baina mutilak ahul eta erkin itxura badu, ez zaiola egoki etortzen toka (Alberdi, 1993, 438. or.). Zer esanik ez emakumeei, feminitate hegemonikoaren morroi izan behar dutenez, inposatu zaizkien rolak eta arauak zeharo kontrajartzen dira hitanoari egotzi zaizkion ezaugarri zabarrekin. Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa, batetik, emakumeek hitanoaren transmisioa baztertu izana urte luzez eta, bestetik, gaur egun neska askok hitanoa erabiltzeari uko egitea. Izan ere, oraindik ere hiztun batzuegan bizirik jarraitzen dute burutapen horiek:

- (21) — Nik etzakiñat transmisioyuen daon. Igual ikusi den momentu baten pixkat **bulgarro** bezela hika ta **aldea batea utzi** den, ez balorauta. **Fintasunekin** lotuta, igual **mutilletan gutxiyo** ze azkenien mutilletan ezten hainbeste igual aldau. Ze nik ikusteñat pixket generaziyo gaztiouek askoz geyo beitzeyobela **itxuriei** (...) ta igual **estilismo** hortan hika ezten sartzen beayen prototipotan. (Ae-2, neska, toka-noka)

— Nike ustet **fintasunekin** daola lotuta asko. Neri pasau zat igual parrandan da mutil bati hika iñ *sin mas*, da kuadrillako batematek esan “**jo, izen tzaite fiño, ez!**”. Baño nik igual-igual iteyot. (Ix-2, neska, toka-noka)

Baina transmisioa eta erabilera ez ziren hitanoari egotzitako ezaugarriengatik bakarrik eten, hitanoa ukatzearen azpian badago beste zerbait ere:

- (22) ...**emakumie etxien geldiu** dan horrekin ta **gizona lanea jun danien, gizonak mantendu** in dun zerbait izetie bazaken eta emakumie azkenien etxien, **etxeko gauza bat** bezela geldiu, ez? Eukitzie bazaken lotura puntu bat, azkenien, urte asko izen ditun emakumie etxin eon dana ta kalin gizonak eon dinak o lanin, lan mundun. Ta hortaz gizonak gizonan artien hika hori mantendu deben momentutik eta emakumie etxin bakarriken. Ta gero ba **emakume-gizon mallaketa hortane**, ez ba? **Gizonak hartu bañabe hikaz hitz eiteko zea, ba emakumik ez**. Ez? Etzakiñat, ontxe asma deten teori bat den e. (Ae-2, neska, toka-noka)

Bada, ez, ez zen Ae-2ri orduantxe bururatutako teoria besterik gabe eta, ez, ez zebilen batere oker. Modernitatearekin gizonak etxe inguruko fabriketara joan ziren lanera, esparru publikora eta han gainerako gizonekin toka aritzen ziren. Aldiz, emakumea etxean gelditu zen, esparru pribatuan, noka hitz egiteko aukera handirik gabe. Beitiak (2017, 155. or.) ere argudio bera eman du nokaren galera azaltzeko:

Emakumeek sozializazio esparru gutxiago izan dituztela eta zituztenak mundu pribatu edo ezkutukoagokoak direla esan daiteke. Gizonen sozializazio esparruak aldiz, gehiago izateaz gain publikoak dira kalean ematen direlako. Honekin beraz, noka mundu pribaturantz abiatu zela esan daiteke eta tokak mundu publikoan iraun zuela. Modu honetan noka berez galdurik ez dagoen arren galdurik dagoela dirudi zirkulu pribatuetan -etxeko giroetan, meza osteko tertulietan- mantendu delako soilik. (Beitia, 2017, 155. or.)

Echeverria (2003) eta Aretxabaleta (2016) ere ildo beretik doaz, baina haiek diote baserriko emakume batzuk etxean gelditu beharrean, hirietara joan zirela neskame. Hirian gehienetan testuinguru erdaldunetan aritzen ziren emakumeak lanean, beraz, hitanoa ez ezik, euskara bera ere alde batera utzi zuten, “genero diskriminazioa larruazalean bizi zuen emakumeak gizartearen arauetatik kanpo ez geratzeko jokabideak azkarrago hartzen zituen: hitanoak baserritar egiten banau zuka egingo dut, eta euskaraz egiteak ere baserritar egiten banau, gaztelania hartuko dut hizkuntzatat” (Irureta, 2019). Izan ere, emakumeak neskame lan egiten zuten bezeroekin adeitsu eta atsegin izan behar zuten eta hitanoaren inguruan zeuden balio eta sinesmenak ez zetozen bat jokabide begirunetsu horrekin.

Under these circumstances, it seems likely that Basque women would avoid using *hi*, which is the most pragmatically salient marker of the vernacular Basque that had been stigmatized for so long. In jobs where customer service is highly valued, women would understandably want to avoid sounding coarse or vulgar, and instead would use linguistic forms they perceived to sound more polite or sophisticated, such as Spanish or *zu*. (...) By avoiding *hi*, women hope to avoid being perceived as impolite, crass, and uneducated. (Echeverria, 2003, 407. or.)

Euskarari uko egin eta gaztelaniara jotzeko joerari *ispilu zaletasuna* deitu izan zaiola esan dugu lehen ere (ikus 3.4. azpiatala). Joera horren arabera, emakumeek kanpoko hizkuntza modak koptatu ohi dituzte prestigioa lortzeko, zenbaiten ustez (Azurmendi in Legorburu, 2018, 32. or.), emakumeek ez dutelako behar adinako nortasunik. Halako argudioetan oinarrituta eraiki da emakumeari euskararen galeraren errua egozten dion diskurtsoa (ikus 3.4. azpiatala). Eta eztabaida taldeetako testigantza batzuk (guztiak mutilenak) ere bide bera urratu dute, hau da, uste dute emakumeen errua izan dela noka galtzea eta indartzeko ahaleginik ez egitea. Ez diete inori pertsonalki errurik egozten,

baina azken finean, orokorrean, emakumeen errua dela diote. Mutil parte hartzaile batzuen iritziz, batez ere, emakumeei dagokie noka berreskuratzea eta erabiltzea, emakumeak dira galeraren erantzule bakarrak, beraz, haien ardura da eta ez gizonena.

(23) *Eske* zueke eztezue gero **zuen partetik ezerre jartzen hika segitzeko**. Errenditze baldima zeate, ezpazue nahi. Hola segitze bazue galdu ingoa. Bai, **zueatik baldima galdu ingoa**. (Su-3, mutila, toka-noka[-])

Zenbait neskak, leporatutakoaren aurrean, aitortu dute neurri batean egia dela, batzuetan ez direlako behar bezain beste saiatzen hika egiten. Dena den, tinko defendatu dute neskak eta mutilak ez daudela egoera berean eta ez dituztela hitanoa jasotzeko eta erabiltzeko aukera berdinak. Hori horrela, nokaren galeraren arrazoi nagusia transmisioaren etena dela iradoki dute, etxekoa zein etxetik kanpoko. Alegia, oro har, neskei ez zaiela hika egiten, izan ere, neska batzuek etxean jaso arren, etxetik kanpo inor gutxik egin izan diete noka. Esaterako, eskolan, hau da, hurrek eta gazteek eguneko ordu ugari igarotzen dituzten lekuan. Neska parte hartzaile guztiek esan dute eskolan irakasle askoz gehiagok egiten dietela hika mutilei neskei baino, beraz, Bereziartuaren eta Muguruzaren (2018a, 27. or.) ikastetxeetako datuak bat datoz parte hartzaileek azaldu dutenarekin (ikus 5.2.4. azpiatala). Neskei irakasle oso gutxik eta oso noizean behin egin izan omen diete noka klasean; mutil partaideei, aldiz, irakasle ugari zuzendu izan zaizkie toka (gizonak gehiago, baina baita emakumeak ere) eta, gainera, sarritan ikasleek eurek toka egin izan diete irakasle gizonaezkoei. Hori horrela, eskolan neskek noka ez dute ez jaso eta ezta erabili ere, eta mutilek, berriz, toka jaso eta hitz egin, biak egin dituzte.

Eztabaida taldeetako hainbat partaide hurrekin eta gaztetxoekin aritzen dira lanean (batzuk irakasleak dira, besteak aisialdiko begiraleak, gizarte hezitzaileak, kirol entrenatzaileak...) eta nahiz eta askok —bereziki, neskek— egoera salatu, aitortu dute eurek ere horixe bera egiten dutela; hau da, ume eta gaztetxo mutilei toka egiten dietela, baina neskei beti zuka.

(24) — Ludotekan lanin ai naiz ta nik eztakit umiei hika iñ o zuka iñ ta haste naiz ta **mutillei bukatzet hika iten ta neskai zuka iten**. Ni ai naiz esaten nere edadekuei eztiyotela hitz eiten beayek eztebelako hitz eiten ta txikiyei mutillei hitz iñ iteyot. **Horre nire gaxki ai naun**. (Su-3, mutila, toka-noka[-])

— **Neskana raruo** itea. Eske adibidez zuk oñ ume txiki bati, neska bati, ingo baldimaziyozun neskan hika, **nei rarue ingo ziten**. Baño mutillei ingo baldimaziyozun etziten inportako. Baño neskai ingo niyon **“ui!”**. (Mt-3, neska, hikarik ez)

Azken aipuari dagokionez, bi kontu azpimarratu nahi nituzke. Batetik, nahiz eta Su-3 (23) aipuan neskei egotzi noka ez erabiltzearen errua, (24) aipuan zuzendu eta dio <horre

nire gaxki ai naun»; alegia, mutilek ere badutela nolabaiteko erantzukizuna. Beste parte hartzaile gehienen iritziz ere, guztiena da noka berreskuratzearen ardura, neskena zein mutilena eta ez du zentzurik ardura nesken gain soilik uzteak. Bestetik, Mt-3ren hitzetan, Echeverriak (2003, 407. or.) dioten moduan, “*zu becomes the pragmatically unmarked form used by women, or for speaking to women*”, izan ere, noka tratamendu markatua da tokaren ondoan. Markatua, arraroa eta ezohikoa delako ez da erabiltzen eta erabiltzen ez delako da, hain justu ere, markatua, arraroa eta ezohikoa. Batak bestea dakar, ezinbestean. Beraz, argi dago: neskek hitanoa etxean jaso ezean, ez dute etxetik kanpora ikasten, mutilek ikasten duten moduan, nokak kalean oso presentzia gutxi duelako. Baina etxean jasota ere, kalean ez dutenez norekin egin, lotsa, segurtasunik eta konfiantzarik eza sentitzen dute neskek eta, ondorioz, ez dute erabiltzen. *Dabilen harriari, ez zairo goroldiorik lotzen*, baina ez dabilenari bai, eta badirudi nokari goroldioa itsatsi zaiola ez erabiltzearen ondorioz. Izan ere, parte hartzaile batzuek esan dute noka toka baino zailagoa dela, aditzak jokatzeko ez omen da hain erraza, eta horregatik, ez direla ondo moldatzen emakumeei hika egitean.

Ikusi besterik ez dago tokak nokaren ondoan duen indarra, sendotasuna eta onarpena. Eta horren harira, orain arte ziurtzat jo dugun zerbait jarri nahiko nuke zalantzan. Arestian esan dugu, eta berriro esan berri dugu, transmisioaren kontuan, mutilek hitanoa bai ala bai ikasten dutela (izan etxean edo kalean) eta neskek, berriz ezetz. Baina ez da egia, edo ez behintzat egia osoa. Izan ere, neskek —mutilek bezalaxe— toka etxean ikasi ezean, kalean ikasten dute; ez beharbada erabilia, baina bai entzunda, mutilen arteko harremanetan etengabe presente dagoelako. Eta mutilek —etxean noka jaso ez duten neskek bezalaxe— ez dute nokarik ikasten etxetik kanpo, kalean ez duelako ia presentziarik eta oso gutxi entzuten delako, batez ere, gazteen artean. Bi moldeen arteko ezagutzan eta jakintzan dagoen aldea dela eta, tokak gain hartu dio nokari, eta baita zukari ere, egoera eta eremu batzuetan. Gaur egon, gero eta ohikoagoa da taldean toka aritzea, mutilek neskei toka egitea edota nesken artean ere toka aritzea (ikus 5.2.6 azpiatala eta 10. taula).

Lehenbizikoari dagokionez, taldean toka aritzeari alegia, nahikoa kurioa da, berez, hitanoa bi pertsonaren artekoa delako eta ez taldekoa, baina erruz entzuten da. Gainera, batzuek hain dute barneratua hitanoa, non ez diren orain arte konturatu jatorriz ez dagoela taldean erabiltzerik. Mutil partaideek aitortu dute mutil kuadrillan daudenean beti egiten dutela toka, nahiz eta lagun batekin baino gehiagorekin hizketan aritu. Taldean neska-

mutilak nahasian daudenean, zukara igarotzen direla esan dute nahiko ziur, baina neska-mutil kuadrilla behatuta (ikus 6.1.2. eta 6.1.3. azpiatalak), ez nuke esango beti hala gertatzen denik. Sarritan, neskak eta mutilak elkarrekin egonagatik, mutilak toka aritzen dira generiko moduan, akaso konturatu ere egin gabe. Oro har, neskek esan dute ez zaiela gehiegi ardura, baina beharbada mutilei esan egingo lieketela haiek ere taldean daudela eta kontuan hartzeko.

(25) Guk *igual* kontzientzi gehixo dakeulako, baño Azpeitiko mutillek *generalien, ni de palo*. Hika mutillena pluralien ta yasta. **Elukebe zuka ingo neskak badaudelako**. (...) Ba iruitze zait askoz *exkluyenteo* dala “ellos” esatie baño, osea “ellos” *exkluyentie* da baño formalki hala dao artxibauta. Baño **mutillienien hika oindik eta exkluyentio** iruitze zat pluralien ibilita. (Xn-3, mutila, toka-noka[-])

Taldean gertatzen denari buruz esan berri duguna neska-mutilen edo neska-neskaren arteko elkarrizketetan ere islatzen da. Toka nokari eremua irabazten ari zaio harreman horietan, izan ere, gero eta gehiagok —mutilek zein neskek— noka egiten diete neskei. Joera horren inguruan partaideek diote, batetik, hiztun askok nokarik ez dakitela eta toka bakarrik ezagutzen dutela; eta bestetik, hika-zuka elkarrizketak deserosoak eta arraroak direla. Hots, mutilei neska bat hika zuzentzen bazaie, batzuetan toka ateratzen zaie, hika-zuka elkarrizketak erosoak ez direlako, baina noka ez dakitelako. Neskek neskekin ere antzera, noizean behin hika hitz egin nahi badute elkarren artean kidetasunezko eta konfiantzazko harremana eratzeko, noka ez dakitenez, toka egin behar. Gure eztabaida taldeetako partaideen artean ez dira gehiegi gertatzen halako egoerak, baina inguruan ikusi eta entzuten dituztenez, iritzia eskatu diegu.

Amaieratik hasita, parte hartzaile gutxi batzuk esan dute neskek nesken artean toka egiten entzutea ez zaiela batere gustatzen, «zeharo bastoa» iruditzen zaiela. Arrazoitzat eman dute tokak bereizgarri duen [k] soinuak indar asko duela eta oso hizkera gogorra dela. Hala ere, neska bat mutil bati toka zuzentzea ez zaie horren gogorra iruditzen. Kontraesana dirudi, izan ere, azken finean, bi kasuetan toka egiten duena neska da eta aldatzen den bakarra solaskidearen generoa da. Kontua da, oso barneratuta dagoela noka-emakume**k** (eta ez emakume**ari**) eta toka-gizon**ak** (eta ez gizon**ari**) lotura; hau da, hiztunek berez badakite ez dela hala, baina haien diskurtsoen arabera, badirudi sinesten dutela noka emakumeek egin behar dutela eta toka gizon**ek**. Baina ez du zentzurik parekatze horrek, hitanoaren moldea ez baita aldatzen igorlearen generoaren arabera, hartzailearen arabera baizik. Beraz, toka eta noka, biak dira bai emakumeenak zein gizonenak. Partaide batzuek, ordea, ez dute hain argi ikusten:

(26) Eske ezta hola, **neskana da neskana ta mutillena da mutillena**, ta ordun neska bat aitzezunin mutillenakin rarue itea. (Ca-3, neska, hika ez)

Toka-noka nahastearekin jarraituta, neskei galdetu diegu ea axola zaien mutilek eurei toka egitea ala ez zaien ardura, eta mutilei joera hori zer iruditzen zaien itaundu diegu. Partaide batzuei ez zaie batere gustatzen neskek mutilei toka egitea: pare bat neskak diote ezin dutela jasan, eta haiei toka egitekotan, askoz nahiago dutela zuka egitea; mutil batek aitortu du berari ere ez litzaiokeela gustatuko norbaitek hari noka egitea; eta beste mutil bati zeharo tristea iruditzen zaio, horrela jarraituz gero, hitanoaren aberastasuna galduko delako. Beste parte hartzaile batzuek, berriz, ez deritzote horren gaizki: hiru neskak esan dute «okerra» iruditzen zaiela eta atentzioa ematen dietenez, batzuetan saiatzen direla zuzentzen, baina ez zaiela gehiegi axola eta nahiago dutela toka egitea zuka egitea baino. Azkenik, begira beste partaide batek zer dioen:

(27) Eluke molestau ber, ze da *asunto* bat *de* “ez ez, **nerre sexue hau da ta ezin diazu beste era iñ, porke ni enaiz neska bat o ni enaiz mutil bat**”. Eske berez **kiston bereizketie** iruitze zat, oso **sexu bereiztallie**. Hizkuntza mota **bastante sexista** iruitze zat. (Xn-3, mutila, toka-noka[-])

Izan ere, hitanoak oinarri-oinarrian du genero bereizketa binarioa, esan bezala, solaskidearen generoaren arabera modu batera edo bestera jokatzen direlako aditzak. Auzo hizkuntzekin alderatuta, maiz esan ohi da euskara ez dela hizkuntza sexista, baina euskararen barnean ere badaude erabilera sexistak, hitanoa, esate baterako (Barquin, 2008, 13. or.). “Genero-desberdintasunak erdi neutralizatzen dituen hizkuntza batek (...) ez gaitu sexuaren arabera hainbeste banatzen: *todos* esanda ez bezala daude emakumeak ordezkaturak *denok* esanda. Hala ere, euskararen hezurduran badira han-hemen sexismoaren gainezkabideak, matxismoari erakargarriak egiten zaizkion talaiak, hitanoa bereziki”. (Lertxundi, 2018).

Hitanoan genero bereizketa eta bazterketa hiru modutan islatzen da: lehenik, gramatika egiturari, bi forma bereizi daudelako (toka eta noka); bigarrenik, solaskidearen parean, itxurari begiratuta soilik erabakitzen delako mintzakidea emakumea ala gizona den (gehiagorako aukerarik gabe); eta azkenik, talde mistoetan, lehen esan moduan, askotan tokara jotzen delako. Partaide gehienak ez zeuden horretaz ohartuta eztabaida taldeak egin aurretik, eta asko ez dira jabetu egin ondoren ere. Hala ere, parte hartzaile batzuk elkarrizketan ari ginenean konturatu ziren eta zer pentsatua eman zien. Batek zioen, nahiz eta kontziente den hitanoak generoak bereizten dituela, hark guztiei egiten diela hika.

Beste batek, berriz, aitortu zuen hitanoa izugarri gustatu arren, hizkera atzerakoia eta tradizionalista dela eta jendea kanpo uzten duela:

- (28) Aber baño oso **atzerakoie** da. Garai hoietan etzeon ez genero desberdintasunen aldarrikapenik, ez hiru genero ta oin dauden gauza haue danak, ta ordun **oañ konfliktu batzuk sortzeie garai baten etzienak mahai gañien jartzen**. Adibideik garbiyena **genero binariyuna**. Eztana ez mutil ta ez neska sentitzen, aber ze inber dun. Pentsatzen jarrita, esatet, **zertako segiu ber du hitanuek?** (Ca-3, neska, hizarik ez)

Hitanoaren nolakotasun sexista kontuan izanda, Ca-3k zalantzan jartzen du ea tratamendu horrek jarraitu behar duen ala ez, ea zenbateraino merezi duen mantentzeak eta berreskuratzeko ahaleginak egiteak. Izan ere, haren iritziz, hitanoak ez du bat egiten gaur egungo aurrerapenekin eta mundu ikuskerarekin, nolabait zaharkituta gelditu da, eta ezinbestean mantentzea tradizioan erortzea litzateke. Horren harira, berorika tratamendua jarri zuten adibidetzat:

- (29) Galtziena, **galtzea destinata** daola ta penie ta hori dana, baño hori da, adibidez lehen **berorika** bezela, hori galdu da. **Señale on bat** igual izen laike berorika ya ez ibiltzie, **klase zeaik eztaola**. (Xn-3, mutila, toka-noka[-])

Paralelotasuna eginda, hitanoa galduko balitz, esan nahiko luke genero bereizketarik edo binarismorik ez legokela? Jakina ezetz. Ingurura begiratu besterik ez dago, hitanoa ez dagoen lekuetan ere bitan soilik bereizten direlako generoak. Baina egia da hitanoak are gehiago indartzen duela bereizketa eta binarismoa, nor den emakumea eta nor gizona begi hutsez epaitzen delako eta bi genero soilik onartzen direlako. Horren aurrean zer, orduan? Zer egin, indartu ala galtzen utzi? Kontua ez dago hain argi.

- (30)— Igual ber da hikan **regeneraziyo** bat? Igual galdu inberko luke? Erronkie da **gauza tradizional bat nola ekarri gaur egunea**. (Xn-3, mutila, toka-noka[-])
- Nere ustez da **euskerin altxor bat**, hala daona balorauta ta apreziauta, **benetan indartu ber dana** alde batetik. Baño bestetik pentsa ber dana benetan, *osea* berorikakin bezela, hor klase desberdintasune nabarmena islatze zun, ez, azkenien? Ba honekin iguala. Osa ordun, **alternatiba bat** billau? Ba eztakit **zemateño merezi dun** alternatiba bat billatzie. “Tradiziyuen hor *erre que erre* ingo deu”, pff. **O aldau, o laga**. (Ca-3, neska, hizarik ez)
- Kontue da **gauza tradizional bat nola ekarri gaur egunea**. (Xn-3, mutila, toka-noka[-])

Horratx erronka, nola ekarri historia luzeko tratamendua gaur egungo gizartera inor bazter utzi ez dezan. Horretarako guztien artean ahaleginak eta saiakerak egitea ezinbestekoa izango da. Ikusi dira han-hemenka hitanoa moldatzeko proposamenak —idatziz, batez ere—, esaterako, *-nk* forma erabiltzea, toka ala nola erabili beharrean (*aizank, gitxink, zaudenk...*); baina oso astuna eta nekagarria da horrela aritzea. Beraz,

beharbada, momentuz behintzat, ez da lortuko hitanoaren azpian datzan genero binarismoa hausterik. Hala ere, hitanoaren alde egiteko arrazoiak egon badaude. Lehena, eta nagusia, partaideek esan bezala, hitanoa «euskarak duen oparia eta altxorra» da eta tratamendua galtzea, hizkuntzaren aberastasuna galtzea litzateke. Bigarrena, euskarak lagunarteko hizkera informalerako duen baliabide paregabea da hitanoa, gaztelaniara horrenbeste jo beharrik izan gabe. Hirugarrenik, emakumeak hizkuntzaren bidez ahalduntzeko bidea ere izan daiteke. Izan ere, hitanoa tratamendu erabat maskulinizatua da, eta horren kariaz, gizonezkoen artean erabiltzen da gehien. Eta alderantziz, gehien gizonezkoen artean erabiltzen delako dago hitanoa eremu maskulinoari zeharo josita.

There is an iconic relationship between hika and masculinity. Hika comes to be seen as essentially linked to male speakers and masculinity, use of hika by women is pushed to the periphery where its social meanings become much more ambiguous. Certainly, these associations with hika and zuka are socially constructed and continually negotiated. Just as Basque women have challenged traditional gender roles in other cultural spheres, it is possible that they can reappropriate the social meaning of hika in such a way that it can express a ‘feminine’ as well as a ‘masculine’ voice. (Echeverria, 2001, 358. or.).

Hori horrela, emakumeak eta emakumeei noka egiten hasteak hitanoaren, tokaren eta izate maskulinitatearen arteko korapilo estua lausotzea ekarriko luke. Horri esker, emakumeak hitanoan zuten eremua berreskuratzeko gai izango liriateke, hizkuntzaren bidez harremanetan boterea areagotzeko eta sendotzeko, hain justu ere. Beste modu batean esanda, “jada emakumeena —gazteena behintzat— ez den hitanoan muturra” sartzeari, galdutako esparru linguistikoa berreskuratzea izango litzateke (Legorburu, 2017, 104. or). Modu horretan, akaso, noka ere, toka bezalaxe, normala bihurtuko da, tratamendu naturala eta ez markatua.

7. Ondorioak

Lan honen helburua Azpeitiko eta inguruko gazteek hitanoarekin duten hartu emanaren hiru dimentsioko argazkia egitea izan da: luze-zabalean, zenbat eta norekin erabiltzen duten; eta sakonean, zer uste eta ideologia dituzten. Luze-zabalekoarekin hasita, argi dago hitanoak azken aldian behera egin duela alderdi guztietan: lurraldearen hedaduran, hiztun kopuruan eta erabileran. Azpeitiko datuei erreparatuta, oraindik hamar elkarrizketatik bi hika izan arren, beherakada begi bistakoa da, batez ere, belaunaldien eta generoen artean. Labur-labur esanda, helduek gazteek baino gehiago egiten dute hika eta gizonek emakumeek baino gehiago, nabarmen. Bi beherakaden oinarrian, ordea, arrazoi bera dago: transmisioaren etena. Hitanoaren belaunez belauneko jarraipena, bereziki nokarena, bertan behera gelditu zen XX. mendean faktore ugariatik. Batetik, industrializazioarekin, gizonak inguruko lantegietara joan ziren lanera eta emakumeak, aldiz, batzuk etxean gelditu ziren eta beste batzuk hirira joan ziren neskame. Bestetik, hitanoak, eta bereziki nokak, zuen ospea ez zen batere ona, ijitoen hizkera zakar eta zabarra zela sinesten baitzen. Hori gutxi ez, eta feminitate hegemonikoari ezarri zaizkion ezaugarriek eta rolek talka egiten zuten (eta dute, oraindik ere) hitanoaren ustezko gizentasunarekin.

Hortaz, argi dago, hipotesietan adierazi bezala, genero rolek eta arauak eragin zuzena izan dute tokaren indartzean eta nokaren galeran. Izan ere, horregatik guztiagatik, modernitatearen garaian, noka emakumearekin batera etxean giltzapetuta eta hirietako kaleetan galdua gelditu zen. Tokak, berriz, ez zuen etxe giroko ahalmenik galdu eta, gainera, indarra hartu zuen lantegietan eta kalean (Echeverria, 2003, 407. or.). Alegia, noka zeharo ahuldu zen eta toka, ostera, mantendu ez ezik, indartu ere egin zen, hitanoari lotutako nolakotasun gehienak genero maskulinoari egozteak berez indartzen baitu tokaren erabilera eta ahultzen nokarena, emakumeei ez baitagozkie, ustez, halako tasun basatiak.

Desoreka hori gaur egun ere argi eta garbi islatzen da. Kalean toka bizi-bizirik dago eta noka ia desagertzeaz. Horregatik, etxean, kalean zein eskolan mutilei askoz gehiago egiten zaie hika neskei baino; eta horrexegatik, etxean hitanorik jasotzen ez duten hiztunak gai dira harreman horizontalen bidez toka ikasteko, ez, ordea, noka, ez baitu ia presentziarik kalean. Baina baita beste aldera ere, mutilek gehiago jasotzen dutelako dago

toka indartsuago kalean eta neskek oso gutxi jasotzen dutelako dago noka hiltzear. Arestian esan bezala, batak bestea dakar etengabe, gurpil zoroa bailitzan.

Hori horrela, toka mutilen artean eta eremu maskulinoan jaun eta jabe da Azpeitian eta anaitasunezko harremanak eraikitzeke baliatzen dute tratamendua. Izan ere, hitanoaren erabilera baldintzatzen duten irizpideei dagokienez, nahiz eta mutil gehienek inertzia eta jarrera erreaktiboa azpimarratu, «hika egiten didan orori, hika erantzuten diot» araua betetzen dute solaskidea mutila bada, ez, ordea, neska bada. Hitanoa egiteko solaskidearen adiskidea izatea ez da beharrezkoa, gutxieneko kidetasuna partekatzea aski da, eta badirudi azpeitiarra, gaztea eta mutila izatea nahikoa kidetasun elementu badirela harremana toka hasteko. Baina mutil gehientzat generoa irizpide erabakigarria da hika ala zuka hautatzeko. Nesken kasuan, gehienek ez dute hitanorik erabiltzen etxean eta eskolan nokarik jaso ez dutenez, ez dakitelako eta ez dutelako kalean ikasteko aukerarik izan. Etxean noka ikasi dutenek jakin badakite, baina ez dute norekin erabili edo ahalegina egiten dutenean lotsa, segurtasunik eza, artifizialtasuna eta antzeko sentimenduak bizi dituzte. Gainera, uste dute testuinguruak ez diela askorik laguntzen, ingurukoek ez dietelako noka egiten eta eurak saiatzen direnean, gutxietsi egiten dituztelako.

Hori dela eta, parte hartzaileetako neska gehienek hitanoa hizkuntza praktika jakin batzuetan bakarrik erabiltzen dute eta ez egunerokotasunean elkarrizketa osoetan. Horixe bera gertatzen da mutil batzuen artean nokarekin ere, alegia, egoera oso zehatzetan baino ez diete neskei noka egiten. Horregatik, badirudi nolabaiteko kode alternantzia dagoela zukaren eta hikaren artean (mutilen arteko elkarrizketetan salbu). Beste modu batean esanda, batzuetan gazteek tratamenduak txandakatzen dituzte (neskek toka eta noka eta mutilek noka) esaldi edo elkarrizketa baten baitan baliabide estilistiko gisa, esan nahi dutenari indar gehiago emateko. Normalean toka edo noka edo biak erabiltzen ez dituzten hiztunak hitanoaz baliatzen dira, bereziki, adarra jotzen umorea adierazteko eta haserretzean amorrua.

Horrez gain, hitanoa erabili ala ez erabiltzeko aldagai soziolinguistikoetan, beste zerbait ere deigarria egin zait. Orain arte hitanoa oso etxeko eta familiako tratamendutzat jotzen bazen ere, uste dut etxezuloetik kalerako jauzia egin duela, orain gazteek senideekin eta familiako gainerako kideekin baino aiseago hitz egiten dutelako hika kaleko ezagun zein ezezagunekin. Horregatik, bada nolabaiteko kontraesana, izan ere, gazteek zalantzarik gabe diote hitanoak konfiantza transmititzen dietela, baina ez dute hika egiten

lagunik eta seniderik hurbilenekin, eta aitzitik, bai, topo egin berri duten kaleko ezezagun batekin.

Horrekin batera, itxurak ere badu garrantzia solaskideari hika egin ala ez egin erabakitzeke, partaide dezentek lotu baitute hitanoa baserritartasunarekin eta abertzaletasunarekin. Eta itxuraren hari mutur horrek zuzenean garmatza gazteen ideologiaren, usteen eta balioen korapilora. Hipotesietan aurreikusi bezalaxe, gazteek bi aldeetako ideologiak dituzte hitanoaren inguruan, baina aldekoak gailentzen ari dira. Hasteko, hitanoak badu nolabaiteko prestigioa, izan ere, tratamendu hori hitz egiteko gai direnak benetako euskalduntzat hartzen dira, hots, betiko euskaldun jatortzat. Hori horrela, naturaltasuna, freskotasuna, kideasuna, adiskideasuna eta konfiantza gisako hitzak esleitzen zaizkio hitanoari. Alegia, hitanoa benetako hizkera iruditzen zaie, autentikoa, kalekoa eta bizia. Zukaren justu kontrakoa da, zuka neutroa da, formala eta hotza. Beraz, tratamenduen mailan ere —herriko hizkera eta hizkera estandarren mailan bezalaxe— agerian geratzen da benetakotasunaren eta anonimotasunaren arteko dikotomia (Woolard, 2005). Hitanoari kode autentikoak dituen ezaugarriak atxikitzea erakargarria izan daiteke, baina aldi berean arriskutsua ere bai, hitanorik ez duen hiztuna deslegitimatzen eta gutxiesten delako.

Autentikotasunarekin batera, beste hainbat ezaugarri eta balio ere esleitzen dizkiote partaideek hitanoari, eta hemen dator aldaketa. Hipotesian aurreratu bezala, oraintsu arte hitanoa hizkuntza zakar, zikin eta zabartzat hartzen bazen ere, partaide askok balioespen negatiboak ukatu eta ezaugarri positiboak aipatu dituzte hitanoaren mesedetan, esate baterako: konfiantza, gertutasuna, goxotasuna, indarra, xarma, morboa, gaztetasuna, bizitasuna eta informaltasuna. Horrek ez du esan nahi jada hitanoari ez zaiola ezaugarri negatiborik atxikitzen, izan ere, oraindik hiztun batzuen buruetan hitanoa hizkera gogorra eta zakarra da eta, horregatik, ez da ondo etortzen emakumeen eta neska gazteen ahoetan. Beraz, egia da, hitanoaren inguruan hiztunek dituzten ideologiek, usteek eta balioek zeresana dute tratamendua aukeratzerakoan eta erabileran erabat baldintzatzen dute.

Paradigma aldaketa horren baitan, gaur egunera arte hitanoaren inguruan indarrean egondako arau sozialak ere ezbaian daude. Izan ere, belaunaldi zaharragoetan, gazteak helduei hika zuzentzea errespetu faltatzat hartu izan da urte luzez, baina gazteei ez zaie hala iruditzen, inondik inora ere. Gazteek auzitan jarri dituzte orain arteko arau sozialak, aurkako jarrera (*contestation*) eta erresistentzia (*resistance*) agertu dute eta ez daude konforme. Belaunaldien arteko talka horretan, gazteek helduei lagunei bezalaxe hitz

egiteak hitanoak berez duen funtzioa galduko duela uste du Joxerra Garziak (2016). Eta neurri batean bat nator, gazteek beti bilatzen baitute ezberdin hitz egitea lagunekin eta gurasoekin edo helduekin. Baina uste dut, tratamendu bera izateak ez duela ezinbestean ekartzen modu beran hitz egitea; hau da, biekin hika arituta ere, ezberdin jardun daitekeela deritzot.

Beraz, badirudi hitanoa ulertzeko eta bizitzeko beste era bat datorrela belaunaldi berriekin. Alegia, gazteek egoera irauli dute, orain —lehenago ez bezala— hitanoa oso ongi baloratzen eta asko estimatzen dutelako eta, gainera, prestigioa aitortzen diotelako. Baina, aldi berean, batetik, tokaren eta nokaren eta, bestetik, nesken eta mutilen arteko erabileraren arrakala gero eta handiagoa da. Askotan, bi arrakalak elkarren ondoan jarri dira eta toka-gizona noka-emakumea parekatzea egin da. Baina, arestian esan bezala, parekatze horrek ez du zentzu handirik, hitanoan garrantzitsua ez baita bakoitza nor den, baizik eta nori egiten dion. Hori dela eta, nahiz eta nokaren galeraren errudun eta erantzule bakartzat emakumea hartu izan den, guztien aukera eta ardura da parean emakumea izandakoan noka egitea, baita gizonena ere. Izan ere, azken aldian, nokaren ezagutza falta dela eta, solaskidea emakumea denean ere toka egin ohi zaio askotan. Joera horren inguruan, askotariko iritziak agertu dira gazteen artean: batzuei ez zaie batere gustatzen eta besteei, berriz, ez zaie gehiegi axola.

Eztabaida horri tiraka, hausnarketa interesgarriak atera dira. Toka ala noka bereizketak argi adierazten du hitanoaren baitan datzan genero sistema binarioa eta, ondorioz, erabat bazter uzten du biko sistema horrekin identifikatzen ez den oro. Hori horrela, batek baino gehiagok zalantzan jarri dute hitanoaren biziraupena, uste baitute hitanoaren genero bereizkeria ez datorrela bat gizartearen aurrerapenarekin eta beharbada tratamendu neutroa soilik izatea dela bidezkoena. Hitanoaren aldeko kontzientzia pixkanaka pizten ari den honetan, ideia horrek badakar zer hausnartua. Iraun behar al du hitanoak? Merezi ote du hitanoa indartzeko ahaleginak egitea? Zergatik eta zertarako?

Lehenago esan bezala, seguru asko orain ez dugu lortuko hitanoaren genero sistema binarioa desegiterik, baina bada hitanoaren alde egiteko aski zio. Batetik, hizkuntzaren mesedetan, euskararen aberastasuna gal ez dadin. Bestetik, hizkera informalaren mesedetan, argi gera dadin lagunartean euskaraz hitz egin daitekeela nahitaez erdaretara jo gabe. Azkenik, emakumeen mesedetan, behinola hitanoan izan zuten lekua berreskuratu eta erabat maskulinoa bihurtu den eremuan haien tokia aldarrika dezaten. Beraz, hitanoa indartzeko arrazoiak eta bultzatzeko gogoia egon badago, borondatea,

konpromisoa, elkarlana, ekimenak, proposamenak eta baliabideak behar dira, ordea. Lan honetan ez dugu jorratu hitanoa nola berreskuratu eta indartu daitekeen, baina bidea irekita dago.

Arestiko lerroetan Azpeitiko gazteek hitanoaren inguruan dituzten uste, balio eta ideologietan murgildu gara baina bide horretan ikertzen jarraitzeko aukera zabal-zabalik dago. Ikerlerro horretan jarraitzeko asmoa duenak hainbat abiapuntu ditu aurrera begirako ikerketetan, oraindik hutsune eta gabezia asko baitago hitanoaren inguruko literaturan. Hona hemen proposamen batzuk:

Soziolinguistikaren bidetik jarraitu nahi izanez gero, aztertzeko modukoa da —eta une honetan beharrezkoena, beharrik inon bada— nondik eta nola bultzatu daitekeen hitanoa. Horretan, hitanoa indartzeko egitasmoak eta proposamenak ere ez leudeke soberan. Herri-hizkeren arlotik heldu nahi bada eskuartean dugun gaia, herrian-herriko hitanoaren ezaugarri morfosintaktikoak aztertu daitezke, esaterako. Aitzitik, ikuspegi diakronikoago batetik, hitanoak sorreratik gaur arte izandako bilakaera ikertu daiteke, bai funtzio sozialari erreparatuta, bai aldaketa gramatikalari erreparatuta. Azkenik, ikerrildo zeharo interesgarria deritzot hitanoak telebistan izan duen eta duen presentzia ikertzea, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki; alegia, hitanoa telebistan zenbat erabili den eta zer trataera eman zaion aztertzea. Horra, bada, hitanoaren ikerketari heltzeko hainbat helduleku —beste askoren artean— heldu nahi dionarentzat.

8. Erreferentzia bibliografikoak

- Alberdi, X. (1993). Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak. *Fontes Linguae Vasconum*, 64, 425-442.
- Alberdi, X. (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. *Euskera*, 39(3). 983-993.
- Alberdi, X. (1996). Euskararen tratamenduak: erabilera. *Iker* 9. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Alberdi, X. (d.g). Euskararen tratamenduak. *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Eskuragarri: <http://www.ehu.es/seg/gizt/5/1>
- Altuna, J. & Hernandez, J. M. (2017). %2,7- Euskara, generoaz mintzo? *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(103), 121-150.
- Altuna, J. & Hernandez, J. M. (2018). Ba al dago hizkuntza neutrorik? Euskara generoaz ere mintzo da [Hitzaldia, argitaratu gabea]. *Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?* Jardunaldi akademikoetan aurkeztua. Donostia: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Amiano, I. (2016). Komikia hitanoaren i(ra)kaskuntzarako baliabide: Azpeitiko hitanoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Master Amaierako Lana, EHU. Eskuragarri: https://docs.wixstatic.com/ugd/9bbd41_5352692ef77a4da687ae724a30be29e8.pdf
- Aretxabaleta, K. (2016): Noketaren atzerakada Arratiako andrazkoen artean, XX. mendearen lehen laurdenetik gaur egunera. Gradu amaierako lana (Deustuko Unibertsitatea, argitaratu gabea).
- Azpeitiko Euskara Patronatua (2011). Hitanoaren trena abian da Azpeitian. *Erabili.eus*. 2011ko urriaren 21ean argitaratua. Eskuragarri: <http://www.erabili.eus/plangintzak/gurien/1319106748>
- Azpeitiko Udala. (d.g). Azpeitiko Historia, Nola iritsi eta Auzo eta Bazterrak. Eskuragarri: www.azpeitia.eus
- Barquin, A. (2008). Euskararen erabilera ez sexista. Gasteiz: Emakunde. Eskuragarri: https://www.ehu.es/documents/2007376/0/erabilera_ez_sexista
- Beitia, I. (2017). Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 103, 166-182.
- Bereziartua, G. & Muguruza, B. (2018a). Erabileraren gakoak egoera informaletan eta gazteen artean: hitanoa Azpeitiko gazteen artean. *Hermes*, 60, 24-28.
- Bereziartua, G. & Muguruza, B. (2018b). Hitanoari begira soziolinguistikatik: erabilera eta funtzioak. In L. M. Naya, M. A. Chateaufreud, P. Davila (editoreak), *Hizkuntzak, Ondarea eta Identitateak. Hezkuntza ikuspegia. Nazioarteko Kongresua*, 65-76. Madril: Delta. Eskuragarri: <https://addi.ehu.es/handle/10810/29966>
- Bereziartua, G. & Muguruza, B. (2018c). Zenbateraino hika Azpeitian? [Hitzaldia, argitaratu gabea]. *Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?* Jardunaldi akademikoetan aurkeztua. Donostia: Udako Euskal Unibertsitatea.

- Brown, R. & Gilman, A. (1960). The pronouns of power and solidarity. In T. Sebeok, *Style in Language*, 253-276. Cambridge, Mass., MIT Press.
- Echeverria, B. (2001). Privileging masculinity in the social construction of Basque identity. *Nations and Nationalism*, 7(3), 339-363.
- Echeverria, B. (2003). Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation. *Language in Society*, 32(3), 383-413.
- Eснаоla, E. (2006). Hitz batean, komunikatzailea. *Uztarria, Azpeitiko herri aldizkaria*, 2006ko azaroan argitaratua.
Eskuragarri: https://uztarria.eus/herri_aldizkaria/2006/78/04/index.html
- EUSTAT (2018). Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika. Gasteiz: Euskal Estatistika Erakundea. Eskuragarri: <http://eu.eustat.eus>
- Fishman, J. (1991). *Reversing Language Shift: Theoretical and empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Garzia, J. (2016). Hiri berorika egingo dizut. *Berria*. 2016ko martxoaren 12an argitaratua.
Eskuragarri: https://www.berria.eus/paperekoa/1955/019/001/2016-03-12/hiri_berorika_egingo_dizut.htm
- Goikoetxea, G. (2016). *Euskara irabazteko bidean*. Donostia: Elkar, Berria eta Jakin.
- Hernandez, J. M. (2004). Euskara dela eta... neskek zer diote? *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 53, 79-95.
- Irureta, O. (2019). Nokaren galera. Sexismoak gutxietsitakoa feminismoak suspertu al dezake? *Argia astekaria*. 2019ko otsailaren 24an argitaratua.
Eskuragarri: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2633/nokaren-galera>
- Izagirre, M. (2010). Hitanoaren erabilera Azpeitian. Hiznet, Hizkuntza-plangintza graduondoko Sakontze egitasmoa, 2010-2011.
- Joly, L. & Uranga, B. (2010). Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak. In O. Lujanbio & A. Zarraga (Ko.) *Soziolinguistika eskuliburua*, 185-223. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren eta Soziolinguistika Klusterra.
- Kasares, P. (2012). Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 82, 15-52.
- Kasares, P. (2015). Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 94, 13-45.
- Labov, W. (1972). *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania.
- Lakoff, R. (1973). Language and woman's place. *Language in Society*, 2(1), 45-80.
- Legorburu, O. (2018). Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak. Master Amaierako Lana, EHU. Eskuragarri: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/29063/ONINTZA%20LEGORBURU%20LA%20RREA%20MAL%20%282%29.pdf?sequence=2&isAllowed=y>

- Lertxundi, A. (2013). Jaka. *Berria, hitz beste*. 2013ko azaroaren 5ean argitaratua. Eskuragarri: <https://www.berria.eus/blogariak/hitzbeste/2013/11/05/jaka/>
- Lertxundi, A. (2018). Buruan daramagun gauza ilunen zama. *Berria*. 2018ko urriaren 14an argitaratua. Eskuragarri: https://www.berria.eus/paperekoa/1918/026/001/2018-10-14/buruan_daramagun_gauza_ilunen_zama.htm
- Lizartza, R. (2015). Hitanoa eta generoa. *Zuzeu*. 2015eko apirilaren 14an argitaratua. Eskuragarri: <https://zuzeu.eus/euskara/hitanoa/>
- Mayring, P. (2000). Qualitative Content Analysis. *Forum: Qualitative Social Research*, 1(2), 1-10.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Ozaita, J. (2014). Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara. *BAT Soziolingistika aldizkaria*, 91, 83-103.
- Puigdevall, M., Walsh, J., Amorrortu, E. & Ortega, A. (2018). I'll be one of them: linguistic mudes and new speakers in three minority language contexts. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 39(5), 445-457.
- Pujolar, J. & Gonzalez, I. (2013). Linguistic 'mudes' and the de-ethnicization of language choice in Catalonia. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2), 138-152.
- Soziolingüistika Klusterra (2016). Azpeitiko hizkuntza-erabileraren eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa, 2016. Emaizten txostena. Andoain: Soziolingüistika Klusterra. Eskuragarri: https://azpeitia.eus/images/AzpeitikoUdala/sailak/euskara/argitalpenak-txostenak/Azpeitiatxostena_2016.pdf
- Soziolingüistika Klusterra (d.g). Hitanoaren lanketa Azpeitian eta Zumaian. Eskuragarri: <http://www.soziolingüistika.eus/node/6484>
- Uztarria (2019). Emakumeen ahalduntzean hitanoak duen eraginaz hausnartuko dute zapatuan. *Uztarria Azpeitiko ataiye*. 2019ko martxoaren 28an argitaratua. Eskuragarri: <https://uztarria.eus/aktualitatea/1553702403>
- Woolard, K. (1989). *Double Talk: Bilingualism and the Politics of Ethnicity in Catalonia*. Stanford: Stanford University Press.
- Woolard, K. & Schieffelin, B. (1994). Language ideology. *Annual Review of Anthropology*, 23, 55-82.
- Woolard, K. (2005). Language and identity choice in Catalonia. The interplay of contrasting ideologies of linguistic authority. *UC San Diego: Institute for International, Comparative, and Area Studies*.
- Woolard, K. (2012). Introducción: Las ideologías lingüísticas como campo de investigación. In B. Schieffelin, K. Woolard & P. Kroskrity (Ed.) *Ideologías lingüísticas. Práctica y teoría*, 19-69. Madrid: Catarata.


Zalbide, M. (2017). Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak. UEMA - IX. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia Donostian.

Eskuragarri: http://www.soziolinguistika.eus/files/mikel_zalbide.pdf


Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

9. Eranskinak

I. eranskina: Behin-behineko kategoria zuhaitza



II. eranskina: Behin betiko kategoria zuhaitza (lehen zatia)



II. eranskina: Behin betiko kategoria zuhaitza (bigarren zatia)

